b) Partzelako lurren zati espezifiko batera hedatuko da, araubide horri loturik dauden etxebizitza eta eranskinei uztartutakora, araubide horri loturik partzela horretako sestra gaineko nahiz sestrapeko hirigintzako eraikigarritasunaren zati jakin bat bakarrik dagoenean.

Testuinguru horretan, baldin eta honako Plan Orokor honek, edo plangintza xehatuak, edo aurreko plan horien garapenean sustatutako bestelako xedapenek –Ordenantzak barne– dituzten aurreikuspenek berekin ekartzen badute partzelan lehendik dagoen edo egin asmo den eraikuntzaren zati bat aipatutako babes publikoko araubideari lotzea, aurreikuspen horiek eraikuntzaren zati horri lotutako partzelako lur zatiaren edo ehunekoaren hirigintza kalifikazioa –helburu horretarako– dakartela pentsatuko da.

16. artikulua. Hiri-lurzoruan kalifikazio xehatua zehazteko araubidea.

1. Egikaritza zuzeneko esparruak.

Plan Orokor honen erabakiz dagokien antolamendu xehatua duten hiri-lur gisa sailkatutako esparruak, Plan Orokor honen egikaritza zuzeneko esparrutzat hartuko dira, eta horietan guztietan planean ezarritako antolamendu-aurreikuspenak zuzenean gauzatuko dira.

Edonola ere, egikaritza zuzeneko esparru modura hartzeak ez du baztertuko –esparru osorako edo zati baterako– xehetasun-azterketak, hirigintzako jarduketa-programak, banaketa orekatzeko proiektuak edo hirigintzako lan-proiektuak egitea eskatu ahal izatea. Eta hori esparruaren berrantolamendurako plan berezi baten balizko izapidetzea alde batera utzi gabe.

2. Antolamendu xehatu geroratuko esparruak.

Honako Plan honek antolamendu xehaturik erabaki ez duen esparru guztietan, dagokien garapen plangintza (plan berezia) sustatu eta onartu beharko da helburu horrekin, bai indarrean dagoen legedian, bai Plan honetan bertan –gaiari buruzko Arau Partikularrak barne– ezarritako baldintzetan eta irizpideen arabera.

3. Plan berezien formulazioa.

A. Hiri-lurzoru gisa sailkatutako esparruetan eta indarrean dagoen legedian gaiari buruz ezarritako irizpideen arabera izaera hori erdietsi dutenetan, egoki iritzitako plan bereziak egingo edo/eta egin ahal izango dira, ezarritako antolamendu xehatua zehaztu, aldatu edo osatu ahal izateko.

Nolanahi ere, plan berezi horiek Plan Orokor honetan ezarritako egiturazko antolamendua errespetatu beharko dute, araudi honetan ezarritako antolamendu horri buruzko berregokitze-tarteei kalterik egin gabe.

Por un lado, la previsión de implantación de la citada vegetación podrá incidir tanto en terrenos privados como públicos, cualquiera que sea la calificación urbanística de los mismos.

Por otro, tratándose de terrenos públicos, la vegetación podrá implantarse en terrenos integrados tanto en la red de sistemas locales (espacios libres, parcelas de equipamiento, viario, etc.) como generales (espacios libres, parcelas de equipamiento, viario, etc.).

H. Salvo en los supuestos en los que las disposiciones legales vigentes en la materia establezcan otro tipo de criterios, la calificación pormenorizada de unos determinados terrenos para su destino a la construcción de viviendas y anejos de las mismas sujetos a cualquier régimen de protección pública se extenderá:

a) A la totalidad de los terrenos de la correspondiente parcela residencial, en los supuestos en los que la totalidad de la edificabilidad urbanística, tanto sobre como bajo rasante, de la misma se vincule al indicado régimen.

b) A la parte específica de los terrenos de la parcela vinculada a las viviendas y anejos sujetos a dicho régimen, en los supuestos en los que tan sólo una determinada parte de la edificabilidad urbanística, tanto sobre como bajo rasante, de la misma se vincule al citado régimen.

En ese contexto, siempre que las previsiones contenidas bien en este Plan General, bien en el planeamiento pormenorizado, bien en otras disposiciones, incluidas Ordenanzas, promovidas en desarrollo de los planes anteriores, conlleven la vinculación de una determinada parte de la edificación existente o proyectada en una parcela al citado régimen de protección pública, se considerará que dichas previsiones conllevan la calificación urbanística, con ese fin, de la parte o porcentaje de los terrenos de la parcela vinculada a esa parte de la edificación.

Artículo 16. Régimen de determinación de la calificación pormenorizada en el suelo urbano.

1. Ámbitos de ejecución directa.

Los ámbitos clasificados como suelo urbano en los que este Plan General determina la correspondiente ordenación pormenorizada se considerarán como ámbitos de ejecución directa del Plan General, y en todos ellos se ejecutarán directamente las previsiones de ordenación establecidas en el mismo.

En todo caso, su consideración como tales ámbitos de ejecución directa no excluye la posible exigencia de formulación –para la totalidad o parte del ámbito– de estudios de detalle, programas de actuación urbanizadora, proyectos de equidistribución o proyectos de obras de urbanización. Y eso sin descartar la eventual tramitación de un plan especial para su reordenación.

2. Ámbitos de ordenación pormenorizada diferida.

En todos aquellos ámbitos en los que este Plan no determina la ordenación pormenorizada se deberá promover y aprobar con ese fin el correspondiente planeamiento de desarrollo (plan especial), en las condiciones y de acuerdo con los criterios establecidos tanto en la legislación vigente como en este mismo Plan, incluidas las correspondientes Normas Particulares.

3. Formulación de planes especiales.

A. En los ámbitos clasificados como suelo urbano, así como en aquellos otros que, de conformidad con los criterios establecidos a ese respecto en la legislación vigente, adquieran esa condición, se formularan y/o podrán formularse los planes especiales que, con el fin de definir, modificar o complementar la ordenación pormenorizada establecida, se consideren procedentes.

Sin perjuicio de los márgenes de reajuste de la misma establecidos en la presente normativa, esos planes especiales deberán respetar en todo caso la ordenación estructural establecida en este Plan General.

EK\CV GAO-I-2018-07902

B. Baliteke plan berezien esparruak eta ukitutako Hirigintza Esparruak berdinak ez izatea. Kasu horretan, plan bereziak aukera hori behar bezala justifikatu, izenburuan bertan egoera horretaz berariaz ohartarazi, Plan Orokor honetan ondorio horietarako ezarritako erabakien testuinguruan egingo diren antolamendu-proposamenak –intentsitatea barne– behar bezala justifikatu eta Hirigintza Esparru bakoitzean izango duen eragina zehaztu beharko du. Era berean, dagokion Arau Partikularrean kasu bakoitzean ezarritako zuzkidura baldintzak ere bete beharko ditu.

C. Ondorioak izango dituzten lursail guztiak edo/eta plangintza berezietako xede diren hiri-garapenei lotutako herriko sistema sareko zuzkidura publiko osoaren –aparkalekuak eta landaretza barne– antolamendurako beharrezko izango direnak, plan berezi horien esparruan txertatuko dira, legez dagozkien estandarrak bete izanaren ondorioetarako.

Horretarako, aipatutako esparruaren mugaketa aurreko 15. artikuluko «G» atalean adierazi diren irizpideetara egokituko da.

Hori dela-eta, Plan Orokor honetan helburu horretarako aurreikusitako plan berezien esparrua, Plan honetan berariaz mugatutakoaz gain, aipatutako herriko zuzkidura horien antolamendurako behar izango diren gainerako lur guztiek ere eratzen dutela pentsatuko da.

Parametro horien arabera mugatua, plan berezi horien xede-esparrua etena edo etengabea izan daiteke.

4. Xehetasun-azterketen formulazioa.

A. Lerrun handiagoko plangintzan aurreikusitako eraikuntzen itxura fisikoa edo urbanizazioaren antolamendua indarrean dagoen hirigintza-legedian eta Plan honetan ezarritako baldintzetan eta mugen barruan aldatzeak justifikatu egingo du xehetasun-azterketak egitea.

Formulazio hori ezinbestekoa izango da bai urbanizazioaren, bai eraikuntzaren kotak eta sestrak zehazteko, baldin eta indarrean dagoen antolamendu xehatuaren testuinguruan aurretik finkaturik ez badaude, eta hutsune horiek zuzen ditzaketen plangintza xehatua edo urbanizazio-proiektuak egin eta izapidetzea aurreikusi ez bada behintzat.

B. Formulazio hori nahitaezkoa izango da, besteak beste, bide eta espazio publikoetako urbanizazioaren sestrak, edo erabilera publikoko zortasuna duten partzela eraikigarrien zenbait zatitakoak, berregokitu nahi direnean, eta berregokitze horrek partzela horietako edo beste batzuetako antolamendu-baldintzak aldatu eta antolamendua plangintzan ezarritakoaren arabera garatzerik ez dagoenean; bai eta jabari publikoko espazioetan garajeetarako sarbide-arrapalak aldatu edo berriak egin behar direnean ere.

C. Plangintza orokorrari, partzialari edo bereziari dagozkien erabakiak, aldez aurretik lerrun horretako plangintzak ezarri ez dituenak, ezin izango dira plangintza mota honen bitartez finkatu.

Horrela, ez da inolaz ere xehetasun-azterketarik egingo honako Plan Orokor honek egikaritza aurretik plangintza partziala edo berezia egitea derrigorrezkotzat ezartzen duen lurraldeetan, baldintza hori bete ez bada.

D. Eraikuntzen itxura fisikoa eta urbanizazioa zehaztu edo berregokitzean, lerrun handiagoko plangintzak ezarritako kalifikazio xehatua osatu ahal izango dute, bai eta aldatu ere, Dokumentu honetako 18. artikuluan ezarritako kasuetan.

E. Eraikuntzen itxura fisikoa zehaztu edo berregokitzean, eraikuntza horien forma arautzen duten parametroak (eraikuntzaren garaiera eta solairu kopurua) aldatu ahal izango dituzte, Plan Orokor honetan horri buruz ezarritako araubide orokorreko irizpide arautzaileen barruan.

B. El ámbito de los planes especiales podrá no ajustarse al de los Ámbitos Urbanísticos afectados. En este caso, el plan especial deberá justificar suficientemente dicha opción, hacer constar esa circunstancia expresamente en su titulación, justificar debidamente las propuestas de ordenación planteadas, incluida su intensidad, en el contexto de las determinaciones establecidas a esos efectos en este Plan General, y precisar su incidencia en cada uno de los Ámbitos Urbanísticos afectados. Asimismo deberán cumplimentar los requisitos dotacionales que en cada caso se establecen en la Norma Particular correspondiente.

C. Se integrarán en el ámbito de dichos planes especiales la totalidad de los terrenos que resulten afectados y/o necesarios para la ordenación, a los efectos del cumplimiento de los correspondientes estándares legales, del conjunto de las dotaciones públicas de la red de sistemas locales asociada a los desarrollos urbanos objeto de aquellos, incluidos los aparcamientos y la vegetación.

La delimitación, con ese fin, del citado ámbito se adecuará a los criterios expuestos en el apartado «G» del anterior artículo 15.

En ese sentido, el ámbito de los planes especiales previstos con ese fin en este Plan General se entenderá conformado por, además del expresamente delimitado en ese Plan, todos los restantes terrenos que resulten necesarios para la ordenación de las citadas dotaciones locales.

Delimitado de acuerdo con esos parámetros, el ámbito objeto de dichos planes especiales podrá ser continuo o discontinuo.

4. Formulación de estudios de detalle.

A. La modificación, dentro de los límites y en las condiciones establecidas en la vigente legislación urbanística y en este Plan, de la configuración física de las edificaciones, o de la ordenación de la urbanización, previstas en el planeamiento de rango superior, justificará la formulación de estudios de detalle.

Dicha formulación resultará necesaria para la determinación de las cotas y rasantes tanto de la urbanización como de la edificación siempre que las mismas no estén definidas en el contexto de la ordenación pormenorizada vigente, y no se prevea la elaboración y tramitación bien de planeamiento pormenorizado bien de proyectos de urbanización que pudieran subsanar esas deficiencias.

B. Será preceptiva dicha formulación, entre otros casos, cuando se pretenda reajustar las rasantes de la urbanización de las vías y espacios públicos, o de aquellas partes de las parcelas edificables sometidas a servidumbres de uso público, y dicho reajuste modifique las condiciones de ordenación de esas u otras parcelas, haciendo inviable su desarrollo de acuerdo con lo establecido por el planeamiento, así como para la modificación o nueva apertura de rampas de acceso a garajes sobre espacios de dominio público.

C. No se podrán definir a través de esta figura de planeamiento determinaciones propias de planeamiento general, parcial o especial que no estuvieran previamente establecidas por un planeamiento con ese rango.

Así, en ningún caso procederá su formulación en territorios en los que este Plan General establece la obligación de la formulación de planeamiento parcial o especial previa a la ejecución, sin que este requisito se haya cumplimentado.

D. Al definir o reajustar la configuración física de las edificaciones y la urbanización, podrán complementar la calificación pormenorizada establecida por el planeamiento de rango superior, o, incluso modificarla, en los casos establecidos en el artículo 18 de este mismo Documento.

E. Al definir o reajustar la configuración física de las edificaciones podrán modificar los parámetros reguladores de la forma de las mismas (altura y número de plantas de la edificación), dentro de los criterios reguladores del régimen general establecido a ese respecto en este Plan General.

EK\CV GAO-I-2018-07902

F. Dokumentu honetako 18.3 artikuluan aipatutakoekin zerikusia duten gaiei buruz izan ezik, Xehetasun Azterketek ez dute erabaki loteslerik izango plangintzaren egikaritza-araubideari –jarduketa sistemen aplikazioa, etab.–, egikaritza-aldi edo epeei, edota hirigintzako esku-hartze baten eragina izan dutenek prozesu urbanizatzailearen kostuak finantzatu beharrari buruz.

5. Antolamendu xehatu finkatua.

Plan Orokor honek lehen indarrean egon zen hirigintza plangintzan (nahiz plangintza orokorrean, nahiz plangintza partzial eta berezietan edota xehetasun-azterketetan) ezarritako antolamendu xehatua finkatu duen kasu guztietan, Plan honi erantsitakoa lehengo plangintza horrek zuenaren erakusgarri hutsa dela pentsatuko da.

Izaera horretako aurreikuspenei dagokienez, Plan Orokor honen eta lehengo plangintzaren artean desadostasunik edo kontraesanik izanez gero, azken honen ondorioak hartuko dira kontuan.

17. artikulua. Lurzoru urbanizagarrian kalifikazio xehatua zehazteko araubidea.

1. Plan Orokor honetan lurzoru urbanizagarri modura sailkatutako esparruetako antolamendu xehatua zehazteak, helburu horri dagokion plangintza xehatua –plangintza partziala eta, hala badagokio, berezia– egin eta onartzea eskatzen du, Plan Orokor honetako dagokion Arau Partikularrean, ezinbestekoa ez, baizik eta aukerakoa dela proposatzen den kasuetan izan ezik.

2. Dokumentu honetako aurreko 16. artikuluan ezarri diren berregokitze-irizpideen aplikazioari kalterik egin gabe, garapen-plangintza horrek derrigorrez errespetatu beharko ditu Plan Orokor honetan ezarritako egiturazko antolamenduaren aurreikuspenak.

3. Dagokion Arau Partikularrean epe luzeagoa edo laburragoa ezarri ezean, lurzoru mota honetan aurreikusitako plangintza xehatua, Plan Orokor hau behin betiko onartzen denetik gehienez ere lau (4) urteko epean egin beharko da.

18. artikulua. Lotura arauemailea eta kalifikazio xehatuaren zehaztapenak berraztertzeko araubidea.

1. Jarraian adieraziko diren salbuespenekin, titulu honetako «Kalifikazio xehatua sistematizatu eta arautzeko araubide orokorra» izenburuko 3. kapituluan, eta dokumentu honetako «Partzela eraikigarrien eraikuntza- eta erabilera-araubide orokorra» izenburuko hirugarren tituluan ezarritako zehaztapenek eratzen dute oinarrizko eraikuntza- eta erabilera-araubidea, erabilera xehatuko eremu edo partzela bereizietan.

Horregatik, zehaztapen horiek egiturazko antolamenduari dagozkion maila eta izaera dituzte, hain zuzen ere. Zehaztapen horien aldaketak, bada, lerrun eta izaera berberak izango dituen hirigintza-espedientea egitea eskatuko du.

Aipatutako salbuespenak, nahiz dagokion Arau Partikularrean, nahiz plangintza xehatuan egin daitezkeen zehaztapen horien berregokitzeekin, kasu bakoitzean ukitutako esparruen berezitasunetara egokitzeko soilik egin daitezkeenekin, loturik daude. Berregokitze horiek ez dute eraginik izango eremu horietako hirigintza-araubidearen oinarrizko ezaugarri eta baldintza arautzaileetan, eta, edonola ere, justifikazio zorrotza behar izango dute.

2. Plan Orokor honetan araututako erabilera xehatuko eremuen tipologiak, planaren garapenean bultzatutako plangintza xehatuak osatu ahal izango ditu, baldin eta hauei hirigintzako baldintza bereziak emateak haietatik bereiztea justifikatzen badu.

F. Salvo en lo referente a las cuestiones relacionadas con las mencionadas en el siguiente artículo 18.3 de este mismo Documento, los Estudios de Detalle no contendrán determinaciones vinculantes referentes al régimen de ejecución del planeamiento –aplicación de sistemas de actuación, etc.–, a las etapas o plazos de ejecución, o a las obligaciones de financiación de los costos del proceso urbanizador por parte de los afectados por una intervención urbanística.

5. Ordenación pormenorizada consolidada.

En todos aquellos supuestos en los que este Plan General consolida la ordenación pormenorizada establecida en el planeamiento urbanístico vigente con anterioridad (tanto en el planeamiento general como en los planes parciales y especiales y estudios de detalle), se entenderá que la incorporada a este Plan es un mero reflejo de la contenida en dicho planeamiento anterior.

En caso de discrepancia o contradicción en lo referente a las previsiones de esa naturaleza entre este Plan General y el planeamiento anterior, se estará a lo resultante de este último.

Artículo 17. Régimen de determinación de la calificación pormenorizada en el suelo urbanizable.

1. La determinación de la ordenación pormenorizada de los ámbitos clasificados como suelo urbanizable en este Plan General requiere la formulación y aprobación, con ese fin, del correspondiente planeamiento pormenorizado –planeamiento parcial y, en su caso, especial-, salvo en los supuestos en los que en la correspondiente Norma Particular de este Plan General se plantee su innecesariedad.

2. Sin perjuicio de la aplicación de los criterios de reajuste de la misma establecidos en el anterior artículo 16 de este Documento, dicho planeamiento de desarrollo deberá respetar obligatoriamente las previsiones propias de la ordenación estructural establecidas en este Plan General.

3. Salvo que en la correspondiente Norma Particular se establezcan plazos superiores o inferiores, el planeamiento pormenorizado previsto en esta clase de suelo deberá formularse en el plazo máximo de cuatro (4) años contados desde la aprobación definitiva de este Plan General.

Artículo 18. Vinculación normativa y régimen de reconsideración de las determinaciones de calificación pormenorizada.

1. Con las salvedades que se exponen a continuación, las determinaciones establecidas tanto en el anterior capítulo «3. Régimen general de sistematización y regulación de la calificación pormenorizada» de este mismo Título, como en el Título Tercero. Régimen general de edificación y uso de las parcelas edificables» de este mismo Documento, configuran el régimen básico de edificación y uso de las diversas zonas o parcelas de uso pormenorizado diferenciadas.

Precisamente por ello, esas determinaciones tienen el rango y la naturaleza propios de la ordenación estructural. Su modificación requerirá la formulación de un expediente urbanístico de ese mismo rango y naturaleza.

Las citadas salvedades están relacionadas con el posible reajuste de las citadas determinaciones, bien en la correspondiente Norma Particular, bien en el planeamiento pormenorizado, con la exclusiva finalidad de adaptarlas a las particularidades propias del ámbito afectado en cada caso. Dichos reajustes no podrán afectar a las características y condiciones básicas reguladoras del régimen urbanístico de las citadas zonas, y habrán de ser objeto, en todo caso, de la debida y rigurosa justificación.

2. Las tipologías de zonas de uso pormenorizado reguladas en este Plan General podrán ser complementadas por el planeamiento pormenorizado promovido en su desarrollo, siempre que la asignación a las mismas de particulares condiciones urbanísticas justifique su diferenciación de aquellas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

3. Kalifikazio xehatuko zehaztapenak, honako Plan honetan edo planaren garapenean bultzatutako plangintza xehatuan ezarritakoak, xehetasun-azterketak eginez aldatu ahal izango dira, honako kasu hauetan:

— Partzela eraikigarrietako ordenantza bereizien berregokitzea, xehetasun-azterketen esku-hartze eremuari dagozkion gaietan.

Berregokitze hori, eraikuntzaren itxura arautzen duten parametroetara (garaiera eta solairu kopurua) eta dagozkien lerrokadura eta sestretara ere hedatu ahal izango da, partzelako hirigintza-araubide orokorreko baldintza arautzaileetara egokitzeko testuinguruan betiere.

— Antolamendu xehatua egokitzea, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legearen 73. artikuluan aurreikusitako irispidearekin.

Egokitze horren barruan dago antolamendu xehatua eragina jasango duten lurren eta inguruaren egoera material eta orografikoetara egokitzea ere, antolamenduaren oinarrizko ezaugarriak aldatzeko modurik izan gabe. Irabazizko partzeletara nahiz antolamendu horren ondoriozko zuzkidura publikoetara ere heda daiteke.

Zuzkidura publiko horiei dagokienez, aipatutako egokitzapenak berarekin ekar dezake zuzkiduren mugaketa zehatza berregokitzea, baina ez du inolaz ere ekarriko zuzkiduren azalera gutxitzea, ez eta horien baldintza kualitatiboak murriztea ere.

— Irabazizko erabileretara xedatuko diren partzela eraikigarrietarako ezarritako lursail multzoaren aldaketa, baina, lehen adierazitako salbuespenekin, partzela horien zonakako banaketa aldatzeko modurik izan gabe.

Aitzitik, azaleraren balizko handitzeak onartuko dira komunitate-ekipamenduko erabileretara xedatutako partzeletan.

Nolanahi ere, egindako proposamenen garrantzia kontuan hartuta, Udalak plangintza xehatuko espediente bat egitea eska dezake, nahiz eta proposamen horiek aurreko ataletan adierazitako baldintzetara egokitu.

4. Era berean, bide-sareko eta zerbitzu-azpiegituretako –orokorrak eta herrikoak– itxura-, diseinu- eta sestra-konponbideak, oro har, horien egikaritzarako gauzatutako obra-proiektuek Plan Orokor honetan ezarritako baldintza orokorren barruan berregokitzaketela pentsatuko da.

19. artikulua. Plangintza lurzoru urbanizaezinean.

1. Plangintza orokorrean berariaz aurreikusitako kasuetan ez ezik, proposatutako helburuak lortzeak hala justifikatzen duen kasu guztietan ere premiazko iritzitako plan bereziak –antolamenduari, babesari, etab.i buruzkoak– egin eta onartzeari ekingo zaio.

2. Bai indarrean dagoen hirigintza-legedian, bai Plan Orokor honetan bertan ezarritakoaren arabera, Udalak jarraian adieraziko diren jarduketen garapena eta egikaritza baldintzatu ahal izango du, antolamenduari, babesari, etab.i buruzko plan berezia aldez aurretik egin eta onartzearen, edo horrek izango duen ondorioaren baldintzapean jarriz. Horrela egin ahal izango da, besteak beste, honako kasu hauetan:

— Landa-eremuan kokatu behar diren onura publikoko eraikuntza eta instalazioen garapen eta egikaritzan.

— Lurraldeko antolamendu-baliabideetan edo hirigintza-plangintzan aurreikusita edo aurreikusi gabe egonik eta beste erabilera baimendu batzuen ezarpenean obra osagarri edo lagungarritzat ezin har daitezkeen azpiegiturako elementu berriak egitean: errepideak, ibai-ibilguetako kanalizazioak, zerbitzu-azpiegiturak ezartzea, urbanizazio-lanak egitea edota antzeko bestelako elementuak.

3. Las determinaciones de calificación pormenorizada establecidas bien en este Plan, bien en el planeamiento pormenorizado promovido en su desarrollo, podrán ser modificadas mediante la formulación de estudios de detalle en los siguientes supuestos:

— Reajuste de las ordenanzas particularizadas de las parcelas edificables, en lo extremos propios del campo de intervención de un estudio de detalle.

Ese reajuste puede extenderse a los parámetros reguladores de la forma de la edificación (altura y número de plantas) así como a las correspondientes alineaciones y rasantes, siempre en el contexto de su adecuación a las condiciones reguladoras del régimen urbanístico general de la parcela.

— Adaptación de la ordenación pormenorizada con el alcance previsto en el artículo 73 de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006.

Esa adaptación incluye la adecuación de la ordenación pormenorizada a los condicionantes materiales y orográficos de los terrenos y del entorno afectados, sin que pueda alterar las características básicas de aquella. Puede extenderse tanto a las parcelas lucrativas como a las dotaciones públicas resultantes de dicha ordenación.

En lo referente a esas dotaciones públicas, la citada adecuación podrá conllevar el reajuste de su precisa delimitación, sin que en modo alguno pueda conllevar una reducción de su superficie, ni una depreciación de sus condiciones cualitativas.

— Modificación del parcelario establecido para las parcelas edificables destinadas a usos lucrativos, sin que, con las salvedades antes expuestas, pueda modificarse su zonificación.

Por el contrario, se admitirán eventuales incrementos de superficie en las parcelas destinadas a usos de equipamiento comunitario.

En todo caso, en atención al alcance de las propuestas planteadas, el Ayuntamiento podrá exigir la formulación de un expediente de planeamiento pormenorizado, aun cuando aquellas se adecuen a los requisitos señalados en los apartados anteriores.

4. Asimismo, se entenderá con carácter general que las soluciones de configuración, trazado y rasantes de la red viaria y de las infraestructuras de servicios -generales y locales- podrán ser reajustados por los proyectos de obra que se formulen para su ejecución, dentro de las condiciones generales establecidas en este Plan General.

Artículo 19. Planeamiento en el suelo no urbanizable.

1. Además de en los supuestos expresamente previstos en el planeamiento general, se procederá a la formulación y aprobación de los correspondientes planes especiales de ordenación, protección, etc. que se estimen necesarios en todos aquellos supuestos en los que la consecución de los objetivos planteados lo justifique.

2. En consonancia con lo establecido tanto en la legislación urbanística vigente como en este mismo Plan General, el Ayuntamiento podrá condicionar el desarrollo y la ejecución de las actuaciones que se indican a continuación tanto a la previa formulación y aprobación del correspondiente plan especial de ordenación, protección, etc., como a lo que resulte del mismo. Podrá procederse de esa manera en, entre otros, los siguientes supuestos:

— Desarrollo y ejecución de edificaciones e instalaciones de interés público que deban de emplazarse en el medio rural.

— Realización de nuevos elementos de infraestructura -carreteras, canalizaciones de cauces fluviales, implantación de infraestructuras de servicios, realización de obras de urbanización u otros elementos similares- estén o no previstos en los instrumentos de ordenación del territorio o en el planeamiento urbanístico, y no puedan ser considerados como obras complementarias o auxiliares de la implantación de otros usos autorizados.

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Ezarri beharreko erabileren ezaugarri bereziek, egin beharreko garapenaren garrantziak, lurraldeak izan dezakeen eraldaketak, bide sistemaren gaineko eraginek edo bestelako faktoreek, jarduketaren hirigintza-txertaketa egokia eta lurraldeko paisaia-, ingurumen- eta natura-balioen babesa bermatuko dituen antolamendua aldez aurretik zehaztea aholkatzen dutenean.

Udal-erabakiak zehaztuko du antolamendua egitearen ekimena eskatzaileari ote dagokion, ala ekimen hori Udalak beretzat gordeko ote duen; edonola ere, Plan Orokor honek zehaztutako elementuak, lurraldeko egitura orokor eta organikoa osatzen dutenak, garatuko dituzten plan bereziak egiteko erantzukizuna ez zaie inola ere partikularrei emango.

Hala dagokienean, plan berezi horiei indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera beharrezko diren ingurumen arloko ebaluazio-azterketak erantsiko zaizkie.

2. Plan honetan onartutako esku-hartze eta jarduketak, aipatutako plangintza berezia egitea eskatzen ez dutenak, zuzenean egikarituko dira.

20. artikulua. Plangintza xehatuaren eduki material eta dokumentala.

1. Plan bereziak eta partzialak.

A. Plan Orokor hau garatzeko izapidetuko diren plan bereziek eta partzialek, indarrean dagoen legedian ezarritako zehaztapenei egokitzeaz gain, planek ukitutako esparruko antolamenduaren eta lur mugakideen arteko koordinazioa egokia dela ere ziurtatu beharko dute, baita nahitaezko urbanizazio elementuen antolaketari buruzko xehetasunei dagokienez ere, horretarako beren esku-hartze esparrua hasieran ezarritako mugetatik kanpo hedatuz, hala behar izanez gero.

Betebehar hori bereziki kontuan hartuko da proposatutako antolamendua aldatuko den kasuetan, eta planean, edo behar izanez gero bestelako espediente paraleloetan, esparru mugakideetan alda litezkeen urbanizazio elementuen egikaritza era egokian egitea bermatuko duten hirigintza-egikaritzako mekanismoen aplikaziorako nahitaezko zehaztapenak txertatu beharko dira.

B. Plan bereziek eta partzialek, indarrean dagoen hirigintza-legediaren arabera dagokien edukia izateaz gain, besteak beste honako gai hauek ere zehaztu eta adierazi beharko dituzte:

— Egin nahi den antolamenduaren ondorioz sortutako urbanizazio berriaren kotak eta sestrak, lur publiko eta pribatuei dagozkienak, bai eta aurreikusitako eraikuntza berrien ezarpenari buruzkoak ere, egin beharreko urbanizazio-proiektuen bitartez batzuek eta besteak berregokitu edo/eta osatzeari kalterik egin gabe. Kota eta sestra horiek, besteak beste, koordenatu digitalizatu egokien bidez zehaztuko dira.

Testuinguru horretan, Dokumentu honetako 50. artikuluan aipatzen den eraikuntzaren fatxadako beheko erreferentzia maila zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, eraikuntza horren sestra gaineko lehen solairuaren abiaburu-kota ere.

— Egin nahi diren eraikuntzen kokapen zehatza mugatzeko beharrezko diren koordenatu digitalizatuak (lerrokadurak, etab.).

— Kasu bakoitzean egin asmo den garapenaren programazio-irizpideak, helburu horretarako egoki iritzitako aurreikuspenak barne.

— Legezko egoiliarrak eta proposatutako antolamenduarekin bateraezinak diren ekonomia-jarduerak leku berri batean kokatu edo/eta leku berri batera eramateko arazoa, hala dagokionean, indarrean dagoen legedian (kontuan hartuko da, besteak beste, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa) ezarritako aurrei-

— Cuando las características específicas de los usos a implantar, la entidad del desarrollo a realizar, la transformación previsible del territorio, las afecciones sobre el sistema viario u otros factores, aconsejen la previa definición de una ordenación que garantice la adecuada inserción urbanística de la actuación y la defensa de los valores paisajísticos, ambientales y naturalísticos del territorio.

La resolución municipal definirá si la iniciativa de la formulación del mismo recae en el solicitante, o se la reserva el propio Ayuntamiento, entendiéndose que en ningún caso podrá asignarse a particulares la responsabilidad de formulación de planes especiales que desarrollen elementos constituyentes de la estructura general y orgánica del territorio definidos por este Plan General.

Dichos planes especiales incorporarán, en su caso, los estudios de evaluación ambiental necesarios de acuerdo con lo dispuesto por la legislación vigente.

2. Se ejecutarán directamente las intervenciones y actuaciones autorizadas en este Plan que no requieran la formulación del citado planeamiento especial.

Artículo 20. Contenido material y documental del planeamiento pormenorizado.

1. Planes especiales y parciales.

A. Los planes especiales y parciales que se tramiten en desarrollo de este Plan General, además de ajustarse a las determinaciones establecidas en la legislación vigente, deberán asegurar la adecuada coordinación de la ordenación del ámbito afectado por los mismos con los territorios colindantes, incluso en aspectos de detalle de la disposición de los necesarios elementos de urbanización, extendiendo para ello, si fuese conveniente, su ámbito de intervención más allá del límite inicialmente establecido.

Esta obligación será tenida en cuenta de manera especial en los casos en los que se modifique la ordenación propuesta, debiendo incorporar el plan, u otros expedientes paralelos si fuesen necesarios, las determinaciones necesarias para la aplicación de los mecanismos de ejecución urbanística que garanticen adecuadamente la ejecución de los elementos de urbanización eventualmente modificados en los ámbitos colindantes.

B. Los planes especiales y parciales, además del contenido que les es propio de acuerdo con la vigente legislación urbanística, deberán definir y exponer, entre otros extremos:

— Las cotas y rasantes de la nueva urbanización resultante de la ordenación proyectada, referidas a los terrenos públicos y privados, así como las de implantación de las nuevas edificaciones previstas, sin perjuicio de su reajuste y/o complementación mediante los proyectos de urbanización a formular. Dichas cotas y rasantes serán definidas mediante, entre otros extremos, las adecuadas coordenadas digitalizadas.

Se determinará en ese contexto el nivel de referencia inferior de la fachada de la edificación a la que se hace referencia en el siguiente artículo 50 de este Documento, además de, en su caso, la cota de arranque de la primera planta sobre rasante de dicha edificación.

— Las coordenadas digitalizadas necesarias para la determinación del emplazamiento preciso de las edificaciones proyectadas, (alineaciones, etc.).

— Los criterios de programación del desarrollo proyectado en cada caso, incluidas las previsiones que con ese fin se estimen adecuadas.

— Los criterios de tratamiento y respuesta, de conformidad con las previsiones establecidas en la legislación vigente (Se ha de tener en cuenta a ese respecto lo dispuesto en, entre otros, la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Suelo y Urbanismo, de 30 de junio de 2006), de la problemática existente, en su caso, en materia de realojo y/o traslado de residentes le-

EK\CV GAO-I-2018-07902

kuspenen arabera tratatu eta erantzuteko irizpideak, gero, antolamendu hori egikaritzerakoan, tratamendu eta erantzun horiek berregokitu edo/eta zehazteari kalterik egin gabe.

— Urbanizatzailearen eta Udalaren, edota urbanizatzaile horren eta etorkizuneko orube-jabeen artean ezarri beharreko konpromisoak, argi eta garbi aipatuz, besteak beste, dagokion esparruko urbanizazioaren zainketa.

C. Aipatutako plan berezi eta partzialek beraiek ukitutako jarduketa integratuko esparruei dagokien jarduketa urbanizatzailearen programa beretu duten kasuan, plan horietan txertatuko dira programa horri dagozkion zehaztapen eta dokumentuak ere.

Kasu horretan, aipatutako planen berezko aurreikuspen eta dokumentuek, alde batetik, eta aipatutako programek, bestetik, erakusketa eta tratamendu bereiziak izango dituzte.

D. Era berean, eta ingurumenaren ikuspegitik, honako zehaztapen hauek ere izan beharko dituzte:

— Uholdeak jasateko arriskua duten eremuetan proposatutako hirigintza-jarduketek, arrisku horri buruzko xehetasun-azterketak erantsi beharko dituzte, etorkizunean egingo diren eraikuntzek inguruneko uholde-arriskua ez dutela areagotzen egiaztatu ahal izateko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan zenbait flora-espezieren babesa ezarri zuen 4/1990 Foru Dekretuan, urtarrilaren 16koan, xedatutakoa beteko da. Landaretza autoktonoaren eremu garrantzitsuak (hariztiak, haltzadiak, etab.) errespetatu egingo dira, hirigintza-unitateen diseinuan txertatuz eta urbanizazio- eta eraikuntza-lanak egiten diren bitartean eremu horien babeserako segurtasun-hesia jartzea eskatuz. Azkenik, garatuko diren berrezartze eta birlandatze proiektuek, ahal den neurrian, eremu horien hedapena bultzatuko dute, eta hurbileko beste landaretza-eremu batzuekin lotzea ere bai, horrela korridore ekologikoak eratzearen alde eginez.

Abiapuntuko irizpide modura, ez da ibilgu publikoen inolako aldaketarik proposatuko hirigintzako aprobetxamendurik lortzeko. Era berean, ibilguen ondoko eremuetan hirigintza-garapenak egingo dituzten sustatzaileek ibai-bazterrak berreskuratzeko proiektuak, ibaiertzetako kalitate ekologikoa bere onera ekartzeko lehen urratsak izan daitezkeenak, egitea ere bultzatuko da, ahal den guztietan. Berreskuratze-proiektu horietan, ibaiertzak ingeniaritza bigun eta naturaleko teknikez birlandatzea aztertuko da, zuhaitz, zuhaixka eta belar espezieak landatuz.

Eremuan dauden Arkeologia, Historia eta Arkitektura Ondareko elementuak ere kontuan izango dira hirigintza-unitateen diseinuan, aurreikusiko diren jarduketek elementu horiek zaindu eta berritzen laguntzea lortzeko. Nolanahi ere, elementu horiei eragin diezaiekeen edozein obra edo jarduketa, dagokion erakundeari jarraitu beharreko irizpideei buruzko kontsulta egin ondoren bakarrik egingo dela ziurtatu beharko da.

Garapen-plangitzaren baldintza teknikoen pleguek ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren 6 eta 7. ataletan proposatutako babes-neurri eta gainbegiratze programa guztiak bildu beharko dituzte, HAPO-an planteatutako hirigintza-garapenaren bideragarritasuna bermatzeko. Gainera, plan partzialetara, plan berezietara, xehetasun-azterlanetara, urbanizazio-proiektueara, eraikuntza proiektuetara, etab. gehitu beharko diren babes-neurri eta neurri-zuzentzaile guztiak xehetasun maila nahikoarekin ezarriko dira heuren eraginkortasuna bermatzeko. Zentzu horretan, aurrekontuan sartu litezken neurriak obra unitate moduan gehituko dira, dagokion partida ekonomikoarekin proeiktuan, eta aurrekontuan sartu ezin direnak, baldintza teknikoen pleguan gehituko dira.

gales y actividades económicas incompatibles con la ordenación planteada, sin perjuicio de su posterior reajuste y/o precisión en la fase de ejecución de dicha ordenación.

— Compromisos a establecer entre el urbanizador y el Ayuntamiento, y entre aquel y los futuros propietarios de solares, con referencia expresa, entre otros aspectos, a la conservación de la urbanización del ámbito correspondiente.

C. En el supuesto de que los citados planes especiales y parciales incorporen el correspondiente programa de actuación urbanizadora de los ámbitos de actuación integrada afectados por los mismos, se incluirán en ellos las determinaciones y documentos propios de dicho programa.

En ese caso, las previsiones y documentos propios de, por un lado, los citados planes, y, por otro, los mencionados programas serán objeto de exposición y tratamiento diferenciados.

D. Asimismo, y desde un punto de vista medioambiental deberán contener las siguientes determinaciones:

— La obligación de que las actuaciones urbanísticas que se planteen en zonas con riesgo de inundabilidad, se deberán incorporar estudios de detalle de dicho riesgo con el objetivo de poder comprobar que las futuras edificaciones no vayan a afectar desfavorablemente a la inundabilidad del entorno.

Se cumplirá lo establecido en el Decreto Foral 4/1990, de 16 de enero, por el que se establece la protección de determinadas especies de la flora del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se respetarán las manchas de entidad de vegetación autóctona (robledales, alisedas, etc.) integrándolas en el diseño de las unidades urbanísticas y exigiendo el establecimiento de barreras de seguridad para su protección durante el desarrollo de las obras de urbanización y edificación. Finalmente, los proyectos de restauración y revegetación que se desarrollen facilitarán, en la medida de lo posible, el aumento de su extensión y la conexión de las mismas con otras manchas de vegetación cercanas, favoreciendo así la formación de pasillos ecológicos.

Como criterio de partida, no deberá plantearse ninguna modificación de los cauces públicos para la obtención de aprovechamientos urbanísticos. Asimismo, siempre que sea posible, se potenciará que los promotores de desarrollos urbanísticos en zonas colindantes a cauces realicen proyectos de recuperación de las márgenes de los ríos que puedan ser un primer paso en la recuperación de la calidad ecológica de las riberas. Estos proyectos de recuperación deberán contemplar la revegetación de la ribera con técnicas de ingeniería blanda naturalística mediante plantaciones de especies que forman parte del estrato arbóreo, arbustivo y herbáceo.

Se tendrán en cuenta también en el diseño de las unidades urbanísticas la presencia de elementos del Patrimonio Arqueológico e Histórico-Arquitectónico para conseguir que las actuaciones que se prevean favorezcan su conservación y restauración. En todo caso, deberá asegurarse que cualquier obra u actuación que pudiera afectarles se realice sólo tras consulta sobre los criterios a seguir al organismo correspondiente.

Los pliegos de condiciones técnicas del planeamiento de desarrollo deben de recoger todas las medidas protectoras y el programa de supervisión propuestos en los apartados 6 y 7, respectivamente, del Estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, de forma que se garantice su viabilidad en el desarrollo urbanístico planteado en el PGOU. Además, todas las medidas protectoras y correctoras indicadas que deban incorporarse a los planes parciales, planes especiales, estudios de detalle, proyectos de urbanización, proyectos de construcción etc., han de hacerlo con el suficiente grado de detalle para que garanticen su efectividad. En este sentido, aquellas medidas que sean presupuestables, deberán incluirse como unidad de obra, con su correspondiente partida económica en los proyectos, y las que no puedan presupuestarse, se exigirá que se incluyan en el pliego de condiciones técnicas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

E. Urari dagokionez, dagoen saneamendu sare orokorrarekiko lotura justifikatu beharko da, ezinezkoa den kasuetan izan ezik era egokian justifikatuaz eta eskumena duen Administrazioak beharrezkoak iruditzen zaizkion baldintzak ezartzeko kalterik gabe behin-behineko isurketa baimenari dagokionez. Baimena Uren Legearen testu bateginaren 101, 2 artikuluan zehaztutakoaren arabera emango da.

Era berean, jabari publiko hidraulikoan edo horren zortasun edo polizia guneentan eragina duten jarduketentzat, Ibai-arroko Erakundearen ur arloko administrazioaren aurre-onarpena beharko du, Uraren Euskal Agentzian izapidetuko dena.

2. Xehetasun-azterketak.

A. Antolamendu figura honen berezko edukia eta Plan honek edo plana garatuko duen plangintza xehatuak kasu bakoitzean gaiari buruz ezarriko dituzten zehaztapen bereziak izateaz gain, xehetasun-azterlanek, aldez aurretik mugatutako egikaritza-unitateekin bat datozen lurralde-esparruetako antolamendua garatu edo berregokitzen dutenek, zehaztu egin beharko dute, aipatutako plangintza xehatuak behar adina zehaztu ez badu, partzela eraikigarriei emango zaien hirigintza eraikigarritasuna ere, aipatutako plangintza xehatuak eta honako Plan honek horri buruz ezarritako esparru arauemailearen barruan.

B. Hala dagokienean xehetasun-azterketek zehaztu behar dituzten bai urbanizazioaren, bai eraikuntzen kotak eta sestrak, dagozkien koordenatu digitalizatu egokiak xehetasun-azterketa horietara erantsiz finkatuko dira.

1.12. 5. KAPITULUA. ERAIKIGARRITASUN FISIKOA ETA HIRIGINTZAKO ERAIKIGARRITASUNA ZEHAZTEKO ARAUBIDE OROKORRA

21. artikulua. Eraikigarritasunaren sistematizazioa eta eraikigarritasuna arautzeko araubide orokorra.

1. Irizpide orokorrak.

A. Indarrean dagoen hirigintza-legedian ezarritakoaren arabera, eraikita edo eraikitzeko dagoen irabazizko eta irabazteko asmorik gabeko sabai-azalera guztia, hirigintza-plangintzak sestra gainean nahiz sestrapean aurreikusitakoa, hartuko da eraikigarritasun fisiko edo gordintzat.

B. Legedia horretan ezarritakoa kontuan hartuta, hirigintza-plangintzak irabazteko asmoz aurreikusitako eraikigarritasun fisikoa hartuko da hirigintzako eraikigarritasuntzat, baina lehendik dauden eta berri modura finkatu diren zuzkidura publikoei lotutakoa alde batera utziz.

C. Partzela eraikigarriei emandako eraikigarritasun fisikoa edo gordina, edo zuzenean eta berariaz zehaztu ahal izango da (eraikigarritasun-indizea, eraikigarritasun osoa, etab., adieraziz), edo zeharka bestela, eraikuntzaren itxura arautuz, lehengo eraikuntza-itxuraren aipamena barne.

D. Eraikigarritasun fisikoaren edo gordinaren zuzeneko arauketa, oro har, sestra gainean aurreikusitakoari buruzkoa izango da, eta, hala dagokionean, sestrapean aurreikusitakoari buruzkoa ere bai.

E. Eraikigarritasun fisikoaren edo gordinaren zeharkako arauketa hiri-lurzoru modura sailkatutako Hirigintza Esparruetan (HE) kokaturik dauden partzeletan bakarrik onartuko da, bai eta, hala dagokionean, lurzoru mota horretan edo lurzoru urbanizagarrian daudenetan ere, sestrapean aurreikusitakoari dagokionean.

Eraikigarritasuna arautzeko eredu hau erabiltzeak, ordea, aukera eman behar du hirigintza-antolamendua garatu edo/eta egikaritzeko prozesuan aldian-aldian emandako eraikigarritasuna era egokian zenbatu ahal izateko.

E. En materia de aguas, deberá justificarse la conexión a la red general de saneamiento existente, salvo imposibilidad debidamente justificada, y sin perjuicio de que la Administración competente imponga las condiciones que estime pertinentes en la eventual autorización de vertido que se debe otorgar conforme al artículo 101, 2 del Texto Refundido de la Ley de Aguas.

Asimismo, para las actuaciones que afecten al dominio público hidráulico o a sus zonas de servidumbre o policía, se deberá obtener la previa autorización de la administración hidráulica del Organismo de Cuenca, que se tramitará en la Agencia Vasca del Agua.

2. Estudios de detalle.

A. Además del contenido propio de esta figura de ordenación y de las determinaciones particulares que al respecto establezca en cada caso este Plan o el planeamiento pormenorizado que lo desarrolle, los estudios de detalle que desarrollen o reajusten la ordenación de ámbitos territoriales coincidentes con unidades de ejecución previamente delimitadas, deberán precisar, en el caso de que el planeamiento pormenorizado de referencia lo haya definido de forma insuficiente, la edificabilidad urbanística asignada a las diferentes parcelas edificables, dentro del marco normativo establecido al respecto por el citado planeamiento pormenorizado y por el presente Plan.

B. Las cotas y rasantes tanto de urbanización como de edificación que, en su caso, deban ser determinadas en los estudios de detalle, serán definidas mediante la incorporación a los mismos de las correspondientes y adecuadas coordenadas digitalizadas.

1.12. CAPÍTULO 5. RÉGIMEN GENERAL DE DETERMINACIÓN DE LA EDIFICABILIDAD FÍSICA Y URBANÍSTICA

Artículo 21. Sistematización y régimen general de regulación de la edificabilidad.

1. Criterios generales.

A. De conformidad con lo establecido en la legislación urbanística vigente, se entiende por edificabilidad física o bruta la totalidad de la superficie de techo construida o por construir, lucrativa y no lucrativa, prevista por el planeamiento urbanístico tanto sobre como bajo rasante.

B. En atención a lo establecido en dicha legislación, se entiende por edificabilidad urbanística la edificabilidad física de carácter lucrativo prevista por el planeamiento urbanístico, con exclusión de la vinculada a las dotaciones públicas tanto existentes y consolidadas como nuevas.

C. La edificabilidad física o bruta asignada a las parcelas edificables, podrá definirse bien de forma directa y expresa (mediante índice de edificabilidad, edificabilidad total, etc.), bien indirectamente, a través de la regulación de la forma de la edificación, incluida la remisión a la forma de la edificación existente.

D. La regulación directa de la edificabilidad física o bruta se referirá, con carácter general, a la prevista sobre rasante, y, en su caso, también bajo rasante.

E. La regulación indirecta de la edificabilidad física o bruta sólo se admitirá en las parcelas que se sitúen en Ámbitos Urbanísticos (AU) clasificados como suelo urbano, y también, en su caso, tanto en ese suelo como en el urbanizable, en lo referente a la prevista bajo rasante.

La utilización de esta formula de regulación de la misma deberá permitir, sin embargo, la adecuada cuantificación de la edificabilidad asignada en la correspondiente fase del proceso de desarrollo y/o ejecución de la ordenación urbanística.

EK\CV GAO-I-2018-07902

F. Eraikigarritasuna eraikuntzaren itxura arautuz zeharka zehaztuko den kasuetan, oinarrizko tamaina arautzaileak –eraikuntzaren garaiera eta solairu kopurua– Plan Orokor honetan ezarritako irizpideen arabera neurtuko dira.

1. Oro har, behegaina eta eraikuntzaren behe- eta goi-solairuak sestra gaineko solairutzat hartuko dira eta sotoak, berriz, sestrapeko solairutzat, eraikigarritasuna erabakitzeko eta erabilera batera edo bestera xedatzen ote diren zehazteko tratamenduari kalterik egin gabe.

Erdisotoak, bestalde, dituzten ezaugarriak eta mugak kontuan izanik, edo sestra gaineko, edo sestrapeko solairutzat hartu ahal izango dira. Horri dagokionez, kontuan hartuko da Plan Orokor honetako Arau Partikularretan eta planaren garapenean sustatutako plangintzan ezarritakoa.

2. Eraikuntza jakin bateko solairu kopurua zehazteko ondorioetarako, kontuan hartuko da, kasu bakoitzean, bai eraikuntza kokaturik dagoen Plan Orokor honetako Hirigintza Esparruko Arau Partikularrean ezarritakoa, bai eta planaren garapenean bultzatutako plangintza xehatuan ezarritakoa ere, hala dagokionean, bateko nahiz besteko grafikoak ere kontuan hartuz.

3. Kasu bakoitzean baimendutako solairu kopurua behar bezalako zehaztasunez adieraziko da, besteak beste honako irizpide hauek erabiliz:

A. Aurreikusitako hirigintza-garapen berriak direnean, lehendik zeuden hiri-errealitateak berritu eta ordezkatzeko jarduketei loturikoak barne, aipatutako solairu kopurua berariaz eta zehazki adieraziko da sestra gainekoak eta sestrapekoak bereiziko dituzte zenbaki-parametroak erabiliz.

B. Egun dauden hirigintza-garapen finkatuak direnean, aurreikuspen hori aipatutako zenbaki-parametroen bidez zehaztu ahal izango da, edo zeharka bestela, lehendik zeuden eraikuntzak egun duten solairu kopuruarekin finkatuz.

C. Gehigarri modura fatxadan atzera sartutako atiko solairu bat egitea baimenduz gero, espresuki eta besteetatik bereizirik adieraziko da.

D. Estalkipeko solairua, bestalde, eraikuntzako gainerako solairuetako erabileretara ez, baizik eta erabilera juridikoki bereizi eta apartekoetara xedatzen den kasuetan bakarrik hartuko da solairu gehigarri eta bereizi modura eraikuntzaren solairu kopurua arautzerakoan.

65. artikulua. Eraikuntza-garaiera neurtzeko irizpideak.

1. Oro har, eraikuntza-garaiera, beheko erreferentzia modura fatxada-azalerak eta lur urbanizatuak bat egiten duten puntu ertaina hartuz, eta goiko erreferentzia gisa –baldin eta eraikinak teilatu-hegalik ez badu– fatxada-azaleraren edo fatxada eta estalki-planoa elkartzen diren gunearen punturik gorena hartuz neurtuko da, dagokion Arau Partikularrean edo plangintza xehatuan berariaz beste irizpideren bat xedatzen ez bada behintzat.

2. Aurreikusitako garapen berriak direnean, lehenagoko hiri-errealitateak berritu eta ordezkatzeko jarduketei lotutakoak barne, aipatutako eraikuntza-garaiera eta adierazitako eraikinaren goiko eta beheko erreferentzia-mailak, baita sestra gaineko lehen solairuaren ezarpen-kota bera ere, hirigintza plangintzak –xehetasun-azterketa barne, hala dagokionean– ezarriko ditu grafikoki, koordenatu digitalizatu egokien bitartez.

— Los altillos, autorizados con carácter general en las edificaciones industriales.

C. En todo caso, también con carácter general, en la determinación de la citada edificabilidad se diferenciará las previstas sobre y bajo la rasante de la parcela.

Artículo 64. Criterios para la determinación del número de plantas de la edificación.

1. Con carácter general, y sin perjuicio de su tratamiento a los efectos de la determinación de la edificabilidad y de su destino a unos y otros usos, se consideran como plantas sobre rasante el entresuelo y las plantas baja y altas de la edificación, y como plantas bajo rasante los sótanos.

Por su parte, en atención a sus características y condicionantes, los semisótanos podrán ser considerados bien como plantas sobre rasante bien como plantas bajo rasante. Se estará a ese respecto a lo establecido en las correspondientes Normas Particulares de este Plan General y en el planeamiento promovido en su desarrollo.

2. A los efectos de la definición del número de plantas de una determinada edificación se estará a lo establecido en cada caso bien en la correspondiente Norma Particular del Ámbito Urbanístico de este Plan General en el que esté situada la misma, bien en el planeamiento pormenorizado promovido en su desarrollo, incluidos los gráficos que, en su caso, formen parte de aquella y de éste.

3. Se identificará con la debida precisión el número de plantas autorizado en cada caso, de conformidad con, entre otros, los siguientes criterios:

A. Tratándose de los nuevos desarrollos urbanísticos proyectados, incluidos los asociados a actuaciones de reforma y sustitución de realidades urbanas preexistentes, el citado número de plantas será identificado de forma expresa y precisa mediante parámetros numéricos referidos de forma diferenciada al sobre y al bajo rasante.

B. Tratándose de desarrollos urbanísticos existentes y consolidados, dicha previsión podrá ser determinada bien mediante los citados parámetros numéricos, bien de forma indirecta mediante la consolidación de las edificaciones existentes con su número de plantas.

C. En el supuesto de que se autorice adicionalmente la ejecución de una planta de ático retranqueado en fachada, la misma será identificada de forma expresa y diferenciada.

D. Por su parte, la planta bajocubierta únicamente será considerada como planta adicional y diferenciada en la regulación del número de plantas de la edificación en los casos en los que se destine a usos diferenciados e independientes, jurídicamente, de los ubicados en el resto de las plantas de la edificación.

Artículo 65. Criterios para la medición de la altura de edificación.

1. Con carácter general, la altura de la edificación se medirá tomando como referencia inferior el punto medio de la superficie de fachada en su encuentro con el terreno urbanizado, y, como referencia superior –si la construcción carece de alerosel nivel del punto más alto de la superficie de fachada, o de la intersección de ésta con el plano de cubierta, salvo que en la correspondiente Norma Particular o en el planeamiento pormenorizado se disponga de forma específica otro criterio.

2. Tratándose de los nuevos desarrollos proyectados, incluidos los asociados a actuaciones de reforma y sustitución de realidades urbanas preexistentes, tanto la citada altura de edificación como los referidos niveles de referencia superior e inferior de la misma, incluida la cota de implantación de la primera planta sobre rasante, serán establecidos de forma gráfica por el planeamiento urbanístico, incluido, en su caso, estudio de detalle, mediante las adecuadas coordenadas digitalizadas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Aurreikuspen horiek antolamendu xehatuari dagokion maila izango dute.

66. artikulua. Eraikuntza-baldintza orokorrak.

1. Oro har eta Hirigintza Esparruen Arau Partikularretako nahiz plangintza xehatuko berregokitze justifikatuari kalterik egin gabe, udalerriko hiri-eremuko partzeletan hiru (3) sotoko solairu eraikitzeko baimena ematen da.

Edonola ere, eraikuntza edo multzo katalogatuak direnean, sestrapeko eraikuntzaren aurreikuspena eta baimena, eraikuntza eta multzo horiek egoera egokian gorde eta zaintzearekin bateragarri dela zehatz-mehatz justifikatzearen baldintzapean egongo da. Izatekotan ere, aipatutako zainketarekin bateragarri izango den kasuetan eta irismenarekin bakarrik baimenduko da. Kasu horietan baimendutako solairu kopuruaren zehaztapena ere, era berean baldintzaturik egongo da.

Baldin eta kasu horietan plangintza xehatua egitea aurreikusten bada, plangintza horretan gaiari buruz xedatutakoa hartuko da kontuan.

2. Arau Partikularrek edo plangintza xehatuak bestelako baldintzak ezartzeari kalterik egin gabe, bizitegi-eraikuntzaren sestra gaineko lehen solairuko lurzoru amaituaren mailak gehienez ere 5,00 metroko garaiera izango du, lursail urbanizatuaren sestratik neurtuta.

Horrez gain, udal-ordenantzek ere proposatu ahal izango dute aurreikuspen hori berregokitzea bidezkoa eta motiboduna dela iritzitako kasuetan.

3. Oro har, goi-solairuetako gutxieneko garaiera librea, Hirigintza Arau hauetan ezarri diren irizpideen arabera finkatutakoa, 2,50 metrokoa izango da.

Aurreikuspen hori Plan Orokor honen Arau Partikularretan salbuespen gisa berregokitu ahal izango da, behar bezala justifikaturik Plan hori onartu aurretik zeuden eraikuntza eta solairuei dagokien kasuetan.

Horrez gain, Dokumentu honetako 5. artikuluan aipatu diren eraikuntza arloko udal-ordenantzek ere aipatutakoa baino garaiera libre txikiagoak aurreikusi ahal izango dituzte, salbuespen modura eta duten helburu espezifikoa kontuan harturik egoki iritzitako etxebizitzako zatietan.

Aipatutakoa baino garaiera txikiagoa duten lehengo eraikinak ordezkatu behar diren kasuetan, eraikuntzaren garaiera osoa handitzea baimenduko da, eraikuntzako solairuei adierazitako gutxieneko garaiera eman ahal izateko. Irizpide hori, ordea, ez da aplikagarri izango estalkipeko solairuen garaierari dagokionean. Eraikuntzari edo eraikuntza txertaturik dagoen multzoari eman zaion katalogazio maila kontuan harturik bateraezina izango den kasuetan ere ez da aplikagarri izango.

Jabari hidrauliko publikoan edo jabari horren zortasun- eta polizia-eremuetan edozein esku-hartze egiteko, aldez aurretik dagokion arauzko administrazio-baimena lortu beharko da gaian eskumena duen agintarien eskutik.

Esas previsiones tendrán el rango propio de la ordenación pormenorizada.

Artículo 66. Condiciones de edificación de carácter general.

1. Con carácter general, y, sin perjuicio de su justificado reajuste tanto en las Normas Particulares de los Ámbitos Urbanísticos como en el planeamiento pormenorizado, se autoriza la construcción de tres (3) plantas de sótano en las parcelas del área urbana del término municipal.

En todo caso, tratándose de edificaciones o conjuntos catalogados, la previsión y autorización de la construcción bajo rasante se entenderá condicionada a la precisa y rigurosa justificación de su compatibilidad con el mantenimiento y la preservación de los mismos en las debidas condiciones. Se entenderá autorizada, exclusivamente, en los supuestos y con el alcance en que resulte compatible con la citada preservación. La determinación del número de plantas autorizado en esos casos se entenderá condicionada de igual manera.

Siempre que en esos supuestos se prevea la elaboración de planeamiento pormenorizado, se estará a ese respecto a lo dispuesto en el mismo.

2. Sin perjuicio de que las Normas Particulares o el planeamiento pormenorizado establezcan otro tipo de condiciones, el nivel del suelo acabado de la primera planta alta sobre rasante de la edificación residencial se situará a una altura máxima de 5,00 m medidos desde la rasante del terreno urbanizado.

Además, las Ordenanzas municipales podrán plantear el reajuste de esa previsión en los casos en los que se considere conveniente y justificado.

3. Con carácter general, la altura libre mínima de las plantas altas, fijada conforme a los criterios establecidos en estas Normas Urbanísticas, será de 2,50 m.

Esa previsión podrá ser reajustada excepcionalmente en las Normas Particulares de este Plan General en supuestos debidamente justificados, referidos a edificaciones y plantas de las mismas existentes con anterioridad a la aprobación de dicho Plan.

Además, las Ordenanzas municipales de edificación a las que se hace referencia en el artículo 5 de este Documento podrán prever, con carácter excepcional y en las partes de la vivienda que, en atención a su destino específico, se estimen adecuadas, alturas libres inferiores a la citada.

En los supuestos de sustitución de edificaciones preexistentes que dispusiesen de una altura inferior a la citada, se autorizará el incremento de la altura total de la edificación con el fin de dotar a dichas plantas de la altura mínima señalada. Ahora bien, este criterio no será de aplicación en lo referente a la altura de las plantas bajocubierta. Tampoco será de aplicación en los supuestos en los que en atención al grado de catalogación asignado bien a la edificación bien al conjunto en el que se integre la misma, ello no resultara compatible.

Cualquier intervención tanto en el dominio público hidráulico como en sus zonas de servidumbre y de policía se entenderá condicionada a la previa obtención de la correspondiente y preceptiva autorización administrativa de la autoridad competente en la materia.

EK\CV GAO-I-2018-07902

3.2. 2. KAPITULUA. HIRI LURZORUAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN BIZITEGI ERABILERAKO PARTZELETAN (A partzelak) APLIKAGARRI DIREN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZA OROKORRAK

3.2.1. 1. ATALA. Bizitegi erabilerako partzeletan (A partzelak) aplikagarri diren eraikuntza itxuraren arauketarako baldintza orokorrak

67. artikulua. Eraikinaren lerrokadurak.

Plan Orokor honetan, Araudi Xehatuaren Hirigintza Fitxetan eta Orri Grafikoetan edo horiek garatzen dituzten plangintza-baliabideetan ezarritakoak izango dira.

Lerrokadura horiek betetzen ez dituzten lehengo eraikinak, lerrokadura horietara egokituko beharko dira aldatu, handitu edo berreraikitzen direnean.

Interpretazioan zalantzarik sortzen bada edota egoki iritziz gero, lehendik zeuden lerrokaduretan berregokitzeak egin ahal izango dira antolamendu hobea lortzeko, Udalak erabakitako Xehetasun Azterketaren edo Plan Bereziaren bitartez.

68. artikulua. Sestrak.

Bide publikoetako sestrak Araudi Xehatuaren Orri Grafikoetan ezartzen dira altimetria-kotak zehaztuz. Bideetako puntu bakoitzean, sestra aipatutako planoan adieraziko da; sestra horren balioa, berriz, berariaz zehaztutako sestrak dituzten bi punturen artean kokatzen da, bi sestra horien interpolazio proportzionalaren bitartez.

Dagoeneko urbanizaturik dauden eremuetan sestra aplikagarria leku jakin batean finkaturik gelditzen ez bada, berez dagoena aplikatuko da, baina berrurbanizazio esku-hartzeetan, konponbide egokiagoa lortzeko berregokitzeak egin ahal izango dira.

69. artikulua. Eraikuntzaren gehieneko sakonera.

1. Plan Orokor honetan (Araudi Xehatuaren Hirigintza Fitxak eta Orri Grafikoak) edo horiek garatzen dituzten plangintza-baliabideetan kasu bakoitzean ezarritakoa izango da.

2. Lerrokadurak aldatzea aurreikusten ez bada, gehienezko sakonera lehendik zegoen eraikuntzarena izango da.

70. artikulua. Eraikuntzen garaiera eta solairu kopurua.

Plan Orokor honek (Araudi Xehatuaren Hirigintza Fitxak) edota horien garapenerako onartutako plangintza-baliabideek Sektore, Area edo Partzela bakoitzerako zehaztutakoak izango dira.

71. artikulua. Estalkiak.

a) Gehienbat, bi, hiru edo lau isurkikoak egingo dira edo lehendik zeudenen ezaugarrietara egokituko dira. Nolanahi ere, gehieneko aldapa % 35koa izango da.

b) Zenbait kasu berezitan onartuko dira estalki lauak, eraikuntza kokaturik dagoen ingurunea kontuan hartuz betiere. Kasu horietan, eraikineko instalazio komunen elementu laguntzarriak bakarrik (igogailu-gela, tximiniak, antenak, argizuloak, etab.) ipini ahal izango dira estalki horren gainean.

c) % 35eko profilaren gainetik, tximiniei, aireztapen- edo hozte-hodiei, barandei edo bestelako segurtasun elementuei dagozkien zati irtenak bakarrik onartuko dira.

d) Eraikineko instalazioen elementu teknikoak hartzen dituzten guneak (igogailu-gelak edo antzekoak), estalkiaren ingu-

3.2. CAPÍTULO 2. CONDICIONES GENERALES DE EDIFICACIÓN Y USO APLICABLES EN LAS PARCELAS DE USO RESIDENCIAL EN SUELO URBANO Y URBANIZABLE (Parcelas A)

3.2.1. SECCIÓN 1.ª Condiciones generales de regulación de la forma de la edificación aplicables en las parcelas de uso residencial (Parcelas A)

Artículo 67. Alineaciones de la edificación.

Serán las establecidas en el presente Plan General, Fichas Urbanísticas y Hojas Gráficas de la Normativa Pormenorizada o en los instrumentos de planeamiento que las desarrollen.

Los edificios existentes que no respeten esas alineaciones, deberán ajustarse a las mismas cuando sean modificados, ampliados o reconstruidos.

En el caso de que se suscitaran dudas de interpretación o se estimara conveniente, podrá, para lograr una mejor ordenación, introducir reajustes en las alineaciones preexistentes, el Ayuntamiento lo determinará por medio de un Estudio de Detalle o de un Plan Especial.

Artículo 68. Rasantes.

Las rasantes de las vías públicas se establecen en las Hojas Gráficas de la Normativa Pormenorizada mediante la determinación de su cota altimétrica. En cada punto de las vías, la rasante será indicada en dicho plano, obteniéndose su valor en un emplazamiento intermedio entre dos con rasantes expresamente determinadas mediante interpolación proporcional de las mismas.

En las zonas ya urbanizadas, si no quedara fijada la rasante aplicable en determinado lugar, se adoptará la que exista de hecho, si bien, en las intervenciones de reurbanización, se podrán introducir reajustes que produzcan una solución más adecuada.

Artículo 69. Fondo máximo de la edificación.

1. Será establecido en cada caso del presente Plan General (Fichas Urbanísticas y Hojas Gráficas de la Normativa Pormenorizada) o en los instrumentos de planeamiento que las desarrollen.

2. Si no estuviese prevista una modificación de alineaciones, el fondo máximo será el del edificio preexistente.

Artículo 70. Altura de los edificios y numero de plantas.

Serán las que determinen, para cada Sector, Area o Parcela, este Plan General (Fichas Urbanísticas de la Normativa Pormenorizada) o los instrumentos de planeamiento aprobados o que las desarrollen.

Artículo 71. Cubiertas.

a) Se ejecutará, preferentemente, a dos, tres o cuatro aguas o se adaptarán a las características de las preexistentes. En cualquier caso, la pendiente máxima será del 35 %.

b) Se admiten, en algunos casos singulares, las cubiertas planas, siempre teniendo en cuenta el entorno en el que se desarrolla la edificación. En tales casos, sobre ella se podrán disponer, exclusivamente, los elementos auxiliares de instalaciones comunes del edificio (caseta de ascensor, chimeneas, antenas, lucernarios, etc.).

c) No se permitirá, por encima del perfil del 35 %, otros elementos salientes que los correspondientes a chimeneas, conductos de ventilación o refrigeración, barandillas u otros elementos de seguridad.

d) Los espacios que alojen elementos técnicos de las instalaciones del edificio (cuartos de ascensores o similares) debe-

EK\CV GAO-I-2018-07902

ratzaile baimenduaren barruan txertaturik gelditu beharko dira. Hori teknikoki ezinezkoa balitz, onartuko dira atal irtenak estalki-profilaren gainetik, baina funtzionamendu tekniko egokirako behar izango den heinean soil-soilik.

e) Onartuko da estalki-planoarekiko argizulo paraleloak ipintzea ohiko patioak edo aireztapenekoak estaltzeko. Argizuloak espazio bizigarriak argiztatu eta aireztatzeko direnean, gehienez ere 0,90 x 1,50 metroko neurriak izango dituzte eta fatxada-baoekin ardatzean kokaturik egongo dira.

f) Modu berezian zehazturik, zenbait Area edo Sektoretan onartzen da estalkipeko guneetan terrazak irekitzea, baldin eta terrazaren elementu guztiak baimendutako estalki profilaren azpitik gelditzen badira. Etxebizitza bakoitzeko terraza bat eraiki ahal izango da, gehienez ere 3,00 metroko zabalera izango duena eta jabetzaren zatiketa-gunetik 1,50 metroko tarteaz banaturik egongo dena; horrela, bi terrazen arteko gutxieneko tartea 3,00 metrokoa izango da. Sakonerak estalki-aldaparen araberakoak izango dira, gutxieneko metro bateko (1,00 m) garaieratik gehienezko 2,50 metroko garaierara arte. Terrazak etxebizitzen jarraipena izango dira, inoiz ez trastelekuen jarraipena. Fatxada-baoekin ardatzean kokatuko dira. Elementu honen garaiera gehienez ere 3,00 metrokoa izango da estalki-elementuak gainean izango dituen teilatu-hegalaren limari dagokionez, eta kasu berezi horretan aldapa gehienez ere % 70ekoa izango da, elementuak duen diseinuaren arabera.

g) Izkinako partzeletan, dorre apaingarriak jartzea baimendu ahal izango da. Eraikinaren izkinetan kokatuko dira, bi lerrokadurek bat egiten duten gunetik abiatuta gehienez ere 5,00 metroko luzerarekin fatxada bakoitzean, eta ez dute solairu baten garaiera gaindituko teilatu-hegal horizontalean.

h) Erlaitzek ez dute inondik inora gailurra gainditzerik izango.

72. artikulua. Hegalak, atzeraemanguneak, teilatu-hegalak eta bestelako elementuak.

a) Hegalak itxiak (begiratokiak, galeriak) edo irekiak (balkoiak eta terrazak) izan daitezke.

b) Dimentsio-baldintzak area edo sektore bakoitzaren banan-banako fitxetan finkatzen dira.

c) Atal irtenak eraikinaren lehen goi-solairutik gora ipini beharko dira beti; horrela, atal horren edozein zati bide publikoaren edo lursailaren sestra baino 2,50 metro gorago egongo da gutxienez.

d) Hegalak duten irtenaren gutxieneko bat bereizi beharko dira alboko eraikinetik edo mehelinetik, etxebizitzen arteko bereizketan mehelina eratuz lehengo hegalen jarraipen modura ipintzen ez badira behintzat.

e) Atzeraemanguneak libreak izango dira, baina sakonera ez da aurrealdearen erdia baino handiagoa izango.

f) Esekitokiak gorderik egongo dira bide publikotik ez ikusteko.

g) Hegalaren edo teilatu-hegalaren gehienezko irtengunea area edo sektore bakoitzaren banan-banako fitxetan finkatzen da. Erlaitzek ez dute inondik inora gailurra gaindituko.

73. artikulua. Patioak.

a) Ohiko etxadi-patioak.

1. Patio hauen barruan hainbat titularren jabetzak bereizteko elementuak (hormak eta burdin hesiak) eraiki ahal izango dira. Hormek 0,50 metroko garaiera izango dute gehienez ere eta horien gainean 2,00 m arteko garaiera duten burdin hesiak ipini ahal izango dira.

2. Plan Orokor honetan, Plan Berezian edo Xehetasun Azterketaren batean patio hauek lorategi edo espazio libre izatera

rán quedar integrados en el interior de la envolvente de la cubierta autorizada. En el supuesto de que ello, técnicamente, no fuese posible, se permitirán cuerpos salientes por encima del perfil de cubierta, minimizándose a lo exclusivamente necesario para un funcionamiento técnico correcto.

e) Se permitirá la disposición de lucernarios paralelos al plano de la cubierta para la cubrición de patios o patinillos. En caso de lucernarios para iluminación y ventilación de espacios habitables, tendrán una dimensión máxima de 0,90 x 1,50 m^2 y se situará a eje con los huecos de fachada.

f) En determinadas Areas o Sectores, en los que se especifica singularmente, se admite la apertura de terrazas en el espacio bajocubierta, siempre que todos los elementos de las mismas queden por debajo del perfil de la cubierta autorizado. Se realizará un máximo de una terraza por vivienda, tendrá una anchura máxima de 3,00 m y separada de la división de la propiedad un mínimo de 1,50 m, de forma que la separación mínima entre dos terrazas sea de 3,00 m. Los fondos irán en función de la pendiente de cubierta, desde un mínimo de 1,00 m. hasta un máximo de 2,50 m de altura. Los espacios de terraza serán continuación de los espacios de vivienda, nunca de espacios de trastero. Se situarán a eje con los huecos de fachada. La altura de este elemento con respecto a la lima del alero horizontal será como máximo de 3,00 m sobre la que se dispondrán los elementos de cubierta, en este caso singular, con una pendiente máxima del 70 %, en función del diseño del elemento.

g) En las parcelas de esquina, podrá autorizarse la disposición de torreones ornamentales. Se ubicarán en la esquina del edificio, con una longitud máxima de 5,00 m en cada una de las fachadas, a partir del encuentro de ambas alineaciones y su altura no sobrepase en alero horizontal la altura de una planta de pisos.

h) Las cornisas no podrán superar en ningún punto la altura de la cumbrera.

Artículo 72. Vuelos, retranqueos, aleros y otros elementos.

a) Los vuelos podrán ser cerrados (miradores, galerías) o abiertos (balcones y terrazas).

b) Las condiciones dimensionales se fijan en las fichas individualizadas de cada área o sector.

c) Los cuerpos salientes se deberán situar siempre a partir de la primera planta alta del edificio, de forma que cualquiera de sus partes construidas se sitúe, al menos, a 2,50 m sobre la rasante de la vía pública o del terreno.

d) Los vuelos deberán retirarse de la edificación colindante o medianera un mínimo del saliente del vuelo, con la salvedad de que se disponga en continuidad con los vuelos existentes. Configurando medianera en la separación entre viviendas.

e) Los retranqueos serán libres, no superando su fondo, la mitad de su frente.

f) Los tendederos estarán protegidos de la vista de la vía pública.

g) El saliente máximo del vuelo o el alero se fija en las fichas individualizadas de cada área o sector. Las cornisas no superarán en ningún momento la altura de cumbrera.

Artículo 73. Patios.

a) Generales de manzana.

1. Dentro de los mismos, podrán construirse elementos de separación (muros y verjas) de las propiedades de distinto titular. Los muros tendrán una altura máxima de 0,50 m y, sobre ellos, podrán colocarse verjas de hasta 2,00 m de altura.

2. Cuando estos patios no estén destinados a jardín o espacio libre en este Plan General, en el Plan Especial o en un Es-

EK\CV GAO-I-2018-07902

xedaturik ez badaude, dagoen etxearen lehen solairuko lurzoruraino estali ahal izango dira, sotoko eta beheko solairuko lokalak handitzeko.

3. Handitze horietako sabaietako kotak berdinak izateko modurik ez dagoenean, Udalak erabakiko du patioak itxura onena izateko konponbiderik egokiena.

4. Patioetako eraikuntza horien argiztapena sabai-leiho edo argizuloen bidez egingo da, baina horiek ezin izango dute 0,50 m baino gehiago atera kokaturik dauden estalkiaren goialdeko planotik gora.

5. Patioko eraikuntzaren estalkia eraikinaren barrualdetik zuzenean eta eroso heltzeko modukoa izango da.

b) Partzelakoak.

1. Barne-patioek izan beharreko neurrien arabera, beraien barruan patioaren garaieraren heren bateko diametroa izango duen zirkulu bat egiteko modukoak izango dira, gutxienez 3,00 metroko diametroa dutela eta solairuko leku bakar batean ere 2,00 metro baino gutxiagoko estugunerik izan gabe.

2. Patioaren garaiera, aireztatu beharreko gela baxuenaren zoladura-mailatik aintzat hartutako aurrealdeko paramentuaren goi-goiko gailurreraino neurtuko da.

3. Patioak sabai-leihoez estali ahal izango dira, baldin eta inguruan espazio librea, sabai-leihoaren eta patioko hormen artean inolako itxierarik ez duena, uzten bada, eta aireztapen-azalera gutxienez patioak duen oinplano-azaleraren % 25ekoa bada.

4. Patioko zoladura ez da inondik inora argiztatu edo aireztatu beharreko gelako zorua baino gorago jarriko. Zoru horren gainean ez da inolako eraikuntzarik egiterik izango.

5. Etxebizitzetara xedatu gabeko beheko solairuko espazioen argiztapena eta aireztapena, patioan ipinitako argizulo edo sabai-leihoen bitartez osatu ahal izango da, baina patio horretatik aireztapena eta argiztapena jasotzen duten lehen solairuko gelen zorutik gora 0,50 m baino gehiago atera gabe.

6. Patioa zoru iragazgaitzez, hustubidez eta sifoi erregistragarriz hornitu beharko da.

c) Aireztapen-patioak.

1. Patioaren neurriak bere barruan gutxienez 1,80 metroko diametroa duen zirkulua egin ahal izateko adinakoak izango dira.

Debekaturik dago sei solairutik gorako garaiera duten aireztapen-patioak jartzea.

Patioaren garaiera argi-patioetarako ezarritako modu berean neurtuko da.

2. Aireztapen-patioak aireztatu egin behar du, eta, neurri batean, soil-soilik eskailerak, komunak eta bainugelak argiztatzea ere bai.

3. Patio hauei dagokienean, partzela-patioetarako ezarritako arauak egongo dira indarrean, gutxieneko neurriei dagozkienak izan ezik.

d) Erkidetuak.

1. Partzela-patioetarako finkatutako arauak izango dituzte indarrean.

2. Patio erkidetuaren zati batekiko mehelina agerian baldin badago, zati hori beiraz eta arotzeriaz edo sareta batez ezkutatuko da, kanpotik ez ikusteko moduan eta behar den aireztapena bermatuz.

3. Ordenantza hauetan ezarritako zortasun baldintzak dira mota honetako patioek nahitaez bete behar dituztenak.

tudio de Detalle, podrán ser cubiertos hasta la altura del suelo del piso primero de la casa correspondiente, con la finalidad de ampliar los locales de sótano y planta baja.

3. En el caso de que las cotas de los techos de esas ampliaciones no puedan ser iguales, el Ayuntamiento determinará las soluciones convenientes para el mejor aspecto general del patio.

4. La iluminación de esas construcciones en el patio, se efectuará a través de claraboyas o lucernarios, que no podrán sobresalir más de 0,50 m desde el plano de la parte superior de la cubierta en la que estén colocados.

5. La cubierta de la construcción en el patio será directa y cómodamente accesible desde el interior del edificio.

b) De parcela.

1. La dimensión de los patios de interiores será tal que permita inscribir en su interior un círculo de diámetro igual a un tercio de su altura, con un diámetro mínimo de 3,00 m, sin que en punto alguno de su planta se produzcan estrechamientos de menos de 2,00 m.

2. La altura del patio se medirá desde el nivel de pavimento de la habitación a ventilar más baja hasta la línea de coronación superior de la fábrica del paramento frontal considerado.

3. Los patios podrán cubrirse, en su coronación, con claraboyas, siempre que se deje un espacio libre perimetral, sin clase de cierre alguna entre la claraboya y las paredes del patio, con una superficie de ventilación mínima del 25 % de la superficie en planta del patio.

4. El pavimento del patio no podrá situarse por encima del nivel del suelo de la dependencia a iluminar o ventilar. Sobre ese suelo no podrá efectuarse construcción alguna.

5. La iluminación y ventilación de espacios de planta baja no destinados a vivienda, podrán complementarse por medio de lucernarios o claraboyas situados en el patio, de manera que no sobresalgan más de 0,50 m por encima del nivel del suelo de las dependencias de planta primera que reciban ventilación e iluminación de dicho patio.

6. Deberá dotarse el patio de piso impermeable, desagüe y sifón registrable.

c) De ventilación (patinillos).

1. La dimensión del patio será tal que permita inscribir en su interior un círculo de no menos de 1,80 m de diámetro.

No se permite establecer patios de ventilación cuya altura sea superior a la de seis plantas.

La altura del patio se medirá de la misma forma que la establecida para los patios de luces.

2. Su función será la de ventilar y, en cierta medida, iluminar exclusivamente escaleras, retretes y baños.

3. Regirán respecto de estos patios, las normas establecidas para los patios de parcela, exceptuando las referentes a su dimensión mínima.

d) Mancomunados.

1. Se regirán por las normas fijadas para los patios de parcela.

2. Mientras la medianería con una parte del patio mancomunado quede al descubierto, dicha parte, se ocultará de la vista desde el exterior mediante vidrio y carpintería o con una celosía, garantizándose la necesaria ventilación.

3. Las condiciones de servidumbre a las que, obligatoriamente, se someterán este tipo de patios, son las que se establecen en estas Ordenanzas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

74. artikulua. Erabilera pribatuko espazio eraikiezinak sestra gainean.

a. Espazio hauetan ez da inolako eraikuntzarik onartuko. Hala ere, plangintza xehatuak berariaz arautu ahal izango du eraikuntza nagusitik bereizitako eraikin lagungarriren bat eraikitzea.

b. Oro har, baimendurik dago sestra gainean obra-elementurik ez duten estali gabeko kirol- edo jolas-instalazioak ipintzea, hala nola igerileku edo jokalekuak.

c. Beste lursailekiko bereizketetan eta espazio publikoekiko mugetan, ezarritako zehaztapenak betez betiere, partzelaitxiturak ipini ahal izango dira. Espazioak erabilera publikoaren zortasunik ez badu behintzat.

3.2.2. 2. ATALA. Erabilera arautzeko baldintzak

75. artikulua. Erabilera baimenduen araubide orokorra.

1. Bizitegi-erabilerako partzelak, batez ere, etxebizitza edo egoitza komunitario erabileretarako xedatuko dira.

2. Bizitegi-erabileretarako xedatutako eraikinetan onartzen dira (hurrengo artikuluetan ezarritako mugekin) hirugarren sektoreko erabilerak, komunitate-ekipamendukoak (hilerria izan ezik) eta 1. eta 2. kategorietako erabilera industrialak ere, Hirigintza Fitxetan zehaztutako kasuetan edo osagarri modura.

76. artikulua. Soto eta erdisotoetako lokalen erabilera-baldintzak.

1. Soto eta erdisotoetako lokalak, soil-soilik bizitegietako erabilera nagusiari eta dauden eraikuntzako sestra gaineko solairuetan garatzen diren erabilera baimenduei lotutako erabilera gehigarri eta lagungarrietara xedatuko dira; eta Hirigintza Fitxetan berariaz hala ezartzen den kasuetan, zerbitzu-azpiegituren zentro publikoak ezartzeko edo garaje erabileretarako ere bai.

2. Aipatutako erabilera lagungarrietara xedatuko diren soto eta erdisotoetako lokalek erregistro-unitate bereiztezina eratuko dute beti mendean dituzten goiko solairuetako lokalekin, eta hauek bizitegi-erabilerak ez direnean, esparru funtzional bateratua eratu beharko dute, bien artean lotura zuzena dutela; debekaturik egongo da, ordea, lotura hori eraikinak dituen komunikazio-elementu orokorren bitartez egitea. Hala ere, ibilgailuak gordetzera xedatutako lokalak aparteko erregistro-eraikin modura eratu ahal izango dira.

3. Besteak beste, honako erabilera hauetara xedatuko dira:

a) Bizitegi-erabileren erabilera lagungarriak:

Etxebizitzei edo egoitza komunitarioari atxikitako trastelekuak.

Eraikineko zerbitzu-instalazioak; hala hola, ur- edo erregai-andelak, berokuntza-galdarak eta ur beroarenak, ponpaketa-instalazioak, igogailuen makinak eta antzekoak.

b) Beheko solairuko lokalak hartzen dituzten erabileren erabilera lagungarriak: garatutako jardueran erabiltzen diren salgai-, material- edo lanabes-biltegiak.

Lokal nagusiek bakarrik erabiltzen dituzten zerbitzu-instalazioak; hala bola, gela gotortuak, berokuntza-instalazioak, bainugelak, aldagelak eta antzekoak.

c) Ibilgailu lagungarri eta osagarriak gordetzea berariaz hala ezarritakoan.

d) Energia elektrikoa eraldatzeko zentroak berariaz hala ezarritakoan.

Artículo 74. Espacios de uso privado no edificables sobre rasante.

a. No se admitirán en ellos construcción de ningún tipo. Sin embargo, el planeamiento pormenorizado podrá regular de forma expresa, la construcción de alguna edificación auxiliar independiente del edificio principal.

b. Se autoriza con carácter general la disposición de instalaciones deportivas o recreativas descubiertas y carentes de elementos de obra sobre rasante como piscinas o pistas de juego.

c. Podrán disponerse cierres de parcela, en todo caso cumpliendo las especificaciones establecidas, en las separaciones con otras fincas y en su límite con los espacios públicos. Esto siempre que el espacio no tenga una servidumbre de uso público.

3.2.2. SECCIÓN 2.ª Condiciones reguladoras de uso

Artículo 75. Régimen general de los usos autorizados.

1. Las parcelas de uso residencial se destinarán de forma predominante a los usos de vivienda o residencia comunitaria.

2. En los edificios destinados a usos residenciales, se admiten (con las limitaciones establecidas en los artículos siguientes), además, en los casos que se especifican en las Fichas Urbanísticas, u con carácter accesorio, los usos terciarios, de equipamiento comunitario (salvo cementerio) e industrial de 1.ª y 2.ª categoría.

Artículo 76. Condiciones de uso de los locales de sótano y semisótano.

1. Los locales de sótano y semisótano se destinarán exclusivamente a usos anejos y auxiliares vinculados al uso residencial predominante y de los usos autorizados que se desarrollen en las plantas sobre rasante de la edificación de la que formen parte; y, en los casos en que expresamente así se establezca en las Fichas Urbanísticas, a la implantación de centros de infraestructuras de servicios de carácter público o a usos de garaje.

2. Los locales de sótano y semisótano que se destinen a los usos auxiliares citados, constituirán en todo caso una unidad registral indivisible con los locales de las plantas superiores de los que dependen, y, en el supuesto de que éstos sean usos no residenciales, deberán configurar un ámbito funcional unitario, con comunicación directa entre ambos, prohibiéndose que ésta tenga lugar a través de los elementos generales de comunicación del edificio. Sin embargo, los locales destinados a guarda de vehículos podrán configurarse como fincas registrales independientes.

3. Entre otros se destinarán a los siguientes usos:

a) Usos auxiliares de los usos residenciales:

Trasteros anejos a las viviendas o a la residencia comunitaria.

Instalaciones de servicios del edificio, como depósitos de agua o combustible, calderas de calefacción y agua caliente, instalaciones de bombeo, maquinaria de ascensores y otros equiparables.

b) Usos auxiliares de los que ocupen los locales de planta baja: Almacenamiento de mercancías, material o enseres utilizados en la actividad desarrollada.

Instalaciones de servicios de utilización exclusiva de los locales principales, como cámaras acorazadas, instalaciones de calefacción, aseos, vestuarios y otras similares.

c) Guarda de vehículos auxiliares y complementarios cuando expresamente se establezca.

d) Centros de transformación de energía eléctrica cuando expresamente se establezca.

EK\CV GAO-I-2018-07902

4. Garaje erabilerak ezartzea espresuki baimendurik eta bete beharreko gutxieneko plaza-zuzkidura finkaturik duten bizitegi-erabilerako partzelen kasuan, eskaera hori betetzeko ezinbesteko azalera gorde ondoren gelditzen den soto edo erdisotoetako lokalen gainerako zatian bakarrik ipini ahal izango dira beste erabilera baimenduak.

5. Baimendurik dago jendaurreko salmenta edo pertsonen egonaldi etengabea izaten duten erabilerak ezartzea, kanpotik sarrera zuzena duten, lursailaren sestrapean gehienez ere 1,50 metrora kokaturik dauden eta 1,20 metroko baino garaiera handiagoko fatxada-tarteak izaten dituzten erdisotoetako zatietan, lokalaren erabilera egokiari dagozkion bizi egokitasunaren arauak bete beharrari kalterik egin gabe. Lokal horiek, ordea, Artikulu honetan ezarritako gainerako erabilera-mugei loturik gelditu dira eta horien artean aparteko erregistro-unitate modura eratzeko debekuari loturik, izatekotan ere unitate funtzionala eratu beharko baitute goiko solairuan kokaturik dauden lokalekin.

6. Soto eta erdisotoetako gainerako lokaletan espresuki debekaturik daude jendaurreko salmenta jarduerak edo pertsonen egonaldi etengabeak eragiten dituztenak.

77. artikulua. Beheko solairuko edo solairuarteko lokalen erabilera-baldintzak.

1. Beheko solairuak bizitegi-erabileretara xedatu ahal izango dira honako baldintza hauetan:

a) Eraikuntza berriak:

Area edo Sektore bakoitzaren banan-banako fitxetatik zehaztuko dira. Oro har, familia bakarreko eraikuntzetan edota eraikuntza bakartu edo atxikietan.

b) Eraikuntza finkatuak:

Ez dira onartuko, helburu horretarako onartutako Udal Ordenantzan aurreikusi diren kasu eta baldintzetan izan ezik.

78. artikulua. Goi-solairuen erabilera-baldintzak.

1. Goi-solairuak partzelari emandako etxebizitza-erabilerara xedatuko dira batik bat, bai eta erabilera horren erabilera lagungarrietara ere, zuzenean lursailaren gainean kokatu behar diren edo bizitegi-erabileretara xedatutako lokalen erabiltzaileei eragozpenak eragin diezaieketen instalazioen elementu teknikoak izan ezik.

2. Era berean, honako erabilera hauek ere baimendurik daude, hirigintza fitxetan ezar daitezkeen gaiari buruzko mugei kalterik egin gabe:

a) Hotel-erabilera:

Lehen solairuan, etxebizitzek duten sarrera berarekin.

Goi-solairu batean edo gehiagotan, etxebizitzek dutena ez, baizik aparteko sarrera duela.

b) Industria-erabilera:

1. kategoriakoa bakarrik, eraikineko edozein solairutan.

b) Merkataritza-erabilera:

Lehen solairuan, jabetzan eta funtzionalki behe-solairuko lokal bateko merkataritza erabilerari lotua eta lokal horretatik sarrera zuzena eta bakarra duela; azken lokal honek, lehen solairuko lokalak adinako azalera izan beharko du.

Onartzen da eraikin osoko erabilera modura ere, eraikineko solairu guztietan.

c) Bulego-erabilera:

Lehen solairuan etxebizitzek duten sarrera berarekin. Gainerako goi-solairuetan, «bulego profesionalak» modalitatean. Onartzen da eraikin osoko erabilera modura ere, eraikineko solairu guztietan.

4. En los casos de parcelas de uso residencial en las que se autoriza expresamente la implantación de usos de garaje y se establece una dotación de plazas mínimas a cumplimentar, sólo podrán habilitarse los demás usos autorizados, en la parte de los locales de sótano o semisótano restante, una vez reservada la superficie necesaria para satisfacer dicha exigencia.

5. Se autoriza la implantación de usos que impliquen despacho al público o estancia continuada de personas en aquellas partes de los semisótanos que tengan acceso directo desde el exterior, estén situados a menos de 1,50 m por debajo de la rasante del terreno y den frente a tramos de fachada con una altura superior a 1,20 m sin perjuicio de la obligatoriedad de cumplimiento de normas de habilitabilidad correspondientes al uso correcto del local. Dichos locales, sin embargo, quedarán sujetos al resto de las limitaciones de uso establecidas en el presente Artículo, y entre ellas a la prohibición de constituirse como unidades registrales independientes, debiendo configurar en todo caso una unidad funcional con locales situados en la planta inmediatamente superior.

6. En el resto de los locales de sótano y semisótano se prohíben expresamente las actividades de despacho al público, o que den lugar a la estancia continuada de personas.

Artículo 77. Condiciones de uso de los locales de planta baja o entreplanta.

1. Las plantas bajas podrán dedicarse a usos residenciales en las siguientes condiciones:

a) Edificaciones nuevas:

Se determinarán desde las fichas individualizadas de cada Area o Sector. Con carácter general, en las edificaciones unifamiliares, aisladas o adosadas.

b) Edificaciones consolidadas:

No se admitirán, salvo en los supuestos y condiciones previstos en la Ordenanza Municipal aprobada a tal efecto.

Artículo 78. Condiciones de uso de las plantas altas.

1. Las plantas altas se destinarán de forma prioritaria al uso de vivienda asignado a la parcela, así como a usos auxiliares de ésta, con excepción de los elementos técnicos de las instalaciones que deban situarse directamente sobre el terreno o que puedan causar molestias a los usuarios de los locales destinados a los usos residenciales.

2. Se autorizan, así mismo, sin prejuicio de las limitaciones que al respecto se establezcan en las fichas urbanísticas, los siguientes usos:

a) Uso hotelero:

En planta primera, con acceso común al de viviendas.

En una o más plantas altas, con acceso independiente del de las viviendas.

b) Uso industrial:

Exclusivamente de categoría 1.ª, en cualquiera de las plantas del edificio.

b) Uso comercial:

En planta primera, ligado en propiedad y funcionalmente con el uso comercial de un local de planta baja y con acceso directo y exclusivo desde dicho local, que deberá tener una superficie no inferior al del local de planta primera.

Se admite, así mismo, como uso de la totalidad del edificio en todas sus plantas.

c) Uso de oficinas:

En planta primera con acceso común al de las viviendas. En el resto de planta altas en su modalidad de «despachos profesionales». Se admite, así mismo, como uso de la totalidad del edificio en todas sus plantas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

d) Jolas-erabilerak:

Lehen solairuan, baina «Jolas Elkarteak» modalitatean bakarrik eta behe-solairuko lokaletik aparteko sarrera zuzena duela.

e) Osasun, laguntza, hezkuntza, kirol, administrazio eta zerbitzu publiko erabilera:

Bulego-erabileraren baldintza berberetan.

f) Kultura eta erlijio erabilera:

Jolas-erabileraren baldintza berberetan.

79. artikulua. Estalkipeko solairuen erabilera-baldintzak.

a) Batez ere instalazioetako elementu teknikoak eta eraikineko etxebizitzei atxikitako trastelekuak ezartzera xedatuko dira.

b) Era berean etxebizitza-erabilera ere baimendu ahal izango da, argiztapen, aireztapen, garaiera, etab. egokiak dituzten lokaletan, honako baldintza hauetan:

— Lehenagoko edo finkatutako bizitegi-eraikuntzak:

BS+2 adinako sekzioa edo hori baino txikiagoa duten eraikuntzetan, beheko solairuetatik aparteko etxebizitza-erabilera onartuko da, baldin eta ordenantza hauetan finkatutako bizi egokitasunari buruzko baldintzak betetzen baditu eta irisgarritasuna Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuaren, apirilaren 11koaren, arabera konpondurik badu.

Baldintza horiek bete ezean, ez da etxebizitza modura erabiltzerik izango.

— Eraikuntza berrietan:

Solairu horietako etxebizitza-erabilera araudi xehatutik ezarriko da.

80. artikulua. Atarien eta sestra gaineko eremu pribatu eraikiezinen erabilera-baldintzak.

a. Erabilera publikoaren zortasunik ez duten eremu pribatuak:

Bizitegi-erabilerako partzelei atxikitako sestra gaineko eremu eraikiezinak, oro har, atxikirik dauden eraikuntzako bizilagunentzako baratze, lorategi eta egonlekuetara xedatu ahal izango dira, bai eta oinezkoen sarrera-irteeretara ere.

Partzelari atxikitako lursailen azalerak horretarako aukera ematen duenean eta espresuki hala baimentzen denean, eremu horiek ibilgailuen sarrera-irteeretara eta lur gaineko aparkalekura –partzelak ibilgailuen sarbide zuzena baldin badu–, kirol erabilera pribatuetara eta gas likidotuen deposituak ezartzera ere xedatu ahal izango dira.

b. Erabilera publikoaren zortasuna duten eremu estali gabeak eta atariak:

Sarrera libreko egonaldi eta oinezkoen zirkulazio erabileretara xedatuko dira, murrizketa bakan batzuekin: emakida modura ezarritako tabernetako terrazak, salmentarako kioskoak eta antzekoak.

3.2.3. 3. ATALA. Lokalen bizi egokitasun baldintzak

81. artikulua. Baldintza orokorrak.

a) Honako Plan Orokor honen babespean eraikiko diren bizitegi-erabileretara xedatutako eraikinek indarrean dagoen araudi orokorrak eskatutako bizi egokitasunari buruzko baldintza nagusiak beteko dituzte.

b) Era berean, Babes Ofizialeko etxebizitza modura sailkatzen direnean, mota horretako etxeak arautzeko araudietan edo horien ordez emango direnetan agertzen diren gaiari buruzko xedapenak ere aplikatuko dira osagarri modura.

d) Usos recreativos:

En planta primera, sólo en la modalidad de «Asociaciones Recreativas» y con acceso independiente y directo desde un local de planta baja.

e) Uso sanitario y asistencial, docente, deportivo, administrativo, servicio público:

En las mismas condiciones que el uso de oficinas.

f) Uso cultural y religioso:

En las mismas condiciones que el uso recreativo.

Artículo 79. Condiciones de uso de las plantas bajocubierta.

a) Se destinarán de forma prioritaria a la implantación de los elementos técnicos de las instalaciones y de trasteros anejos a las viviendas del edificio.

b) Así mismo, se podrá autorizar el uso de vivienda en los locales que reúnan condiciones de iluminación, ventilación, altura, etc. en las siguientes condiciones:

— Edificaciones residenciales existentes o consolidadas:

En las edificaciones de sección igual o inferior a PB+2, se permitirá el uso de vivienda, de forma independiente, a las plantas inferiores, siempre que cumpla las condiciones de habitabilidad fijadas en las presentes ordenanzas y tenga resuelta la accesibilidad de acuerdo con el Decreto 68/2000 de 11 de abril del G.V.

En el caso de no cumplir estas condiciones, no podrá utilizarse como vivienda.

— En las edificaciones de nueva construcción:

Se establecerá desde la normativa pormenorizada el uso de vivienda en estas plantas.

Artículo 80. Condiciones de uso de los porches y áreas privadas no edificables sobre rasante.

a. Espacios privados no sometidos a servidumbre de uso público:

Los espacios no edificables sobre rasante adscritos a parcelas de uso residencial podrán destinarse con carácter general a huertas, jardines y áreas de estancia propias de los habitantes de la edificación a la que están adscritos, así como a accesos peatonales a la misma.

Cuando la entidad superficial de los terrenos adscritos a la parcela lo permita, y así se autorice expresamente, esos espacios podrán destinarse además, a acceso de vehículos y aparcamiento en superficie, si la parcela dispone de acceso rodado directo, a usos deportivos privados y a la implantación de depósitos de gases licuados.

b. Espacios descubiertos y porches, sometidos a servidumbre de uso público:

Se destinarán a usos de estancia y circulación peatonal de libre acceso, sin otras posibles restricciones que la implantación de terrazas de bares, quioscos de venta y otros usos similares en régimen de concesión.

3.2.3. SECCIÓN 3.ª Condiciones de habitabilidad de los locales

Artículo 81. Condiciones generales.

a) Los edificios destinados a usos residenciales que se construyan al amparo del presente Plan General cumplimentarán los requisitos generales de habitabilidad exigidos por la normativa general vigente.

b) Asimismo se aplicarán con carácter complementario las disposiciones sobre la materia contenidas en las normas reguladoras de las Viviendas de Protección Oficial o en las que se dicten en sustitución de las mismas, cuando las viviendas se tipifiquen como tales.

EK\CV GAO-I-2018-07902

c) Eraikin katalogatuak dituzten partzeletan ez dira aplikatuko partzela horietarako proposatutako lehentasunezko helburuarekin, partzelan dagoen eraikuntza tipologia zaintzearekin, kontraesanean dauden edo eraikuntza-garapena bideraezina egingo duten atal honetako zehaztapenak. Horretarako eta horri buruzko kontsulta egin ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek hartu beharreko hautazko konponbidea proposatuko dute.

82. artikulua. Etxebizitzara xedatutako lokaletan aplika daitezkeen baldintzak.

1. Programa eta etxebizitzaren neurri orokorrak:

a) Etxebizitzaren gutxieneko dimentsioa: debekatua dago, esekitokia alde batera utzita, 40 m^2(e) baino azalera erabilgarri txikiagoa duten etxebizitzak eraikitzea.

b) Gutxieneko programa: Babes Ofizialeko Etxeen gaineko zehaztapenen arabera, honako hauek izango dira gutxieneko azalera erabilgarriak etxebizitza guztietan.

— Logela bateko etxebizitzak:

Egongela – jangela – sukaldea: 18 m^2.

Egongela – jangela: 14 m^2.

Sukaldea: 5 m^2.

Egongela: 12 m^2.

Sukaldea - jangela: 7 m^2.

Logela: 10 m^2.

Bainugela – komuna: 3,5 m^2.

— 2 logeletako etxebizitzak:

Egongela – jangela – sukaldea: 20 m^2.

Egongela – jangela: 16 m^2.

Sukaldea: 6 m^2.

Egongela: 14 m^2.

Sukaldea - jangela: 8 m^2.

Logela nagusia: 10 m^2.

Banako logela: 6 m^2.

Bainugela – komuna: 3,5 m^2.

— 3 logeletako etxebizitzak:

Egongela – jangela – sukaldea: 22 m^2.

Egongela – jangela: 18 m^2.

Sukaldea: 7 m^2.

Egongela: 16 m^2.

Sukaldea - jangela: 9 m^2.

Logela nagusia: 10 m^2.

Logela bikoitza: 8 m^2.

Banako logela: 6 m^2.

Bainugela: 3,5 m^2.

Komuna: 2,5 m^2.

— 4 logeletako etxebizitzak:

Egongela – jangela – sukaldea: 24 m^2.

Egongela – jangela: 20 m^2.

Sukaldea: 8 m^2.

Egongela: 18 m^2.

Sukaldea - jangela: 10 m^2.

Logela nagusia: 10 m^2.

Logela bikoitza: 8 m^2.

Banako logela: 6 m^2.

c) No serán aplicables a las parcelas ocupadas por edificios catalogados aquellas especificaciones contenidas en la presente sección que resulten contradictorias con el objetivo prioritario propuesto para las mismas de preservación de la tipología edificatoria existente, o hagan inviable el desarrollo edificatorio. A tal efecto, y previa consulta al respecto, los Servicios Técnicos Municipales propondrán la solución alternativa a adoptar.

Artículo 82. Condiciones aplicables a los locales destinados a vivienda.

1. Programa y dimensiones generales de la vivienda:

a) Dimensión mínima de vivienda: No podrán construirse viviendas cuya superficie útil sea inferior a 40 m^2(u), excluido tendedero.

b) Programa mínimo: En todas las viviendas las superficies mínimas útiles serán las siguientes, de acuerdo con las determinaciones de las Viviendas de Protección Oficial.

— Viviendas de 1 dormitorio:

Estar - comedor - cocina: 18 m^2.

Estar - comedor: 14 m^2.

Cocina: 5 m^2.

Estar: 12 m^2.

Cocina - comedor: 7 m^2.

Dormitorio: 10 m^2.

Baño - aseo: 3,5 m^2.

— Viviendas de 2 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 20 m^2.

Estar - comedor: 16 m^2.

Cocina: 6 m^2.

Estar: 14 m^2.

Cocina - comedor: 8 m^2.

Dormitorio principal: 10 m^2.

Dormitorio individual: 6 m^2.

Baño - aseo: 3,5 m^2.

— Viviendas de 3 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 22 m^2.

Estar - comedor: 18 m^2.

Cocina: 7 m^2.

Estar: 16 m^2.

Cocina - comedor: 9 m^2.

Dormitorio principal: 10 m^2.

Dormitorio doble: 8 m^2.

Dormitorio individual: 6 m^2.

Baño: 3,5 m^2.

Aseo: 2,5 m^2.

— Viviendas de 4 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 24 m^2.

Estar - comedor: 20 m^2.

Cocina: 8 m^2.

Estar: 18 m^2.

Cocina - comedor: 10 m^2.

Dormitorio principal: 10 m^2.

Dormitorio doble: 8 m^2.

Dormitorio individual: 6 m^2.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Bainugela: 3,5 m^2.

Komuna: 2,5 m^2.

Geletako oinplano-azaleran, gutxienez honako diametro hau duen zirkulua inskribatu ahal izango da:

Egongela – sukaldea – jangela; egongela – jangela; egongela: 2,80 m.

Sukaldea: 1,60 m.

Logela nagusia: 2,50 m.

Gainerako logelak: 1,90 m.

— Gutxieneko zabalera librea:

Eraikuntza berrietan Eusko Jaurlaritzaren Irisgarritasunari buruzko 68/2000 dekretuan eskatutako zehaztapenak bete beharko dira.

— Gutxieneko garaiera librea:

Etxebizitzaren atal guztietan gutxieneko garaiera librea 2,50 metrokoa izango da, bainugela, korridore, biltegi txiki edota pertsonen egonaldi luzeetara xedatu gabeko bestelako geletan izan ezik; hauetan, gutxieneko garaiera librea 2,25 metrora murriztu ahal izango da.

Era berean, onartuko dira teilatupe erako atalak ere pertsonen egonaldietara xedatzea, ataleko garaiera azaleraren % 40an ezarritako gutxieneko garaiera adinakoa edo handiagoa bada.

Ateen gutxieneko garaiera 2,00 metrokoa izango da.

2. Oinarrizko argiztapen- eta aireztapen-baldintzak:

a) Etxebizitza guztiek eraikinaren kanpoaldeko fatxadan irekitako bi bao izango dituzte gutxienez, egongela-logela edo sukalde-gela modalitateetan egongeletara xedatuak. Kasu honetan, fatxadaren gutxieneko aurrealdea 6,00 metrokoa izango da eta aireztapen- eta argiztapen-baoak, berriz, esparruko oinplano-azaleraren % 30ekoak gutxienez.

b) Egongela, logela, sukalde eta jangela izatera xedatutako eremuek, argiztapen naturaleko baoak eta aireztapenekoak izango dituzte, zuzenean kanpora irekitakoak –edo neurri egokitakoak bestela– eta erabilgarriak, gutxienez eremuaren heren batean. Bao horien hedadura, guztira, dagokien esparruen oinplano-azaleraren % 10 izango da gutxienez, baina metro koadro bat (1 m^2) baino handiagoa edonola ere.

c) Bainugelek gutxienez 0,40 m^{2}ko aireztapen-baoak izango dituzte eta komunek (komun-ontzia eta konketa) 0,25 m^{2}koa. Bao horien ordez honako sistema hauetakoren bat ipini ahal izango da:

— Hodi bidezko aireztapena, indarrean dauden arau teknikoen arabera.

— Gutxienez 300 m^3/h emaria ateratzea bermatuko duten baliabide mekanikoen bidezko aireztapen artifiziala.

d) Sukaldeak honako aireztapen eta ke-huste elementu hauek izango ditu:

— Sukaldearen aireztapen orokorrerako hodi bat, baina kolektore orokorren konponbideak ere onartzen dira.

— Sukaldean sortutako kea eta gasak era aktibatuan husteko aparteko hodi bat. Sukalde hori gelan txertaturik dagoenean, hodi horrek 300 m^3/h ateratzea bermatuko duen haizagailu zentrifugo bat izan beharko du.

— Hustuketa zuzenean teilatura egiten duen aparteko hodi bat berogailuko edo ur bero eta berokuntza galdarako errekuntza-gasetarako, berogailu edo galdara hori sukaldean kokaturik dagoenean.

— Jaki-tokia aireztatzeko beste hodi bat ere derrigorrezkoa izango da, jaki-tokirik izanez gero.

Baño: 3,5 m^2.

Aseo: 2,5 m^2.

En la superficie en planta de las diferentes estancias se podrá inscribir un círculo con el siguiente diámetro mínimo:

Estar - cocina - comedor, estar - comedor, estar: 2,80 m.

Cocina: 1,60 m.

Dormitorio principal: 2,50 m.

Resto de dormitorios: 1,90 m.

— Anchura libre mínima:

En las nuevas edificaciones deberán cumplirse las determinaciones exigidas en el Decreto 68/2000 de Accesibilidad del G.V.

— Altura libre mínima:

La altura mínima libre en toda unidad de vivienda será de 2,50 m, salvo en los aseos, pasillos y pequeñas dependencias de almacenamiento u otras estancias no destinadas a la estancia prolongada de personas, donde se podrá reducir a 2,25 m.

Asimismo, se admitirá que las piezas abuhardilladas se dediquen a la estancia de personas si su altura libre es igual o superior a la mínima establecida en un 40 % de su superficie.

Las puertas tendrán una altura mínima de 2,00 m.

2. Condiciones básicas de iluminación y ventilación:

a) Toda vivienda tendrá al menos dos huecos con apertura sobre la fachada exterior del edificio, que tendrá el destino de sala de estar en sus modalidades de sala-dormitorio o cocina-estancia. En este caso, el frente mínimo de fachada será de 6,00 m y los huecos de ventilación e iluminación serán, al menos, del 30 % de la superficie en planta del recinto.

b) Los espacios destinados a sala o cuarto de estar, dormitorio, cocina y comedor tendrán huecos de iluminación natural y de ventilación abiertos directamente al exterior –o en su caso con dimensiones adecuadas- y practicables al menos en 1/3 de su área. La extensión total de los huecos será, como mínimo, del 10 % de la superficie en planta de los recintos correspondientes, y en cualquier caso, no inferior a 1,00 m^2.

c) Los cuartos de aseo tendrán huecos de ventilación al menos de 0,40 m^2 y los retretes (inodoro y lavabo) de 0,25 m^2. Se podrán sustituir estos huecos por alguno de los siguientes sistemas:

— Ventilación por conducto, de acuerdo a las normas técnicas vigentes.

— Ventilación forzada por medios mecánicos que garanticen un caudal mínimo de extracción de 300 m^3/h.

d) La cocina dispondrá de los siguientes elementos de ventilación y evacuación de humos:

— Un conducto destinado a la ventilación general del local para el que se admiten soluciones de colector general.

— Un conducto independiente destinado a la evacuación activada de humos y gases procedentes de la cocina. Cuando ésta este incorporada a la estancia, dicho conducto deberá contar con un ventilados centrífugo que asegure la extracción de 300 m^3/h.

— Un conducto independiente para los gases de combustión del calentador o caldera de agua caliente y calefacción, en el caso de que el mismo estuviera alojado en la cocina; con evacuación directa a la cubierta.

— Es obligatoria la existencia de otro conducto para la ventilación de la despensa, si la hubiera.

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Errekuntza-gasen aireztapena eta ke-hustea batez ere teilatura egingo dira; salbuespenezko kasuetan, ordea, fatxadara edo patioetara ere hustu ahal izango dira, bizilagunei eragozpenik sortu gabe.

3. Etxebizitzen antolaketa funtzionala:

Eremuen banaketak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Bainugelak aparteko esparruak izango dira beti.

b) Logela bat gutxienez aparteko esparrua izango da beti.

c) Logela guztiek zirkulazio eremuetatik edo aretotik izango dute sarrera, baina inoiz ez sarrera bakarra beste logela batetik.

d) Bainugela eta komunetarako sarrera zirkulazio-eremuetatik egin beharko da, bainugela bat baino gehiago egonik, horietako batek eskatutako baldintza betetzen duen kasuan izan ezik; hori horrela bada, beste bainugelak logeletan txertatu ahal izango dira, zuzeneko sarrera logelatik bertatik dutela.

e) Lau logela edo gehiago dituzten etxebizitzek bi bainugela oso izan beharko dituzte derrigorrez.

4. Etxebizitza-lokaletarako sarrera-baldintzak.

— Indarrean dagoen araudia puntu guztietan bete beharko da.

a) Atariak:

— Gutxienez 1,20 metroko zabalera dutela eta 3,00 m^2ko baino azalera handiagoarekin, atariak bat etorriko dira eskailera-kaxekin.

— Atariaren maila sarbideak duen maila berbera izango da.

— Atarira sartzeko ateak, eskailerak –edo eskailera bat baino gehiago izanez gero horien baturak– adinako zabalera edo handiagoa izango du, gutxienez 1,50 metroko zabalerarekin, eta orrietako bat finko eduki ahal izango da, burdinazko elementu mugikorrekin.

— Atarian ezin izango da aterik jarri behe-solairuko eta sotoetako lokaletara sartzeko, baldin eta lokal horiek etxebizitzekin zuzeneko loturarik ez duten erabileretara xedatzen badira edo etxebizitza-erabilera badute.

— Atarietan zentralizatuko dira eraikineko erabilera guztiei dagozkien ur, argi indar, telekomunikazio eta gas kontagailuak, bai eta gutun banaketarako postontziak ere. Kontagailuak sotoan jarri ahal izango dira, horretarako modurik izanez gero.

Lehengo eraikinetan sarrerako atearen eta igogailuetako eskailera-buruaren artean maldarik izanez gero, nahiz eta Irisgarritasun Araudiko zehaztapenak oso-osorik ez bete, arrapalak jarri ahal izango dira. Kasu berezi horietan, kasu bakoitzari dagozkion konponbiderik egokienak bilatu beharko dira.

b. Eskailerak:

— Eskailerak Irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuak xedatutakoaren arabera diseinatuko dira.

— Eskailera-eremuaren gutxieneko zabalera 2,20 metrokoa izango da paramentuen artean, eta eskailera-atalena, berriz, metro batekoa (1,00 m.), hau ere eskailera-atalak mugatzen dituzten paramentuen artean (eskailera-kaxaren horma eta baranda, karela edo igogailu-zuloaren itxiera) neurtua.

— Mailagainaren gutxieneko zabalera 0,27 metrokoa izango da hegala edo moldura kontuan hartu gabe, eta kontramailak ez du 0,185 metroko garaiera gaindituko elementu komunetan; etxe barruko eskaileretan, aldiz, gehienez ere 0,20 metrokoa izango da kontramaila, eta mailagaina 0,25 metrokoa.

— Eskailera-atal batek gehienez ere 18 maila izango ditu.

— La ventilación de los gases de combustión y evacuación de humos se realizará preferentemente a cubierta; aunque podrá evacuarse a fachada o patios en casos excepcionales, sin ocasionar molestias a los vecinos.

3. Organización funcional de las viviendas:

La compartimentación de los espacios deberá cumplir las siguientes condiciones:

a) Los aseos serán siempre recintos independientes.

b) Al menos un dormitorio será siempre recinto independiente.

c) Todo dormitorio tendrá acceso desde los espacios de circulación o desde la estancia y en ningún caso dispondrá de acceso único desde otro dormitorio.

d) El acceso a los aseos y cuartos de baño deberá efectuarse desde los espacios de circulación, salvo en el caso de que, habiendo más de un cuarto de aseo, uno de ellos cumpla la condición exigida, lo que permitirá que los demás puedan ser incorporados a dormitorios, con acceso directo desde ellos.

e) Las viviendas de cuatro dormitorios o más deberán contar obligatoriamente con dos cuartos de aseo completos.

4. Condiciones de acceso a los locales de vivienda.

— Se deberá cumplir en todos los puntos la normativa vigente.

a) Portales:

— Se corresponderán con cada caja de escalera, teniendo una anchura mínima de 1,20 m, ocupando una superficie superior a 3,00 m^2.

— El nivel del portal será el mismo de la vía de acceso.

— La puerta de acceso al portal tendrá una anchura igual o mayor que la de la escalera o suma de ellas si hubiese varias, con un mínimo de 1,50 m de luz, pudiendo una de las hojas mantenerse fija con elementos de ferretería móviles.

— En el portal no podrán abrirse puertas de acceso a los locales de planta baja y sótanos, si éstos se destinan a usos no relacionados de forma directa con la comunidad de viviendas o tienen un uso de vivienda.

— Se centralizarán en los mismos los contadores de agua, energía eléctrica, telecomunicaciones y gas correspondientes a todos los usos del edificio; así como los buzones de distribución de correspondencia. Los contadores podrán emplazarse, si fuera posible, en sótano.

En edificios existentes, cuando existan desniveles entre la puerta de acceso y el descansillo de ascensores, se permitirá la disposición de rampas aún cuando no cumplan en su integridad las determinaciones de la Norma de Accesibilidad. En estos casos particulares se deberán buscar las soluciones más adecuadas a cada caso en particular.

b. Escaleras:

— Las escaleras se diseñarán de conformidad con lo determinado por el Decreto 68/2000 de Accesibilidad.

— El ancho mínimo del espacio de escalera, entre paramentos, será de 2,20 m y el de los tramos, medido asimismo entre los paramentos que los limiten (pared de la caja de escaleras y barandado, antepecho o cierre del hueco del ascensor) será de 1,00 m.

— La anchura mínima de la huella, sin contar el vuelo o moldura, será de 0,27 m y la altura de la tabica no excederá de 0,185 m en elementos comunes, así como 0,20 m como máximo en escaleras interiores de una vivienda, con 0, 25 m de huella.

— El número máximo de peldaños en un tramo de escalera será de 18.

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Lokaletara edo etxebizitzetara sartzeko aterik ez duten tarteko eskailera-buruek, eskailera-mailaren luzera adinako sakonera izango dute gutxienez.

— Ateak dituzten eskailera-buruetako eskailera-mailen ertzetik ate horietarainoko gutxieneko tartea 0,25 metrokoa izango da.

— Eskailera-buru angeluarrak, eskailera-buru erdibituak eta eskailera konpentsatuak Eraikuntzaren Kode Teknikoan (EKT) ezarritakora egokituko dira.

— Eskaileretako eskudelen gutxieneko garaiera 0,95 metrokoa izango da, mailagainaren kanpoko ertzetik bertikalean neurtua.

— Baranda eta kareletako balaustreen arteko gehienezko tartea 0,12 metrokoa izango da, horizontalean neurtua.

— Edonola ere, eskailera-kaxa pertsona bat ohatilan eraman ahal izateko moduan prestatuko da.

— Eskailerek, etxe barrukoak izan ezik, aireztapen eta argi zuzenak jasoko dituzte fatxadatik edo patiotik, solairu edo solairuarte bakoitzean egindako 1,50 m^2tik gorako azalera duten baoetatik.

Gehienez ere lau goi-solairu dituzten eraikinetan onartzen da eskailerek aireztapen eta argiztapen zenitalak izatea argizuloen bitartez; argizulo horiek gutxienez metro koadro bateko (1,00 m^2) azalera izango dute solairu bakoitzeko, eta erdian tarte librea utziko dute, 1,10 metroko diametroa duen zirkulu bat inskribatzeko modukoa, eskaileraren garaiera osoan.

c. Igogailuak:

— Eskailerak Irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuak xedatutakoaren arabera diseinatuko dira.

— Lehengo eraikinetan igogailuak instalatu ahal izango dira eskailera-kaxetan edo patioetan, baldin eta eskailera-kaxa eta patio horien espazio libreak Ordenantza hauetan eskatutako neurri eta ezaugarriak betetzen baditu. Hor esandakoa betetzerik ez dagoenean, onartuko da eskaileraren zabalera gehienez ere 0,80 metrora murriztea, eskailera barruan gutxieneko neurriak dituen igogailua jarri ahal izateko; patioen kasuan, baldin eta patio aldera dauden etxebizitzetako aireztapen- eta argiztapen-baoak ukitzen ez badituzte (gutxienez 2,00 metroko aurrealde librea), igogailuaren ibilbidea elementu egokiekin babestuko da.

d. Estalkipeko trastelekuak:

Trasteleku gisa prestatutako estalkipeko lokalek eskailera-kaxatik bakarrik izango dute sarbidea. Lokal horiek sarrera ondoko etxe batetik dutenean, etxebizitzaren hedapen modura hartuko dira eta aprobetxamendu gisa konputagarritzat. Nolanahi ere, erregistroari dagokionean etxebizitza bati modu bereiztezinean loturik egongo dira.

e. Etxebizitzaren erabilera osagarrietako lokalak:

Soto eta erdisotoetako lokalak dira, erabilera pribatuetara xedatutakoak: hala nola, ikaste, jolas eta antzeko jardueretara; debekaturik dago bizileku gisa egokitzea.

Edo alboko etxetik, edo elementu komunetik, sarbide bakarra izango dute.

Lokal horiek aireztatzeko, obra-kaxak ipini ahal izango dira fatxadari atxikiak. Urbanizazioaren mailan berdinduko dira saretaren bitartez. Kaxa horietan egin daitezkeen baoek, sabaiko forjatuaren azpitik gehienez ere 0,90 metrora kokatutako leihobarrena izango dute.

Erregistroari dagokionean etxebizitza bati modu bereiztezinean loturik egon beharko dute.

— Las mesetas intermedias, sin puertas de acceso a locales o viviendas tendrán un fondo mínimo igual a la longitud del peldaño.

— La distancia mínima, desde la arista de los peldaños de mesetas con puertas, a éstas, será de 0,25 m.

— Las mesetas en ángulo, las mesetas partidas y las escaleras compensadas se ajustarán al Código Técnico de la Edificación (CTE).

— La altura mínima del pasamanos de escalera será de 0,95 m, medidos en la vertical de la arista exterior de la huella.

— La separación máxima entre balaustres de barandillas y antepechos, medidos horizontalmente será de 0,12 m.

— La configuración de la caja de escaleras permitirá, en cualquier caso, la evacuación de una persona en camilla.

— Las escaleras recibirán ventilación y luz directa desde alguna fachada o desde un patio con huecos practicados en cada planta o entreplanta, cuya superficie no será inferior a 1,50 m^2, exceptuando las interiores de la vivienda.

En edificios de hasta cuatro plantas altas, se permiten escaleras con ventilación e iluminación cenital por medio de lucernarios cuya superficie sea, al menos, de 1,00 m^2 por planta y dejando un hueco central, libre en toda la altura de la escalera, en el que sea inscribible un círculo de 1,10 m de diámetro.

c. Ascensores:

— Las escaleras se diseñarán de conformidad con lo determinado por el Decreto 68/2000 de Accesibilidad.

— En los edificios existentes se podrán instalar ascensores en las cajas de escaleras o en los patios, siempre que el espacio libre en aquella y éstos cumpla las dimensiones y reúna las características exigidas por las presentes Ordenanzas. Cuando no pueda cumplirse lo antedicho, se admitirá que se reduzca la anchura de escalera hasta un mínimo de 0,80 m para poder integrar en su interior un ascensor de mínimas dimensiones; en el caso de patios, siempre que los huecos de ventilación e iluminación de los locales vívideros que viertan al él no se vean afectados (frente libre en un mínimo de 2,00 m), el recorrido del ascensor se protegerá con elementos adecuados.

d. Trasteros bajo cubierta:

Los locales bajo cubierta que se habiliten como trasteros tendrán acceso exclusivo desde la caja de escalera. Cuando estos locales tengan acceso desde una vivienda contigua se considerarán ampliación de la vivienda y computables como aprovechamiento. En cualquier caso, se vincularán registralmente de manera indisoluble a alguna vivienda.

e. Locales de uso complementario de vivienda:

Son los locales de sótano y semisótano que se destinan a usos privados tales como actividades de estudio, juego, etc; estando prohibido habilitarlos como habitación.

Tendrán un acceso único, bien desde la vivienda colindante, bien desde el elemento común.

Para su ventilación podrán habilitarse cajones de obra adosados a la fachada. Se enrasarán al nivel de la urbanización mediante rejilla. Los huecos que puedan abrirse a estos cajones tendrán un alféizar situado a una altura no más debajo de 0,90 m bajo el forjado de techo.

Deberán vincularse registralmente de manera indisoluble a alguna vivienda.

EK\CV GAO-I-2018-07902

83. artikulua. Bestelako erabilera baimenduetara xedatutako lokaletan aplika daitezkeen baldintzak.

a. Sarbide-baldintzak:

— Lehen sotoan, erdisotoan, beheko solairuan, behegainean edo lehen solairuan kokaturik dauden eta batez ere bizitegi-erabileraz kanpoko erabileretara xedatzen diren lokal guztiek sarbide zuzena izango dute eraikuntzaren kanpoaldetik, eraikuntzako etxebizitzetara sartzeko eremu eta elementuetatik aparte.

— Gutxieneko garaiera librea –ateak eta gune kritikoak sarrera- eta ebakuazio-ibilbideetan–: 2,10 m.

— Gutxieneko zabalera librea –jendea erraz sartzeko moduko korridoreak–: 1,20 m.

— Lokalaren maila eta kanpotik barrurako sarrerarena desberdinak diren kasuetan eta sestren arteko alde hori eskailera bitartez konpontzen denean, eskailera horiek lokalaren barrualdean kokatu beharko dira eta gutxienez 1,20 metroko sakonera duen eskailera-burua izan beharko dute, sarrerako atetik eskaileren hasiera arte.

b. Eremuen gutxieneko garaiera librea:

Mota honetako lokalen gutxieneko garaiera librea 2,60 metrokoa izango da 40 m^2 baino azalera txikiagoa duten espazioetan, 2,80 metrokoa 80 m^2 baino azalera txikiagoa dutenetan eta 3,00 metrokoa 80 m^2 baino gehiago dituztenetan. Baimendurik dago, era berean, bainugela edo biltegi izatera xedatutako gela lagungarrietan, bestelako erabileretara ezin xeda daitezkeenetan, garaiera librea 2,20 metrora murriztea, eta 2,40 metro, berriz, «d» puntuan adierazitako baldintzak betetzen dituzten behe-solairuarteetan; edonola ere, debekaturik egongo da ezaugarri horiek dituzten lokalak pertsonen egonaldi luzeetarako erabiltzea. Jolas- edo ostalaritza-erabileretara xedatutako lokaletan: 3,00 m.

c. Gutxieneko azalera:

Lokal hauen gutxieneko azalera erabilgarria 20 m^2koa izango da. Era berean, lokal bakoitzean jendeari saltzeko xedatutako eremua ere 15 m^2tik gorakoa izango da.

d. Solairuartea:

— Soil-soilik behe-solairuko lokalaren atal osagarri diren solairuarteak baimendu dira; ez dute aparteko irteerarik izango eraikineko edo beste finka bateko elementu komun batera, eta, nahitaez, erregistro-unitatea eratu beharko dute aipatutako lokalarekin.

— Solairu horiek 4,80 metrotik gorako garaiera librea duten lokaletan bakarrik eraiki ahal izango dira. Gutxieneko garaiera librea 2,20 metrokoa izango da behe-solairuan eta 2,20 metrokoa solairuartean.

— Azalera beheko solairuak duenaren % 40 izango da gehienaz ere eta lokalak duen sakoneraren heren batean gutxienez fatxada-lerrotik atzeraturik egongo da; fatxada-lerrotik 3,00 metrora gutxienez.

e. Bainugela-zuzkidura:

— Ostalaritza- edo jolas-erabileretara xedatutako lokalek jendearen zerbitzurako bainugelak izango dituzte beti, Ordenantza hauen 70. artikuluan ezarritako neurrien eta zerbitzuzuzkiduraren arabera.

— Bainugelak lehen sotoko edo erdisotoko lokaletan kokatu ahal izango dira, eta derrigorrez bainugela-aurreko bat izan beharko dute bainugeletara handik sartzeko; bainugela-aurreko horretan konketak bakarrik ipini ahal izango dira.

— Bainugeletara ez da zuzenean sartzerik izango, ez jakiak prestatu, erabili edo gordetzen diren lekuetatik –sukaldeak, jangelak edo bestelakoak–, ez eta jendearentzat xedatutako lokaletatik ere.

Artículo 83. Condiciones aplicables a los locales destinados a otros usos autorizados.

a. Condiciones de acceso:

— Todos los locales situados en el sótano primero, semisótano, planta baja, entresuelo o planta primera, destinados de forma predominante a usos no residenciales, tendrán acceso directo desde el exterior del edificio, independiente de los espacios y elementos de acceso a las viviendas del mismo.

— Altura libre mínima –puertas y puntos críticos en recorridos de acceso y evacuación–: 2,10 m.

— Anchura libre mínima –pasillos accesibles al público–: 1,20 m.

— En los casos en los que el nivel del local sea diferente del nivel del acceso desde el exterior, y dicha diferencia de rasantes se resuelva por medio de escaleras, éstas deberán situarse en el interior del local, y se deberá disponer una meseta de 1,20 m de fondo mínimo desde la puerta de acceso hasta el comienzo de las mismas.

b. Altura libre mínima de los espacios:

La altura libre mínima en este tipo de locales será de 2,60 m en los espacios de superficie inferior a 40 m^2; 2,80 m en los de superficie inferior a 80 m^2 y 3,00 m en los que superen los 80 m^2. Asimismo, se autorizará que en las dependencias auxiliares destinadas a aseos o almacén, no susceptibles de otro uso, la altura libre se reduzca a 2,20 m y bajo altillos que cumplan las condiciones señaladas en el punto «d», 2,40 m, si bien, los locales que presenten esas características no podrán destinarse a la estancia prolongada de personas. En los locales destinados a usos recreativos u hosteleros: 3,00 m.

c. Superficie mínima:

La superficie mínima útil de estos locales no será inferior a 20 m^2. Así mismo, la zona destinada a venta al público en cada local no será inferior a los 15 m^2.

d. Altillo:

— Sólo se autorizan aquellos que formen parte integrante del local de planta baja, sin salida independiente a un elemento común del edificio o a otra finca, debiendo constituir necesariamente con dicho local una unidad registral.

— Únicamente podrán construirse estos pisos en locales cuya altura libre no sea menor de 4,80 m. La altura libre mínima será de 2,20 m en la planta baja y de 2,20 m en el altillo.

— La superficie no podrá ser superior al 40 % de la superficie de la planta baja y estará retirada al menos 1/3 del fondo del local desde la línea de fachada, con un mínimo de 3,00 m desde la línea de fachada.

e. Dotación de aseos:

— Los locales destinados a usos de hostelería o recreativos, dispondrán en todo caso de cuartos de aseo para el servicio al público de acuerdo al dimensionamiento y dotación de servicios que se establecen en el artículo 70 de las presentes Ordenanzas.

— Los cuartos de aseo podrán situarse en locales de primer sótano o semisótano y tendrán obligatoriamente un anteaseo a través del cual se accederá a ellos, en el que se permitirá exclusivamente la disposición de lavabos.

— El acceso no se podrá realizar de forma directa desde los lugares donde se elaboren, manipulen o almacenen alimentos –cocinas, comedores u otros–, ni desde los locales destinados al público.

EK\CV GAO-I-2018-07902

f. Argiztapena eta aireztapena:

Pertsonen egonaldi luzeetara xedatutako artikulu honetako lokalen atalak, argiztapen eta aireztapen naturalak izango ditu, argiztapen eta aireztapen artifizialen laguntzarekin behar izanez gero, airea gutxienez lau bolumen orduko berritzea bermatzeko moduan. Azken horietarako, instalazioaren proiektu zehatz bat aurkeztea eskatuko da, gaian aditua den profesional batek bermatua, eta Udalaren onespena izan beharko du.

Aireztapen naturalak bao irekigarriak izan beharko ditu gutxienez azalera osoaren heren batean; baoak jarri zaizkion lokalaren atalak duen edukieraren hamarren bat gutxienez.

Horrelako premiak gertatuko balira ere, oin berriko eraikinek hodiak izan beharko dituzte, etxebizitzetakoez aparte, behe solairuan edo solairuartean bizitegi-erabileraz kanpoko erabileretara xedatutako lokalen aireztapenerako, gutxienez 200 cm^2 dituztenak lokalak dituen 200 m^2 edo zatiki bakoitzeko.

Sukaldea, frijigailua, erretegia, plantxa, labea edo antzeko beste instalazioren bat duten ostalaritza- edo jolas-jardueren kasuetan, gutxienez 200 cm^2ko sekzioa izango duen kea eta gasa husteko aparteko hodi bat ipini beharko da, teilatu-hegaletik gora 2,00 metroraino helduko dena; hodi horrek eraikinaren barrualdetik igaro beharko du, berariaz debekaturik baitago fatxadan instalatzea.

Soil-soilik trasteleku eta biltegi izatera xedatutako lokalek eta gelek besterik gabe argiztapen eta aireztapen artifizialak bakarrik eduki ahal izango dituzte.

84. artikulua. Garajeetara xedatutako lokalei buruzko baldintzak.

Artikulu honetan bildutako arauak derrigor bete beharko dira lehendik dauden eraikinetan, berariaz justifikatzen ez bada behintzat horiek betetzea ezinezkoa dela.

a. Oro har, garaje-erabilera sestrapeko solairuetan ezarriko da.

b. Ez da onartzen sestra gainean banako garaje berriak ezartzea, familia bakarreko etxebizitzetan izan ezik. Mota horretako eraikinetan, partzela finkatuetan, garaje izatera xedatutako eraikuntza lagungarriak ezartzeko baimena emango da, gehienez ere 20 m^2ko azalerarekin, dagozkion azterketa eta proiektua egin ondoren.

c. Behe-solairuko garajeak bost plazako edukiera edo hori baino handiagoa dutenean bakarrik egin ahal izango dira, eta bide publikotik sarbide bakarra dutenean.

d. Oin berriko etxebizitza-eraikinek ibilgailuentzako garajeak izango dituzte, partzelaren ezaugarriak direla-eta garajeak egitea desegokia dela justifikatzen ez bada behintzat.

e. Etxebizitza bakoitzeko 1,5 garaje-plaza eta merkataritza-etxabearen 100 m^2 bakoitzeko plaza bat (1) ipiniko dira gutxienez. Gutxieneko kopuru horiek zehaztu egin beharko dira jarduketa egin beharreko eremuen arabera, eremu horrek aparkalekuak jartzeko duen ahalmenera edo urritasunera egokituz, eta lurpean gehiegi ez sakontzea aholkatuz gero hondeaketak egiteko arazoak ere kontuan hartuz.

f. Udalak garajeak instalatzeko baimena ukatu ahal izango du, duten zirkulazioagatik, espazio publikoak 4 metrotik gorako luzeran hartu behar izateagatik edo beste hirigintza-arrazoi bereziren batengatik, garajeetarako sarrera bide desegokietatik egiten den kasuan. Hori dela-eta, sarrerak ingurunearen funtzionaltasun publikoaren ikuspegitik egokienak diren lekuetan ipiniko dira beti.

g. Hona hemen garaje erabilerara xedatutako lokaletan aplika daitezkeen funtzionaltasun-baldintzak:

f. Iluminación y ventilación:

La parte de los locales comprendidos en el presente artículo destinada a la estancia prolongada de personas, tendrá iluminación y ventilación natural ayudada por la artificial, si fuese necesario, de tal forma que se asegure una renovación del aire mínima de cuatro volúmenes por hora. Para esta última se exigirá la presentación de un proyecto detallado de la instalación, avalado por un facultativo competente en la materia, que deberá ser aprobado por el Ayuntamiento.

La ventilación natural deberá disponer de huecos practicables al menos en una tercera parte de superficie total, no inferior a 1/10 de la cabida de la parte del local par cuyo servicio se establezcan.

En previsión de este tipo de necesidades, los edificios de nueva planta deberán disponer conducciones para ventilación de los locales destinados a usos no residenciales en planta baja o entreplanta, independiente de las de viviendas, con unas dimensiones mínimas de 200 cm^2, por cada 200 m^2 de locales o fracción.

En los casos de actividades de hostelería o recreativas que incorporen cocina, freidora, asador, plancha, horno u otra instalación similar se dispondrá obligatoriamente un conducto independiente de evacuación de humos y gases de sección mínima 200 cm^2 hasta 2,00 m por encima del alero, el cual deberá discurrir por el interior del edificio prohibiéndose expresamente su instalación en fachada.

Los locales y dependencias dedicados exclusivamente a trasteros y almacenes podrán tener sólo iluminación y ventilación artificiales.

Artículo 84. Condiciones de los locales destinados a garajes.

Las normas contenidas en el presente Artículo serán de obligado cumplimiento en los edificios existentes, salvo justificación expresa de imposibilidad de cumplimiento.

a. Con carácter general, se implantará el uso de garaje en las plantas bajo rasante.

b. No se permite la nueva implantación de garajes individuales sobre la rasante, con la excepción de su disposición en viviendas unifamiliares. En éste tipo de edificación, en parcelas consolidadas, previo estudio y proyecto correspondiente, se autorizará la implantación de edificaciones auxiliares con destino a garaje con una superficie máxima de 20 m^2.

c. La ejecución de garajes en planta baja sólo podrá efectuarse cuando éstos dispongan de una capacidad para cinco o más plazas y cuenten con un acceso único desde la vía pública.

d. Los edificios de vivienda de nueva planta dispondrán de garajes para vehículos, salvo que se justifique que no sea procedente su ejecución por las características de la parcela.

e. Se dispondrá de al menos 1,5 plazas de garaje por vivienda y 1 plaza por cada 100 m^2 de bajo comercial. Estos mínimos deberán matizarse en función de las zonas en las que se enclave la actuación, proporcionándola con la capacidad de acogida del entorno o del déficit del mismo, así como problemas de realización de excavación que desaconsejen una profundización excesiva del subsuelo.

f. El Ayuntamiento podrá denegar el permiso de instalación de garajes en el caso de que se acceda a los mismos a través de vías que, por su nivel de circulación, por la necesidad de invasión de espacios públicos en una longitud superior a los 4 m, o por otras razones urbanísticas singulares, resulten inapropiadas para ello. Al efecto, se dispondrá siempre de los accesos en aquellos lugares que resulten más adecuados desde el punto de vista de la funcionalidad pública del entorno.

g. Las condiciones de funcionalidad aplicables a los locales destinados al uso de garaje son:

EK\CV GAO-I-2018-07902

Gutxieneko azalera eta neurriak:

— Garajeen gutxieneko azalera erabilgarria 20m2koa izango da ibilgailu bakoitzeko, errodadura-azalera barne.

— Garaje-plazen gutxieneko neurriak:

Plaza irekiak: 4,50 x 2,20 m.

Plaza itxiak: 4,50 x 2,40 m.

Elbarrientzat gordetako plazak: 5,00 x 3,60 m.

Gutxieneko garaiera librea: 2,20 metrokoa lokal guztian.

Sarrerak:

— Garaje-sarrerek gutxienez 3,00 metroko zabalera izan beharko dute 30 plaza arteko garajeetan eta 5,00 metrokoa gainerakoetan. Azken hori bikoiztu egin ahal izango da, gutxienez 3,00 metroko zabalera duten bi sarrera bereizi eginez.

— Garajeetako arrapalek gehienez ere % 18ko malda izango dute zuzen guneetan, eta % 14koa bihurguneetan.

— Garaje guztiek arauzko sarrerak adinako zabalera edo handiagoa duen 5,00 metroko ordeka izango dute arrapalaren hasieran, erabilera publikoaren azalera kontuan hartu gabe; gehienez ere % 4ko maldarekin konponduko dira.

— Ordeka eremu horretako zorutik sabairainoko garaiera librea gutxienez 2,40 metrokoa izango da estalia badago, eta habepeko lekurik baxuenak 2,20 metrokoak.

— Garajea eraikineko igogailuarekin edo eskailerarekin loturik egon daiteke eta, horrelakoetan, isolamendu-atondo bat eduki beharko du tartean, EKT kodea betetzen duten itxiera automatikoko ateekin, familia bakarreko etxeetako garajeetan izan ezik. Lokalak 30 ibilgailu baino gehiago hartzen baditu, gutxienez metro bateko (1,00 m) zabalerako aparteko sarbidea izango du oinezkoentzat.

— 30 plaza arteko garajeetan jasogailu edo karga-igogailu bat jarri ahal izango da sarrerako arrapalaren ordez, baina kasu horretan irteera-tranpala bat izan beharko da, arrapala dagoenean eskatutako ezaugarri bertsukoa.

— Ilaran dauden aparkalekuetarako errodadura-korridoreak 3,00 metrokoak izango dira; bateriako aparkamenduetan, berriz, 4,50 metrokoak.

— Sarrera- eta irteera-arrapalak eta zirkulazio-kaleak hainbat eraikinetako garajeen zerbitzura erabiltzen direnean, horien funtzionaltasuna bermatuko duten elkarrekiko zortasunak eratzea eskatu ahal izango da, eta Udalak zortasun horien araubidea onartu ondoren, Jabetza Erregistroan erregistratu beharko dira.

— Aireztapena:

Garaje-erabileretara xedatutako lokaletan, aireztapen naturala edo artifiziala lurrin- eta gas-metaketa galarazteko adinako hedaduraz diseinatu beharko da. Soil-soilik garajeen aireztapenerako aurreikusitako patio edo tximinien bitartez aireztatuko dira, eta patio edo tximini horietan garajeetako baoak bakarrik egongo dira. Tximiniek metro bat (1,00 m) izango dute estalkitik gora.

Aireztapena, gutxienez, honako sistema hauen bitartez egingo da: 20 plaza baino gutxiagoko garajeek 30 x 30 sekzioko aireztapen-hodi bat izan beharko dute estalkiraino, edo gutxienez 0,30 m^2ko azalera duen leiho bat plaza bakoitzeko; 20tik 30 plaza arteko lokalek, 40 x 40 sekzioko hodi bat edo lehengo neurritako leihoak; eta 30 plazatik gora dituztenek, 40 x 40 sekzioko bi hodi, garajeko bi muturretan; hala badagokio, aireztapenari buruzko azterketa berezi bat ere behar izango da, gutxienez orduko 8 aireberritze lortzeko.

Garajea familia bakarreko etxeetan: garaje atxikietan, honako baldintza hauek onartzen dira:

Superficie y dimensiones mínimas:

— La superficie mínima útil de los garajes será de 20 m^2 por vehículo, incluida la superficie de rodadura.

— Dimensiones mínimas de las plazas:

Plazas abiertas: 4,50 x 2,20 m.

Plazas cerradas: 4,50 x 2,40 m.

Plazas reservadas a minusválidos: 5,00 x 3,60 m.

Altura libre mínima: La altura libre mínima será de 2,20 m en el conjunto del local.

Accesos:

— Los garajes deberán tener un acceso con una anchura mínima de 3,00 m para garajes de hasta 30 plazas y de 5,00 m para el resto de garajes. Este último podrá desdoblarse en dos accesos independientes de 3,00 m de anchura mínima.

— Las rampas de garaje tendrán una pendiente máxima, en tramos rectos del 18 %; y en los tramos curvos del 14 %.

— Todos los garajes dispondrán de una meseta con una anchura igual o superior a la del acceso reglamentario, antes de comenzar la rampa, de 5,00 m, sin incluir en esta superficie la de uso público; se resolverán con una pendiente máxima del 4 %.

— La altura libre suelo-techo en esta zona de meseta en el caso de estar cubierta, será como mínimo de 2,40 m y los puntos más bajos en el umbral bajo viga de 2,20 m.

— El garaje podrá estar comunicado con el ascensor o escalera del inmueble, en cuyo caso deberá disponer de un vestíbulo de aislamiento intermedio, con puertas que cumplan el CTE, de cierre automático excepto cuando se trata de garajes de viviendas unifamiliares. Si el local alberga a más de 30 vehículos, dispondrá de acceso independiente para peatones de un ancho mínimo de 1,00 m.

— En los garajes de hasta 30 plazas, podrá sustituirse la rampa de acceso por un elevador o montacargas, debiendo disponerse en tal caso una meseta de salida de características similares a las exigidas cuando se dispone de rampa.

— Los pasillos de rodadura de acceso a las plazas de aparcamiento en hilera serán de 3,00 m; en caso de aparcamiento en batería serán de 4,50 m.

— En el caso de que las rampas de acceso y salida y las calles de circulación presten servicio a garajes de diferentes edificios, será exigible la constitución de servidumbres recíprocas que garanticen su funcionalidad y que, previa la aprobación de su régimen por el Ayuntamiento, habrán de inscribirse en el Registro de la Propiedad.

— Ventilación:

En los locales destinados a usos de garaje, la ventilación natural o forzada estará proyectada con suficiente amplitud para impedir la acumulación de vapores y gases. Se hará por medio de patios o chimeneas previstos para su ventilación exclusiva, y a esos patios o chimeneas no abrirán más huecos que los del garaje. Las chimeneas sobrepasarán 1,00 m la altura de la cubierta.

La ventilación se realizará como mínimo mediante los sistemas siguientes: Los garajes de menos de 20 plazas, requerirán un tubo de ventilación de 30 x 30 de sección hasta la cubierta o una ventana de superficie mínima 0,30 m^2 por plaza; los locales de 20 a 30 plazas, tubo de 40 x 40 o ventana de las dimensiones anteriores; y los de más de 30 plazas, dos tubos de 40 x 40 colocados en los extremos opuestos del garaje, requiriéndose en su caso un estudio especial de ventilación para que se consiga un mínimo de 8 renovaciones de aire por hora.

Garaje en viviendas unifamiliares: Se admiten las siguientes condiciones de los garajes anexos:

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Aparkalekuen gutxieneko neurriak: zabalera 2,55 m eta luzera 4,80 m.

— Sarrerako bidearen eta –egonez gero– arrapalaren gutxieneko zabalera: 2,70 m.

— Arrapalako ordoki edo tranpalak: 2,70 m x 3,50 m gutxienez.

— Onartzen da aireztapena naturala, garajea kanpoaldearekin zuzenean loturik egotearen ondorio denean.

— Sarera lotutako isurbide edo putzu iragazlea izan beharko du.

3.2.4. 4. ATALA. Eraikuntza kalitateari eta instalazioen funtzionaltasunari buruzko baldintzak

85. artikulua. Baldintza orokorrak.

1. Honako Plan Orokor honen babespean eraikiko diren bizitegi-erabileretara xedatutako eraikinek indarrean dagoen araudi orokorrak eskatutako eraikuntza-kalitateari eta instalazioen funtzionaltasunari buruzko baldintzak beteko dituzte.

2. Horretarako, araudi horrek eskatzen dituen gutxieneko zenbait baldintza bete beharko dituzte: egitura-egonkortasuna; segurtasuna istripu eta ezbeharren aurrean; irazgaiztasuna euriaren eta hezetasunaren aurrean; egokitzapen termikoa eta akustikoa; lokalen aireztapena; ke- eta gas-husteak; eta zerbitzu-zuzkidura ur, saneamendu, elektrizitate, telekomunikazio eta gas horniduren sareetan.

3. Era berean, Babes Ofizialeko etxebizitza modura sailkatutakoetan, mota horretako etxeak arautzeko araudietan edo horien ordez emango direnetan agertzen diren gaiari buruzko xedapenak ere aplikatuko dira osagarri modura.

86. artikulua. Lokalen akabera eta gutxieneko instalazioak.

1. Etxebizitzak.

— Etxebizitzetako zoru, sabai eta hormek estaldura bukatua izango dute beti.

— Sukalde eta bainugeletan, estaldura hori irazgaitza eta –maiz eta sakon– garbi daitekeena izango da zoru eta hormetan.

— Etxebizitzek honako instalazio hauek izango dituzte gutxienez:

— Ur hotzaren hornidura eta ur bero sanitarioaren instalazioa.

— Euri-uren eta ur beltzen saneamendua.

— Elektrizitate-hornidura etxeko argi eta erabileretarako.

— Berokuntza-instalazioa, elementu bero-emaileak barne. Onartuko da elektrizitatean oinarritutako berokuntza sistema jasan ahal izango duen instalazio elektrikoa jartzea.

— Telekomunikazio-instalazioak: telefonia eta irrati-telebisten antena kolektiboen kanalizazioak.

— Berariaz debekaturik dago galdarak edo antzekoak, eta, oro har, edozein motatako etxetresna elektrikoak –garbigailuak, etab.– etxebizitzen kanpoaldean –balkoietan– jartzea; esekitokietara xedatutako espazio erdi itxietan edota saretak edo antzekoak dituztenetan bakarrik onartu ahal izango dira.

2. Bizitegi-erabileraz kanpoko erabileretara xedatutako lokalak:

— Lokalek hartuneak izango dituzte gutxienez honako zerbitzu eta instalazio hauetarako:

— Ur-hornidura.

— Euri-uren eta ur beltzen saneamendua.

— Las dimensiones mínimas de las plazas serán de 2,55 m de anchura y 4,80 m de longitud.

— El ancho mínimo del camino de acceso y de la rampa, si la hubiese, será de 2,70 m.

— La espera o meseta de rampa será, como mínimo de 2,70 m por 3,50 m.

— Se admite la ventilación natural por comunicación directa del garaje con el exterior.

— Deberá disponer de desagüe o pozo filtrante a la red.

3.2.4. SECCIÓN 4.ª Condiciones de calidad constructiva y funcionalidad de las instalaciones

Artículo 85. Condiciones generales.

1. Los edificios destinados a usos residenciales que se construyan al amparo del presente Plan General cumplimentarán los requisitos de calidad constructiva y funcionalidad de las instalaciones exigidos por la normativa general vigente.

2. A tal efecto, deberán reunir las condiciones mínimas exigidas por dicha normativa referentes a estabilidad estructural; seguridad frente a accidentes y siniestros; estanqueidad frente a la lluvia y la humedad; acondicionamiento térmico y acústico; ventilación de los locales y evacuación de humos y gases y dotación de servicios como redes de suministro de agua, saneamiento, electricidad, telecomunicaciones y gas.

3. Asimismo se aplicarán con carácter complementario las disposiciones sobre la materia contenidas en las normas reguladoras de las Viviendas de Protección Oficial o en las que se dicten en sustitución de las mismas, en las viviendas que se tipifiquen como tales.

Artículo 86. Acabado e instalaciones mínimas de los locales.

1. Locales de vivienda.

— Los suelos, techos y paredes de las viviendas contarán en todo caso con un revestimiento acabado.

— En las cocinas y cuartos de aseo dicho revestimiento será impermeable y lavable –de forma intensa y habitual- en suelos y paredes.

— Las viviendas estarán dotadas de las siguientes instalaciones mínimas:

— Suministro de agua fría e instalación de agua caliente sanitaria.

— Saneamiento de aguas pluviales y fecales.

— Suministro de electricidad para alumbrado y usos domésticos.

— Calefacción, incluidos los elementos calefactores. Se admitirá la disposición de una instalación eléctrica dimensionada para soportar un sistema de calefacción basado en esta fuente de energía.

— Instalaciones de telecomunicación –telefonía y canalizaciones de antena colectiva de radio y televisión–.

— Se prohíbe expresamente la instalación de calderas o similares, y en general cualquier tipo de electrodoméstico –lavadoras, etc– en el exterior de las viviendas –balcones–; únicamente se podrán admitir en espacios destinados a tendederos semicerrados o que cuenten con celosías o similares.

2. Locales destinados a usos no residenciales:

— Los locales estarán dotados de acometidas para los siguientes servicios e instalaciones mínimas:

— Suministro de agua.

— Saneamiento de aguas pluviales y fecales.

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Elektrizitate-hornidura.

— Telekomunikazio-instalazioak: telefonia eta irrati-telebisten antena kolektiboen kanalizazioak.

— Jendearentzat prestatutako edo pertsonen egonaldi luzeetara xedatutako espazioetan, zoru, sabai eta hormek estaldura bukatua izango dute beti.

— Sukalde eta bainugeletan, estaldura hori irazgaitza eta –maiz eta sakon– garbi daitekeena izango da zoru eta hormetan.

e. Erabilera publikoko zortasuna duten eremuetan, Udalari dagozkio zerbitzu-kostuak eta argiteria publikoa mantentzea –kanpoan utziko dira partzelaren jabeek ipinitako argi gehigarriak edo beharrik izan gabe ipinitakoak–; asfaltozko geruzetarainoko azaleko amaierak –asfaltozko geruzak sartu gabe– mantentzea; eta estaldurak –lokaletako fatxadena eta sabaietakoa izan ezik–.

Era berean, Udalaren edo dagokien konpainien zeregina izango da partzelan eragina duten azpiegitura-sare orokorretako elementuak mantentzea.

Podrán asimismo realizarse con elementos de vegetación continuos –boj, etc–, manteniéndose las mismas limitaciones de altura. Podrá incorporarse al cierre arbolado de mayor porte, siempre que la distancia entre cada unidad sea mayor de 5,00 m, y en cualquier caso no dé lugar a un cierre impermeable a la visión por encima de las alturas previstas.

Artículo 100. Conservación y ornato de los espacios de uso privado no edificados sobre rasante.

a. Los jardines, patios o espacios libres de propiedad particular se mantendrán obligatoriamente en adecuadas condiciones de ornato y decoro, dotándose de las condiciones de urbanización necesarias –recogida de aguas pluviales, alumbrado, etc.–.

b. Sólo se admitirán construcciones ornamentales no cerradas y construcciones destinadas a usos auxiliares del uso predominante en los casos y condiciones que expresamente se señales en las Normas Particulares; y respecto de las cuales el Ayuntamiento podrá exigir la adopción de determinados materiales de cerramiento, colores y formas que se adapten mejor al entorno.

3.2.7. SECCIÓN 7.ª Condiciones generales de dominio

Artículo 101. Régimen general de dominio.

a. Las parcelas de uso residencial serán objeto de dominio privado en las condiciones y con las limitaciones que se establecen en los siguientes artículos.

b. Dentro de las referidas parcelas, podrán existir bienes de dominio público o de carácter patrimonial de la Administración.

Artículo 102. Condiciones relativas a las servidumbres de uso publico.

a. En cada caso, se cederán al Ayuntamiento los derechos reales de servidumbre de uso público y paso de conducciones de infraestructuras de servicios establecidos por el planeamiento.

b. Las servidumbres de uso público de circulación peatonal y estancia establecidas por el planeamiento sobre las parcelas de uso residencial, se ejercerán sin ninguna restricción y, en los ámbitos afectados, no se permitirá la construcción o colocación de elementos que den lugar a las citadas restricciones, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente previa concesión administrativa.

c. En los supuestos en que el presente Plan General destine superficies superpuestas, en la rasante y el subsuelo o el vuelo, a la edificación o uso privado y al dominio público, podrá constituirse complejo inmobiliario en el que aquéllas y ésta tengan el carácter de fincas especiales de atribución privativa, previa la desafectación y con las limitaciones y servidumbres que procedan para la protección del dominio público.

d. Estas disposiciones serán asimismo aplicables a las parcelas de uso residencial ya desarrolladas, en las que se consolidan las servidumbres de uso público, aún cuando las mismas no se señalen de forma expresa en el planeamiento urbanístico correspondiente.

e. En las áreas sometidas a servidumbre de uso público, corresponderán al Ayuntamiento los costes de servicio y el mantenimiento del alumbrado público –se excluirán los puntos de luz adicionales o innecesarios instalados por los propietarios de la parcela–; y del mantenimiento de los acabados superficiales hasta las telas asfálticas sin incluir éstas; y revestimientos,con excepción de los de las fachadas de locales y techos–.

Asimismo corresponderá al Ayuntamiento o a las compañías correspondientes, el mantenimiento de los elementos de las redes de infraestructuras generales que afecten a la parcela.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Aitzitik, eremu hauetan jabeen kontura izango dira ataripeetako barne-fatxadak, egitura-elementuak, isolamenduak eta irazgaizteak zaintzea, bai eta hala egokituz gero, partzelako hartuneak, hiri-zerbitzuen sareetakoak, zaintzea ere.

103. artikulua. Zerbitzu-elementuen eta seinaleen kokapena fatxadetan.

a. Udalak euskarriak, seinaleak edo interes orokorreko beste edozein zerbitzu-elementu ipini, kendu edo aldatu ahal izango ditu bere kontura –eta jabeek ezinbestean onartu egin beharko dute–, ezarpen hori beharrezkoa edo egokia denean eta espazio publikoetan jartzeko aukera egokirik ez dagoenean.

b. Baldin eta finketan edo eraikinetan obrak edo eraispenak egiteagatik zortasun publikoko elementu horiek ukiturik gertatzen badira, finkaren jabeak behin-behineko zerbitzua mantendu beharko du lanak egiten diren bitartean eta ukitutako elementuen ordezkoak ere ipini beharko ditu Udalak adierazitako baldintzetan.

104. artikulua. Partzelen arteko zortasunak.

a. Baldintza orokorrak: bizitegi-erabilerako partzelak eta partzela horietako eraikuntzak, partzelako jabeek plangintzatik sortutako eskubideak bete-betean eta nahierara erabili ahal izan ditzaten beharrezko diren zortasunei loturik egongo dira.

b. Estolderiari dagokion bide-zorra: saneamendu-kolektorearekiko edo, kolektorerik ez badago, hurbileko ibilguarekiko kokapenagatik beste jabe batzuen lursailak zeharkatu gabe lotura egokirik egin ezin duten finka-jabeek, beharrezko diren hodiak ipini ahal izango dituzte besteren finka horietan, ahalik eta kalte eta eragozpen txikienak eragiteko moduko ibilbidearekin eta baldintzetan, eta eragina jasa duen jabeari sortutako gastuak ordainduz.

c. Zimendu-zapatak eraikin mugakideetan: bi eraikin mugakidek bat egiten duten gunean, zimendu-zapatak komunak izan daitezke, ukitutako partzeletako bakoitzean dagokien azalera hartuz.

Zortasunen ondorioetarako, partzela horiek elkarrekiko zortasun aktiboa eta pasiboa dutela pentsatuko da.

d. Garajeetarako sarrera-zorra: indarrean dagoen plangintzan berariaz adierazitako kasuetan, bizitegi-erabilerako partzeletako sarrera eta garajeak –edota partzela bera bestela, sarrerak eta garajeak eraiki ez badira– partzela mugakideetako garajeetarako sarrera-zorrari loturik gelditukо dira.

e. Patio komuna partekatzen duten finka mugakideen jabeek araudi bat gauzatuko dute patio horren erabilerari, konponketari, zainketari eta garbiketari buruz eta patioaz gozatu eta patioaren helburua betetzeko beharrezko edo egoki izango diren mugak, baldintzak eta elkarrekiko zortasunak eratuz.

Udalak araudi horren gauzatu izanaren eta edukiaren berri ofizialki jakin ondoren bakarrik baimendu ahal izango du patio komunaren eraikuntza.

Araudi hori eskritura publiko bilakatu eta Jabetza Erregistroan ukitutako finkei loturik erregistratzea eskatuko da.

Baldintza horiek bete izana eraikinen lehen erabilerako lizentzia eman aurretik justifikatu beharko da.

105. artikulua. Nahitaezko jabetza-loturak.

Eraikigarritasun ondorioetarako zenbatu ez diren estalkipeko eremuak ez dira inolaz ere aparteko jabetza-elementu gisa erregistratuko.

En estas áreas, por el contrario, será a cargo de los propietarios la conservación de las fachadas interiores de los porches, los elementos estructurales, los aislamientos y las impermeabilizaciones, así como, en su caso, la de las acometidas a la parcela de las redes de servicios urbanos.

Artículo 103. Colocación de elementos de servicio y señalización en las fachadas.

a. El Ayuntamiento podrá instalar, suprimir o modificar, a su cargo, y los propietarios vendrán obligados a consentirlo, soportes, señales o cualquier otro elemento de servicio de interés general cuando esa implantación resulte necesaria o conveniente, y no existan alternativas adecuadas de implantación de los mismos en los espacios públicos.

b. Siempre que por realización de obras o derribos en las fincas o edificios, se vieran afectados dichos elementos constitutivos de servidumbre pública, vendrá obligado el propietario de la finca a mantener el servicio provisional durante la ejecución de las obras y a la reposición de los elementos afectados en las condiciones que les sean señaladas por el Ayuntamiento.

Artículo 104. Servidumbres entre parcelas.

a. Condiciones generales: Las parcelas de uso residencial y las edificaciones que las ocupen estarán sujetas a las servidumbres precisas para que los propietarios de estas parcelas puedan ejercer plena y libremente los derechos que dimanan del planeamiento.

b. Servidumbre de paso de alcantarillado: Los propietarios de aquellas fincas que, por su situación respecto del colector de saneamiento o, en su defecto, cauce próximo, no puedan efectuar la conexión debida sin atravesar otros pertenecientes a distinto dueño, podrán instalar las tuberías necesarias en dichas fincas ajenas, con el trazado y en las condiciones que causen menos perjuicios y molestias, y resarciendo al propietario afectado el importe de los gastos que se originen.

c. Zapatas de cimentación en edificaciones colindantes: En la zona de confluencia de dos edificaciones colindantes, las zapatas de cimentación podrán ser comunes, ocupando la superficie correspondiente en cada una de las parcelas afectadas.

A estos efectos, se considerará que existe entre dichas parcelas una servidumbre recíproca activa y pasiva.

d. Servidumbres de acceso a garajes: En los casos que se señalan expresamente en el planeamiento vigente, los accesos y garajes de las parcelas de uso residencial –o en su caso la propia parcela si aquellos no se hubiesen construido– quedarán sometidos a la servidumbre de acceso a los garajes de las parcelas colindantes establecidos.

e. Los propietarios de las fincas colindantes que compartan un patio mancomunado, formalizarán un reglamento sobre uso, reparación, conservación y limpieza de ese patio y constitución de las limitaciones, condiciones y servidumbres recíprocas, que resulten necesarias o convenientes para su disfrute y cumplimiento de su finalidad.

El Ayuntamiento sólo podrá autorizar la construcción del patio mancomunado después de tener conocimiento oficial de la formalización y contenido de ese reglamento.

Dicho reglamento será elevado a escritura pública y se solicitará la inscripción del mismo en el Registro de la Propiedad respecto de las fincas afectadas.

La justificación del cumplimiento de estos requisitos deberá efectuarse como condición previa al otorgamiento de la licencia de primera utilización de los edificios.

Artículo 105. Vinculaciones de propiedad obligatoria.

Los espacios bajocubierta no computados a los efectos de edificabilidad, no podrán registrarse en ningún caso como elementos de propiedad independientes.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Zatitu ez badira, eremu horiek etxebizitzez edo/eta eraikineko gainerako erabilerez osatutako komunitateari erantsi zaizkion jabekidetzako elementu gisa eratu beharko dira; eta hainbat elementutan banatuz gero, aldiz, eraikineko etxebizitzen eta gainerako lokalen eranskin bereiztezin modura.

3.3. 3. KAPITULUA. ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZA OROKORRAK INDUSTRIA ERABILERAKO PARTZELETARAKO

106. artikulua. Hirigintza-eraikigarritasuna eta eraikuntzaren itxura arautzeko baldintza orokorrak.

Erreferentziazko partzela motek, dagozkien Arau Partikularrek ezarritako hirigintza-eraikigarritasuna eta eraikuntzaren itxura arautzeko baldintzak bete beharko dituzte kasu bakoitzean.

1. Hirigintza-eraikigarritasunari buruzko baldintza orokorrak:

a. Partzela industrialetan, eraikinek dagokien Arau Partikularreko «Lerrokadurak eta sestrak» planoan ezarritako eraikuntza-lerrokaduretara egoki beharko dute.

Lerrokadura horiek zehazten dute, eraikuntzaren garaierari eta profilari buruz ezarritako baldintzekin batera, eraikuntzaren gehienezko inguratzailea. Eraikuntzak, ordea, errespetatu egin beharko ditu Arau Partikularretan zehaztu diren eraikuntza-aprobetxamenduaren gehienezko mugak ere –azalera eraikigarrian–; beraz, aipatutako gehienezko inguratzailea ez da osoosoan okupatzerik izango, baldin eta horrek baimendutako azalera eraikigarriaren muga gainditzea ekartzen badu.

b. Aipatutako planoetan berariaz erabilera pribatuko eremu eraikiezin modura kalifikatzen diren partzela industrialetako lur-zatietan, instalazio-elementuak, zerbitzuen azpiegituraguneak, baskulak, deposituak edota aparkatutako ibilgailuen babeserako aldi baterako teilape arin eta itxi gabeak ezarri ahal izango dira soil-soilik, baina ez dira konputagarri izango eraikuntza-aprobetxamenduari ezarritako mugen ondorioetarako.

Hala ere, indarrean dagoen legediak ibai-ibilguen ertzetik hasita zehazten duen erabilera publikoko zortasunari lotutako 5,00 metroko zerrendan, ez da inolako elementu eraikirik ezartzerik izango, nahiz eta zerrenda hori partzela industrial jakin baten barruan egon.

c. Arau hauetatik zehaztutako aprobetxamendu- eta bolumen-baldintza orokorrak betetzen ez dituzten lehengo eraikinen ordezko eraikuntzak, derrigorrez egokitu beharko dira eraikuntza-araubide berrira.

d. «Zonakako banaketa xehatua» planoak erabilera industrialeko partzeletan zehaztutako partzela eraikigarrien azalerek kalifikazio xehatuko zehaztapen arauemailearen izaera izango dute, eta egin daitezken Xehetasun Azterketek ez dute inolaz ere azalera horiek handitzerik izango. Hala ere, Xehetasun Azterketa horiek eraikuntza-lerrokaduren antolaketa aldatu ahal izango dute –ez, ordea, partzela-lerrokadurak, hauek ere aipatutako mailako izaera arauemailea izango baitute–, partzelen barruan eraikinen oinplano-antolaketa aldatuz.

2. Eraikuntza-baldintza orokorrak:

a. Partzela industrialak okupatzen dituzten eraikuntzen lur urbanizatuko sestrak eta euskarri-mailak, lehendik zegoen urbanizazioarenak izango dira urbanizazioa finkaturik gelditzen den eremuetan, eta urbanizazio-lanen proiektuek ezarritakoak, berriz, garapen berriko eremu eta bide-elementuetan edo lehendik zegoen urbanizazioa aldatzen dituztenetan.

Dichos espacios deberán configurarse, en caso de no ser objeto de división, como elementos en copropiedad anejos a la comunidad que configuren las viviendas, y/o los demás usos que ocupen el edificio; y en caso de subdivisión en elementos diferenciados, como anejos inseparables de las viviendas y demás locales en que se haya dividido el edificio.

3.3. CAPÍTULO 3. ORDENANZAS GENERALES DE USO Y EDIFICACIÓN PARA LAS PARCELAS DE USO INDUSTRIAL

Artículo 106. Condiciones generales de regulación de la edificabilidad urbanística y de la forma de la edificación.

Los diferentes tipos de parcelas de referencia cumplimentarán en cada caso las condiciones de regulación de la edificabilidad urbanística y de la forma de la edificación que establezcan las Normas Particulares correspondientes.

1. Condiciones generales de la edificabilidad urbanística:

a. En las parcelas industriales, las construcciones deberán adecuarse a las alineaciones de edificación establecidas en el plano de «Alineaciones y rasantes» incluido en la Norma Particular correspondiente.

Dichas alineaciones, junto con las condiciones de altura y perfil de edificación establecidas, definen la envolvente máxima de edificación. Ésta, sin embargo, deberá respetar también los límites máximos de aprovechamiento edificatorio –en superficie edificable- que asimismo se definen en las Normas Particulares, por lo que no se podrá ocupar en su totalidad la citada envolvente máxima, si ello implicara la superación del límite de superficie edificable autorizado.

b. En aquellas partes de las parcelas industriales que se califican expresamente en los planos citados como no edificables de uso privado, se autorizará exclusivamente la implantación de elementos de instalaciones, centros de infraestructuras de servicios, básculas, depósitos o tejavanas ligeras, no cerradas y de carácter no permanente, para la protección de vehículos aparcados, los cuales no serán computables a efectos de los límites de aprovechamiento edificatorio establecidos.

No se podrá implantar, sin embargo, elemento construido alguno en la franja de 5,00 m de servidumbre de uso público, definida por la legislación vigente a partir de las riberas de los cauces fluviales, aún cuando la misma forme parte de una parcela industrial determinada.

c. Las construcciones que sustituyan a edificaciones existentes que no cumplan las condiciones generales de aprovechamiento y volumen definidas desde estas Normas, deberán ajustarse obligatoriamente al nuevo régimen de edificación.

d. La superficie de las parcelas edificables definidas en las parcelas de uso industrial por los planos de «Zonificación Pormenorizada», tendrán el carácter de determinación normativa de calificación pormenorizada, por lo que en ningún caso podrán ser incrementadas por los Estudios de Detalle que se tramiten. Estos sin embargo, podrán modificar la disposición de las alineaciones de edificación –no así las alineaciones de parcela que poseerán asimismo carácter normativo al nivel señalado–, modificando la disposición en planta de las edificaciones en el interior de las parcelas.

2. Condiciones generales de edificación:

a. Las rasantes y niveles de apoyo en el terreno urbanizado de las edificaciones que ocupan parcelas industriales, serán las de la urbanización existente en aquellas áreas en las que ésta se consolida; y los que se establezcan por los proyectos de obras de urbanización en las áreas y elementos viarios de nuevo desarrollo o en los que se modifica la urbanización existente.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Erabilera publikoko zortasunak dituzten partzeletako eremuek txertaturik dauden espazio publikoen sestra eta urbanizazio mailetara egokituko dituzte beren sestra eta urbanizazio mailak. Era berean, erabilera pribatuko eremu eraikiezinek aurrez aurre dituzten espazio publikoen sestra eta mailak mantenduko dituzte eremuetako perimetroan, berariaz kontrakorik adierazten ez bada behintzat.

b. Baimendutako gehienezko eraikuntza-garaiera eremu edo sektore bakoitzean finkatutakoa izango da. Profil horren gainean, eraikina edertzeko aukera emango duten elementu bereziak onartuko dira, gehienez ere 2,50 metroko garaierarekin; azalera hori, elementu gardena izan ezean, zenbatu egingo da aprobetxamendu ondorioetarako eta udal-irizpideen arabera egokia denean ipini ahal izango da.

Era berean onartuko da instalazio eta tresna industrialen elementuek aipatutako garaiera-muga gainditzea, dituzten ezaugarri teknologikoengatik ezinbestekoa gertatzen denean. Kasu horretan –eta hori galarazteko moduko arrazoirik ez badago–, elementu horiek lurrean jartzea eskatuko da, inoiz ez eraikinaren goi-solairuetan, begi-inpaktua ahalik eta txikiena izateko.

c. Goi-solairuak, gehienez ere, bi (2) izango dira. Onartuko da zehaztuko diren ezaugarriekin solairuarteak eraikitzea, solairu bakoitzaren barruan; azalera hori ez da konputagarri izango, eta modu egokian txertatuko da dagoen solairuan. Onartzen da soto-solairu bat eraikitzea ordenantza hauetan aurreikusitako erabilera-baldintzetan; solairu horren garaiera librea ez da 2,50 metrotik beherakoa izango, ezta 3,50 metrotik gorakoa ere.

Industria-erabilerako eremuetan kokaturik dauden hirugarren sektoreko erabileretako partzelek, gehienez ere BS+3 profila eduki ahal izango dute, baina baimendutako gehienezko garaiera ez dute inolaz ere gainditzerik izango. Baldintza hori esparru bakoitzari dagokion Arau Partikularrean (Hirigintza-fitxa) jaso beharko da.

d. Eraikuntza industrialen gutxieneko azalera eraikia 150 m^2koa izango da, eta ez da onartzen aipatutako azalera baino txikiagoa sortuko duen lehengo eraikinen bereizketarik.

3. Eraikina osatzen duten elementuen baldintza geometrikoak:

a. Gutxieneko garaiera librea: 2,50 metrokoa izango da soto-solairuetan, 3,50 metrokoa ekoizpenera xedatutako goi-solairuetan eta 2,50 metrokoa bulego, bainugela, biltegi eta enpresaren bestelako erabilera osagarrietara xedatutako guneetan.

b. Erdisotorik izanez gero, behe-solairuetarako ezarritako baldintzak bete beharko dituzte gutxieneko neurri eta garaiera libreei dagokienean, baina aparteko lokal modura ere onartuko dira, baldin eta 8,00 metroko gutxieneko aurrealdea badute eta 3,50 metroko garaiera librea sartzeko.

c. Solairuarteak: gehienez ere pabiloiak duen azaleraren % 50-eko azaleraz eraiki ahal izango dira. Eremu horretan, garaiera librea 2,30 metrokoa izango da goiko aldean, eta 2,50 metrokoa behekoan. Alboetan biltegi-galeriak prestatuz gero, pabiloi nagusi aldera irekirik egon beharko dute eta ez dira 2,50 m baino zabalagoak izango, baina solairuarteetarako adierazitako garaiera libreak bete beharko dituzte.

d. Eraikinen estalkiek gehienez ere % 35eko malda izango dute estalki inklinatuak direnean; estalki lauak ere onartzen dira.

e. Ibilgailuen sarbide nagusiak 3,00 metroko zabalera eta 3,50 metroko garaiera izango ditu gutxienez.

f. Debekaturik dago elementu irtenak edo hegalak, irekiak nahiz itxiak, eraikitzea, sarbideak apaindu edo babesteko teilatu-hegalak izan ezik.

Las áreas de parcelas sometidas a servidumbres de uso público adecuarán sus rasantes y niveles de urbanización a los de los espacios públicos en los que se integran. De igual modo las áreas no edificables de uso privado mantendrán en su perímetro las rasantes y niveles de los espacios públicos a los que dan frente, salvo indicación expresa en sentido contrario.

b. La altura de edificación máxima autorizada será la que se fije en cada área o sector. Sobre dicho perfil se admitirán elementos singulares que permitan realzar el edificio, con una altura máxima de 2,50 m; dicha superficie computará a efectos de aprovechamiento, salvo que sea diáfano y su ejecución quedará supeditada a su oportunidad según los criterios municipales.

Asimismo, se admitirá que superen el límite de altura citado los elementos de instalaciones y equipo industrial cuyas características tecnológicas lo hagan ineludible. En este caso se exigirá que dichos elementos –si no existieran razones que lo impidan–, se sitúen a nivel del terreno y nunca en las plantas altas de la edificación de forma que su impacto visual sea el menor posible.

c. El número máximo de plantas altas será de dos (2). Se admitirá la construcción de altillos o entrepisos con las características que se especificarán en el interior de cada planta; esta superficie no será computable, integrándose de forma adecuada a la planta a la que pertenece. Se autoriza en las condiciones de uso previstas en estas ordenanzas, la construcción de una planta de sótano, cuya altura libre no será inferior a 2,50 m ni mayor que 3,50 m.

Las parcelas de usos terciarios ubicadas en zonas de uso industrial podrán tener un perfil máximo de PB+3, sin que en ningún caso pueda superarse la altura máxima autorizada. Dicha circunstancia deberá recogerse en cada Norma Particular (Ficha urbanística) del ámbito correspondiente.

d. La superficie mínima construida de las edificaciones industriales será de 150 m^2, sin que quede autorizada cualquier segregación de edificaciones preexistentes que dé como resultado una superficie inferior a la señalada.

3. Condiciones geométricas de los elementos integrantes de la edificación:

a. Altura libre mínima: Será de 2,50 m en las plantas sótano; 3,50 m en las plantas altas dedicadas a la producción y de 2,50 m en las zonas destinadas a oficinas, aseos, almacenamiento y otros usos complementarios de la empresa.

b. En el caso de existir semisótanos, éstos cumplimentarán las condiciones establecidas para las plantas bajas en cuanto a dimensiones y alturas libres mínimas, admitiéndose como locales independientes siempre que dispongan de un frente mínimo de 8,00 m y una altura libre de acceso de 3,50 m.

c. Entrepisos o altillos: Podrán realizarse con una superficie máxima equivalente al 50 % de la superficie del pabellón. En esta zona, la altura libre será de 2,30 m en la parte superior y de 2,50 m en la parte inferior. En el caso de habilitarse galerías laterales de almacenamiento, éstas deberán estar abiertas hacia la nave principal y no tendrán un ancho superior a los 2,50 m, debiendo cumplir las alturas libres indicadas para los altillos.

d. La cubierta de los edificios tendrá una pendiente máxima del 35 % en el caso de cubiertas inclinadas; admitiéndose soluciones de cubierta plana.

e. El acceso principal de vehículos tendrá unas dimensiones mínimas de 3,00 m de ancho y una altura mínima de 3,50 m.

f. No se admitirá la construcción de cuerpos salientes o volados, tanto abiertos como cerrados, a excepción de aleros decorativos o de protección de accesos.

EK\CV GAO-I-2018-07902

g. Fatxadako eta estalkiko elementu irten gisa, tximiniak, antenak eta garatu beharreko industria-jarduerari dagozkion gainerako instalazio osagarriak bakarrik onartuko dira.

h. Errotuluak, argi-iragarkiak eta bestelako gai apaingarriak ez dira 0,25 m baino gehiago aterako fatxadetatik, eta debekaturik daude fatxadarekiko perpendikularrean ipinitako errotulu eta gainerako iragarkiak. Eraikuntzaren elementu berezi modura tratatzen direnean bakarrik onartzen da estalki gainean errotuluak jartzea.

107. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak.

a. Partzelak, batez ere, industria-erabileretara xedatuko dira, 2., 3. eta 4. kategorietako industria-erabileretara.

b. Udalak industria-erabilera nagusiarekin bateragarri diren erabilerak, ondorengo zerrendan agertzen direnak, baimendu ahal izango ditu, baldin eta eskakizun funtzionalak eta erabilera horietako bakoitzari aplikagarri zaion araudi espezifikoa betetzen badira.

Hotel-erabilera (hirugarren sektoreko erabileretarako eraikin bakartuan). Merkataritza. Ostalaritza-jarduerak (tabernak, jatetxeak eta antzekoak), eta Udalaren iritziz araugarri izan daitezkeen beste batzuk, ohiko merkataritzaren ordutegi eta egutegi murriztuen barruan arituko dira. Bulegoak. Komunitate-ekipamendua, kirol, administrazio/zerbitzu publiko eta osasun/laguntza erabilera modalitateetan. Aparkalekua eta garajea. Zerbitzu-azpiegiturak. Abeltzaintza intentsiboa.

c. Etxebizitza-erabilera zerbitzu lagungarri modura onartuko da lurzoru industrialean (zaintzeaz eta mantentzeaz arduratzen direnentzat xedatutako etxebizitza), honako baldintza hauetan:

— Etxebizitza duen industria-jarduera zehatzari egokitutako gutxieneko partzela garbia: 4.000 m^2.

— Etxebizitza bakar bat partzela bakoitzeko, eta azalera eraikia 110 m^2 gehienez ere.

— Etxebizitzak erregistro-unitate bat osatuko du dagokion industria-partzelarekin.

d. Erabilera pribatuko partzela-azalera eraikiezinak, ibilgailuen maniobra eta aparkalekurako, barne-bideetarako, aire zabaleko biltegietarako, instalazio-elementuetarako edota lorategiguneetarako xedatuko dira. Nolanahi ere, bai espazio horiek, bai erakinak berak, ahalik eta modurik aproposenean egokitu beharko dira apainduraren eta osasungarritasunaren aldetik.

e. Eraikin industrialetako sotoak materialak eta landutako produktuak biltegiratzera bakarrik xedatuko dira, eta behe-solairu edo erdisotoetako lokalekin loturik egon beharko dute; horietan debekaturik egongo dira pertsonen egonaldi luzea eskatzen duten jarduera guztiak.

Garaje-erabileraren kasuan, lokal horiek behe-solairuetako lokaletatik bereizirik egon daitezke, baina edonola ere erabilerari aplikagarri zaizkion baldintzak bete beharko dituzte.

f. Erdisotoak behe-solairuetarako onartutako jardueretan aritu eta aparteko lokal modura eratu ahal izango dira, baldin eta 92. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

g. Baimendutako solairuarteak, bulego, bainugela, biltegi eta jarduera nagusiaren bestelako erabilera osagarrietara xedatuko dira; ez da onartzen ekoizpenerako erabiltzea.

h. Lehendik dauden lokalak egungo egoeran finkaturik geldituko dira, aurreko zehaztapenak ez bete arren. Dena den, ordeztuz gero, zehaztapenak bete egin beharko dituzte.

g. Únicamente se permiten como elementos salientes de la fachada y cubierta las chimeneas, antenas y demás instalaciones complementarias propias de la actividad industrial a desarrollar.

h. Los rótulos, anuncios luminosos y otros motivos ornamentales no sobresaldrán de las fachadas más de 0,25 m; prohibiéndose los letreros y demás motivos publicitarios colocados perpendicularmente a ella. Se admite la instalación de letreros sobre cubierta únicamente en el caso de ser tratados como elementos singulares de la edificación.

Artículo 107. Condiciones generales de uso.

a. Las parcelas se destinarán, de forma predominante, al uso industrial en sus categorías 2.ª, 3.ª y 4.ª

b. El Ayuntamiento podrá autorizar aquellos usos compatibles con el destino industrial predominante, incluidos en el listado siguiente, siempre que se dé cumplimiento a las exigencias funcionales y a la normativa específica aplicable a cada uno de ellos.

Hotelero (en edificio aislado para usos terciarios). Comercio. Las actividades de hostelería (bares, restaurantes y similares), así como otras que el Ayuntamiento pueda estimar oportuno regular, se ejercerán dentro del horario y calendario restringido del comercio convencional. Oficinas. Equipamiento comunitario en su modalidad de uso deportivo, administrativo/servicio público y sanitario/asistencial. Aparcamiento y garaje. Infraestructuras de servicio. Ganadería intensiva.

c. El uso de vivienda se tolerará en suelo industrial en calidad de servicio auxiliar (vivienda destinada al personal encargado de la vigilancia y conservación) bajo las siguientes condiciones:

— Parcela neta mínima asignada a la actividad industrial concreta a la que se liga la vivienda: 4.000 m^2.

— Una sóla vivienda por parcela, con una superficie construida no mayor de 110 m^2.

— La vivienda constituirá una unidad registral con la parcela industrial servida.

d. Las superficies de parcela no edificables de uso privado se destinarán a maniobra y aparcamiento de vehículos, viales interiores, almacenaje al aire libre, elementos de instalaciones o zonas ajardinadas. En cualquier caso tanto estos espacios como las propias edificaciones deberán adecuarse en adecuadas condiciones de ornato y salubridad.

e. Los sótanos de las edificaciones industriales se destinarán, exclusivamente, a almacenamiento de materiales y productos elaborados, debiendo estar ligados a los de planta baja o semisótano, prohibiéndose en ellos toda actividad que exija la estancia prolongada de personas.

En el caso de uso de garaje, estos locales podrán ser independientes de los de planta baja, cumpliendo en cualquier caso los condicionados aplicables a este uso.

f. Los semisótanos podrán desarrollar las actividades admitidas para las plantas bajas y constituirse como locales independientes, siempre que cumplan las condiciones del Artículo 092.

g. Los entrepisos o altillos autorizados se destinarán a oficinas, aseos, almacenamiento y otros usos complementarios de la actividad principal; no admitiéndose su uso para la producción.

h. Los locales existentes quedarán consolidados en su actual estado, aún no cumpliendo con las determinaciones anteriores. En caso de sustitución deberán en cualquier caso cumplimentarlas.

EK\CV GAO-I-2018-07902

108. artikulua. Funtzionaltasunari, higieneari, segurtasunari, eraikuntza-kalitateari eta tratamendu estetikoari buruzko baldintza orokorrak.

Honako Arau hauen babesean garatuko diren eraikuntza eta instalazio industrialek, indarrean dagoen araudi orokorrak eskatutako funtzionaltasunari, higieneari, segurtasunari eta eraikuntza-kalitateari buruzko baldintzak eta aplika daitezkeen erakunde eskudunen xedapenak bete beharko dituzte.

1. Aparkaleku- eta garaje-zuzkidura:

Baldin eta eraikin berrietan plangintza xehatuak ezarritako antolamendu-baldintzek horretarako aukera ematen badute –eta lehengo eraikinetan ezarritako jarduera berrien kasuetan, aldiz, helburua gauzatzeko aukera objektiboen arabera–, aparkaleku- edo garaje-zuzkidura gutxienez 1 plaza/100 m^2(s) izatea eskatuko da.

Soto, erdisoto eta behe-solairu estalietan egokitutako garajeek, bizitegi-erabilerako partzeletarako ezarritako funtzionaltasun orokorreko baldintzak bete beharko dituzte.

2. Isurketa- eta arazketa-baldintzak:

Hondakin-uretan behar baino kutsadura gehiago eragiten duten jarduera industrialek arazketa sistema propioa ipini beharko dute. Sare nagusira isuri aurretik lagin-kutxatila bat ipiniko da, egin beharreko analisiak egin ahal izateko.

3. Argiztapen- eta aireztapen-baldintza orokorrak:

a. Pabiloiak guztira azalera erabilgarriaren % 10 baino azalera handiagoa duten baoen bitartez argiztatuko dira. Azalera horretara heldu ez izana justifikaturik egonez gero, horrez gain, aurreikusitako jardueran aritzeko behar adinako argiztapen artifiziala ere ipini beharko da; hau da, gutxienez 20 luxeko argiztapen artifiziala biltegi eta pasabideetan, 50 luxekoa ekoizpen- edo manipulazio-eremuetan eta 300 luxekoa bulegoetan.

b. Aireztapena, berriz, ordu eta langile bakoitzeko 40 m^3tik gorako aire fresko eta garbia bermatzeko adinakoa izango da.

c. Argiztapen eta aireztapen sistema lagungarriaren kasuan, profesional aditu batek eginiko proiektu zehatza behar izango da, eta lokala ireki aurretik eta beste edozein unetan ere aztertu egin beharko dira.

d. Sotoetako aparkalekuek aireztapen natural zuzena edo hodi bidezkoa izango dute. Aireztapena naturala bada, lokalak kanpoaldera irekitako baoak izan beharko ditu; aireztapena artifiziala denean, berriz, azaleraren metro bakoitzeko 15 m^3/h aire-berritzea eragiteko adinakoa izan beharko du.

4. Zerbitzu higienikoen zuzkidura:

a. Pabiloiek «Laneko segurtasuna eta higienea» eta Osasuna alorretan Arauek ezarritako higiene-zerbitzuak izan beharko dituzte bertako langileentzat, eta hamar langile baino gehiago dituzten enpresek, gutxienez, honako hauek:

— Bi metro koadro aldagela eta komunetan pertsona bakoitzeko, sexuak bereiziz.

— Konketa bat lanaldi berean lan egiten duten hamar lagun bakoitzeko.

— Komun-ontzi bat lanaldi berean lan egiten duten hogeita bost gizon bakoitzeko eta beste bat hamabost emakume bakoitzeko.

b. Hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetarako, gutxienez komun-ontzi eta konketa bana eskatuko dira.

c. Multzoa eratzen duten lokaletako komunak bateratu egin ahal izango dira.

Artículo 108. Condiciones generales de funcionalidad, higiene, seguridad, calidad constructiva y tratamiento estético.

Las construcciones e instalaciones industriales que se desarrollen al amparo de las presentes Normas, deberán cumplimentar las condiciones de funcionalidad, higiene, seguridad y calidad constructiva, exigidas por la normativa general vigente y las disposiciones de los organismos competentes aplicables.

1. Dotación de aparcamientos y garajes:

Siempre que las condiciones de ordenación establecidas por el planeamiento pormenorizado lo permitan en las nuevas construcciones; y en los casos de nueva implantación de actividades en edificios existentes, en función de las posibilidades objetivas de materialización de la misma, se exigirá la disposición de una dotación mínima de aparcamiento o garaje de 1 plaza/100 m^2(t).

Los garajes que se habiliten en sótanos, semisótanos o plantas rasantes cubiertas, deberán cumplir los requisitos de funcionalidad general establecidos para las parcelas de uso residencial.

2. Condiciones de vertido y depuración:

Las actividades industriales que produzcan una contaminación no tolerada de las aguas residuales, deberán establecer su propio sistema de depuración. Previo al vertido a la red general se dispondrá de una arqueta de muestra con el fin de poder realizarse los correspondientes análisis.

3. Condiciones generales de iluminación y ventilación:

a. La iluminación de las naves se realizará mediante huecos de una superficie total superior al 10 % de la superficie útil. En el supuesto justificado de no llegar a dicha superficie, se dispondrá además, iluminación artificial suficiente para desarrollar la actividad prevista y que será, al menos, de 20 lux en las zonas de almacenamiento y paso; de 50 lux en las de producción o manipulación y de 300 lux en las oficinas.

b. La ventilación será la suficiente de forma que se garantice el suministro de aire fresco y limpio de más de 40 m^3 por hora y trabajador.

c. El sistema de iluminación y ventilación auxiliar, deberá ser objeto de un proyecto detallado redactado por facultativo competente, quedando tales sistemas sometidos a revisión antes de la apertura del local y en cualquier momento.

d. Los locales de aparcamiento en sótano dispondrán de ventilación natural directa o por conducto. Si la ventilación es natural, el local deberá contar con huecos al exterior; cuando la ventilación sea forzada deberá ser apta para producir una renovación de aire de 15 m^3/hora por metro cuadrado de superficie.

4. Dotación de servicios higiénicos:

a. Los pabellones dispondrán para su personal los servicios de higiene que establecen las Normas sobre «Seguridad e higiene en el trabajo» y Sanidad, y, como mínimo, para empresas de más de diez trabajadores, de los siguientes:

— Dos metros cuadrados de vestuario y sanitarios por persona, con separación de sexos.

— Un lavabo por cada diez personas que trabajen durante la misma jornada.

— Un inodoro por cada veinticinco hombres y otro por cada quince mujeres que trabajen durante la misma jornada.

b. Para empresas con menos de diez trabajadores se exigirán, como mínimo, un inodoro y un lavabo.

c. Los servicios sanitarios de varios locales que formen un conjunto, podrán agruparse.

EK\CV GAO-I-2018-07902

d. Bainugeletako aireztapen eta argiztapen sistema Ordenantza hauetan etxebizitzetako bainugela eta komunetarako aurreikusitako sistemetakoren bat izango da.

5. Tratamendu estetikoari buruzko baldintzak:

a. Partzela industrial guztiek Ordenantza hauetan eskatutako baldintzak bete beharko dituen itxitura bat izango dute partzelaren inguruan, herriko bideen aldean izan ezik.

b. Udalak aire zabalean elementu teknikoak eta biltegiak jartzean ingurugiroan edo paisaian eragin daitezkeen kalteak leuntzeko neurriak hartzea eskatu ahal izango du.

c. Bai eraikuntzak, bai eraikuntza gabeko espazioak, egoera onenean zaindu beharko dira apaindurari eta osasungarritasunari dagokienez.

3.4. 4. KAPITULUA. ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAK HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERETAKO PARTZELETARAKO

109. artikulua. Eraikuntza-baldintza orokorrak.

1. Hiri-lurzoruko eremuetan dauden hirugarren sektoreko erabileretarako partzelak, Plan Orokorreko aurreikuspenak finkatzeko edo zuzenean egiteko proposatzen direnak, Araudi Xehatuko Hirigintza Fitxek kasu bakoitzean ezarritako eraikuntza-baldintzetara egokituko dira.

2. Era berean, nagusiki mota honetako erabileretara atxikitako partzelak ere zehaztu ahal izango dira, plangintza partzialak, batez ere bizitegi- edo industria-erabilera eman zaien sektoreetan garatu beharrekoak, zehaztu beharko dituen zuzkiduren zati modura. Kasu honetan plangintza horrek ezarriko ditu oinarrizko eraikuntza-baldintzak.

110. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak.

1. Arau hauek proposatu dituzten hirugarren sektoreko erabileretarako partzelak dagozkien Hirigintza Fitxetan horietako bakoitzarentzat onartutako erabilera zehatzetara xedatuko dira.

2. Besterik gabe kalifikazio generikoa jaso dutenak, batez ere honako erabilera hauetara xedatuko dira: hotela, merkataritza eta bulegoak.

Udalak hirugarren sektoreko erabilera nagusiarekin bateragarri diren erabilerak, ondorengo zerrenda honetan agertzen direnak, baimendu ahal izango ditu, baldin eta eskakizun funtzionalak eta erabilera horietako bakoitzari aplikagarri zaion araudi espezifikoa betetzen badira:

— Jolas-erabilera.

— 1. kategoriako industria-erabilera (2. kategoriako jarduerak, gehienez ere 200 m^2 arteko azalera eraikia dutenak).

— Komunitate-ekipamendua kategoria guztietan, irakaskuntza, hilerria eta erlijioa kategorietan izan ezik.

— Garajea eta aparkalekua.

Izan litezkeen gainerako erabilerak debekatutzat hartuko dira.

111. artikulua. Bizigarritasunari, eraikuntza-kalitateari, segurtasunari eta tratamendu estetikoari buruzko baldintza orokorrak.

Ezarriko diren erabilera zehatzengatik indarrean dagoen araudi orokorraz gain, erabilera horien ezarpena baimendurik dagoen eta nagusiki bizitegi- eta industria-erabileretara xedatu diren partzeletako lokaletan erabilera horietarako ezarritako baldintzak ere aplikatuko dira modu osagarrian.

d. El sistema de ventilación e iluminación de los aseos será alguno de los previstos para los baños y retretes de las viviendas en las presentes Ordenanzas.

5. Condiciones de tratamiento estético:

a. Todas las parcelas industriales dispondrán de un cierre en su perímetro, que deberá cumplimentar las condiciones exigidas en estas Ordenanzas, salvo en el frente al viario local.

b. El Ayuntamiento podrá exigir la adopción de medidas que tiendan a atemperar el desfavorable impacto que en el orden ambiental o paisajístico, pueda conllevar la instalación de elementos técnicos y de almacenaje al aire libre.

c. Tanto las edificaciones como los espacios libres de edificación deberán conservarse en adecuadas condiciones de ornato y salubridad.

3.4. CAPÍTULO 4. ORDENANZAS REGULADORES DE EDIFICACIÓN Y USO PARA PARCELAS DE USO TERCIARIO

Artículo 109. Condiciones generales de la edificación.

1. Las parcelas de usos terciarios comprendidas en áreas de suelo urbano en las que se propone la consolidación o la ejecución directa de las previsiones ordenadas del Plan General se ajustarán a las condiciones de edificación establecidas en cada caso por las Fichas Urbanísticas correspondientes de la Normativa Pormenorizada.

2. Así mismo, podrán definirse parcelas adscritas de forma predominante a este tipo de usos, como parte de las dotaciones que deberá definir el planeamiento parcial a desarrollar en los sectores da los que se asigna un uso residencial o industrial predominante. Será dicho planeamiento, en este caso, el que establezca sus condiciones básicas de edificación.

Artículo 110. Condiciones generales de uso.

1. Las parcelas de uso terciario propuestas por estas Normas se dedicarán a los usos específicos adoptados para cada una de ellas en las Fichas Urbanísticas correspondientes.

2. Aquellas que sólo han sido calificadas genéricamente, se destinarán de forma predominante a los siguientes usos: Hotelero, comercial y oficinas.

El Ayuntamiento podrá autorizar aquellos usos, compatibles con el destino terciario predominante, incluidos en el listado siguiente, siempre que se dé cumplimiento a las exigencias funcionales y a la normativa específica aplicable a cada uno de ellos:

— Recreativo.

— Industrial de 1.ª categoría (las actividades de 2.ª categoría hasta una superficie construida máxima de 200 m^2).

— Equipamiento comunitario en todas sus categorías excepto docente, cementerio y religioso.

— Garaje y aparcamiento.

El resto de los usos posibles se entenderán como prohibidos.

Artículo 111. Condiciones generales de habitabilidad, calidad constructiva, seguridad, tratamiento estético y dominio.

Además de la normativa general vigente, en razón de los usos específicos que se implanten, serán de aplicación con carácter complementario, las condiciones establecidas para dichos usos en los locales de las parcelas destinadas de forma predominante a usos residenciales e industriales, en las que asimismo se autoriza su implantación.

EK\CV GAO-I-2018-07902

3.5. 5. KAPITULUA. ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAK KOMUNITATE EKIPAMENDUA ETA ZERBITZU AZPIEGITURAK SISTEMEN PARTZELETARAKO

112. artikulua. Eraikuntza-baldintza orokorrak.

Plan Orokorraren antolamendu-aurreikuspenak finkatzea edo zuzenean egitea baimendurik duten hiri-lurzoruko eremuetan, komunitate-ekipamenduak eta zerbitzu-azpiegiturak sistemen partzeletako lerrokadurak eta eraikuntza-tipologia, bai eta eraikuntzaren euskarri mailak lur urbanizatuan eta eraikuntza-bolumenaren eta -aprobetxamenduaren baldintzak ere, dagozkien Hirigintza Fitxetan ezarritakoari egokituko zaizkio.

Fitxa horietan adierazten dira Katalogoan sarturik egoteagatik ezin eraitsi ahal izango diren eraikinak, lehendik dauden eraikinak ordeztu, handitu edo aldatzeko baldintzak eta eraikuntza berriei dagozkienak ere bai garatu gabeko partzeletarako.

113. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak.

1. Dagokion Hirigintza Fitxak zehazten du, kasu bakoitzean, komunitate-ekipamenduaren eta zerbitzu-azpiegituren erabilera zehatza.

2. «Ekipamendu publikorako erreserba» modura kalifikatutako kasuetan, Udalak, horretarako egingo dituen programen ondoren, partzelaren helburu zehatza onartuko du, komunitate-ekipamenduko erabileren barruan betiere; erabilera horiek titulartasun publikoaren pean gauzatuko dira, edo administrazio-emakidaren bitartez bestela, interes orokorrak hala egitea aholkatzen badu.

3. Komunitate-ekipamenduko partzela publikoak, nahiz eta Plan Orokor honetan erabilera zehatz bat atxikirik izan, osoosorik edo zati batean mota bereko bestelako erabileretara ere xedatu ahal izango dira titulartasun publikoaren pean, baldin eta Udalak udal-zerbitzuak arrazionalizatzeko egin ditzakeen programak oinarritzat harturik hala erabakitzen badu.

Titulartasun pribatuko ekipamendua denean, atxikitako erabilera zehatzaren ordez edo horrekin batera dagokion Hirigintza Fitxan zehaztutako ordezko ekipamendu-erabilerak gauzatu ahal izango dira, Udalak baimena eman ondoren; udal-baimena lortzeko, ordea, hasieran emandako erabilera-araubidea aldatu beharra justifikatuko duten baldintzak frogatzeaz gain, Fitxan horretarako aurreikusitako hirigintza-baldintzak eta ezarri nahi diren erabilera berriei aplikagarri zaien araudi orokorra ere bete beharko dira.

114. artikulua. Eraikinen funtzionaltasun-, eraikuntza-, osasun eta higiene-, eta segurtasun-baldintzak.

Sistema orokor eta lokaletako partzeletan garatzen diren eraikinek, kasu bakoitzean aplikagarri den eta eraikitzeko garaian indarrean egongo den araudi orokorrak eskatutako funtzionaltasun-, eraikuntza-, osasun eta higiene- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte.

3.6. 6. KAPITULUA. LURZORU URBANIZAEZINEAN APLIKAGARRI DIREN ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

3.6.1. 1. ATALA. Eraikuntza baldintza orokorrak

115. artikulua. Eraikuntza-araubidea.

Araudi honetako eremu bakoitzerako ezarritako erabileretara egokituko diren eraikuntzak bakarrik onartuko dira.

Lehendik dauden eraikinak finkatu egin dira, araudi honi dagokionez eremu desegokian kokaturik daudenak edota araudi partikularra urratzen dutenak izan ezik.

3.5. CAPÍTULO 5. ORDENANZAS REGULADORAS DE EDIFICACIÓN Y USO PARA PARCELAS DE SISTEMAS DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO E INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS

Artículo 112. Condiciones generales de edificación.

En las área de suelo urbano en las que se autoriza la consolidación o la ejecución directa de las previsiones ordenadoras del Plan General, las alineaciones y tipología de edificación, los niveles de apoyo de la edificación en el terreno urbanizado y las condiciones de volumen y aprovechamiento edificatorio de las parcelas de sistema de equipamiento comunitario e infraestructuras de servicios, se ajustarán a lo establecido en las Fichas Urbanísticas correspondientes.

En ellas se señalan los edificios que no podrán ser objeto de derribos por incluirse en el Catálogo, las condiciones para la sustitución, ampliación o modificación de los edificios existentes y las de nueva edificación para las parcelas no desarrolladas.

Artículo 113. Condiciones generales de uso.

1. El uso específico de equipamiento comunitario y de infraestructura de servicios queda determinado en cada caso por la Ficha Urbanística correspondiente.

2. En aquellos casos calificados como «de Reserva para equipamiento público», el Ayuntamiento, a raíz de los programas que al efecto elabore, adoptará el destino concreto de la parcela, siempre dentro de los usos de equipamiento comunitario, que se ejercerán bajo titularidad pública, o mediante concesión administrativa si el interés general lo aconsejase.

3. Las parcelas públicas de equipamiento comunitario, aún cuando tuvieran asignado un uso concreto por este Plan General, podrán dedicarse en parte o en su totalidad, a otros usos de la misma clase y bajo titularidad pública, siempre que el Ayuntamiento así lo acuerde en base a los programas de racionalización de servicios municipales que pueda elaborar.

En el caso de equipamiento de titularidad privada, el uso concreto asignado podrá ser sustituido o simultaneado con los usos de equipamiento alternativos especificados en la correspondiente Ficha Urbanística, previa autorización municipal, que será otorgada siempre que concurran circunstancias acreditadas que justifiquen la necesidad de alterar el régimen de uso inicialmente otorgado y se cumplan las condiciones urbanísticas previstas al efecto en la Ficha y la normativa general aplicable a los nuevos usos que se pretendan implantar.

Artículo 114. Condiciones funcionales, constructivas, higiénico sanitarias y de seguridad de las edificaciones.

Las edificaciones que se desarrollan en las parcelas de sistemas generales y locales deberán cumplimentar los requisitos funcionales, constructivos, higiénico-sanitarios y de seguridad exigidos por la normativa general aplicable en cada caso y vigente en el momento de su construcción.

3.6. CAPÍTULO 6. ORDENANZAS REGULADORAS APLICABLES EN SUELO NO URBANIZABLE

3.6.1. SECCIÓN 1.ª Condiciones generales de la edificación

Artículo 115. Régimen de edificación.

Solo se permitirán edificaciones que se ajusten a los usos establecidos para cada zona de la presente normativa.

Se consolidan las construcciones existentes con excepción de aquellas que resulten emplazadas en zona no adecuada en relación a esta normativa o contravengan la normativa particular.

EK\CV GAO-I-2018-07902

116. artikulua. Eraikuntza- eta urbanizazio-baldintza orokorrak.

1. Kokapen-baldintzak:

Honako Arau hauetan ezarritako tarteak betetzeaz gain, Udalak eraikuntzek paisaian edo ingurumenean izan dezaketen eragina murrizteko baldintza gehigarriak ezarri ahal izango ditu, edo finka mugakideetako eraikuntza-aukeren gaineko atxikipenak ere bai derrigorrezko bereizketa-tarteak aplikatzearen ondorioz.

2. Eraikuntzen itxurari eta bolumenari buruzko baldintzak:

Bolumetriari eta itxurari dagokienez, eraikuntzak udalerrian dauden ohiko landa-eraikinen tipologietara egokituko dira.

Bolumetria soila eta eremuari egokitua izango du, bai eta estalkiak ere; estalkia, berriz, 2, 3 edo 4 isurkitakoa izango da, gehienez ere % 35eko maldarekin. Estalki amantsardatuak espresuki debekatzen dira.

Eraikuntzaren gehienezko profila bi solairutakoa izango da sestra gainean; onartzen da erdisotoa edo sotoa eraikitzea, bai eta estalkipean sortutako espazioen erabilera ere.

Eraikinaren gehienezko garaiera 7,00 metrokoa izango da teilatu-hegal horizontaletan. Muga hori ez zaie aplikatuko, ordea, dituzten baldintza funtzionalengatik derrigor gainditu behar izaten duten ekoizpen- edo azpiegitura-erabilerei.

3. Eraikinen kanpoko tratamenduari buruzko baldintzak:

Estalkiko material gisa, batez ere kolore naturaleko teila zeramikoa erabiliko da, edo antzeko kolorea eta egitura dituztenak.

Fatxadetako material gisa, berriz, zuriz edo kolore argiz margotutako entokadura eta harria; espresuki debekatzen dira ageriko hormigoi-blokez edo ageriko adreilu barne-hutsez eginiko akaberak. Bistako adreilua, kopuru handitan ez, baizik eta modu berezian erabili ahal izango da, fatxada bakoitzeko azaleraren % 20 gainditu gabe.

Arotz-lanak egurrez edo antzekoez egingo dira, egiturari eta koloreari dagokienez; espresuki debekatzen dira, ordea, aluminioa bere kolore naturalean edo anodizatua tonu distiratsuetan.

Oro har saihestu egingo da inguruko ohiko landa-eraikinetan erabilitako materialekin alderatuta kolorean, egituran edo itxuran ezberdintasun nabarmenak dituzten materialak erabiltzea.

Baldintza hauek oro har derrigorrezkoak izan arren, Udalak, aurrez dagokion txosten teknikoa eginez, kanpoko tratamenduari buruzko konponbideak baimendu ahal izango ditu, baldin eta landa-lurreko ingurumen- edo paisaia-ezaugarrietara behar adina egokitzen direla bermatzen bada.

4. Urbanizazio-baldintzak eta ingurunearen tratamenduari buruzkoak:

Finken itxiturak batez ere harriz edo harrizko enkofratu galduaz eginikoak izango dira, itxiturarik eginez gero behintzat.

Era berean, burdin sarez, alanbrez edo/eta egurrez ere egin ahal izango dira. Onartzen dira landareez eginiko itxiturak edo aurreko horien konbinazioak ere.

Nolanahi ere, obra-itxitura itsuek metro bateko (1,00 m) garaiera izango dute gehienez. Landare jarraituen itxiturek edo alanbreez eginikoek ez dute 1,80 metroko garaiera gaindituko.

Itxitura guztiak, bestalde, finkaren eta bide publikoen arteko mugetatik metro batera (1,00 m) ipiniko dira gutxienez.

Eustormak batez ere ageriko harlangaitzez amaituko dira; kalitateko akaberak dituen ageriko hormigoia, aldiz, azalera txikietarako bakarrik baimentzen da.

Artículo 116. Condiciones generales de edificación y urbanización.

1. Condiciones de emplazamiento:

Además de cumplimentarlas separaciones establecidas en las presentes Normas, el Ayuntamiento podrá establecer condiciones adicionales con el objetivo de reducir el impacto paisajístico o medioambiental de las construcciones o afecciones sobre posibilidades edificatorias de las fincas colindantes por aplicación de las distancias de separación obligatorias.

2. Condiciones de forma y volumen de las edificaciones:

Las edificaciones se ajustarán, en cuanto a su volumetría y configuración, a las tipologías de las construcciones rurales tradicionales existentes en el Término Municipal.

Responderá a una volumetría simple y adaptada al terreno, incluida la cubierta, que será inclinada a 2, 3 o 4 aguas, con pendiente máxima del 35 %. Se prohíben, expresamente, las soluciones amansardadas.

El perfil máximo de la edificación será de dos plantas sobre rasante, admitiéndose la construcción de un semisótano o un sótano, así como el uso de los espacios resultantes bajocubierta.

La altura máxima de la edificación será de 7,00 m en aleros horizontales. Esta limitación no será aplicable a aquellos usos productivos o de infraestructuras que, por requisitos funcionales, deba superarse.

3. Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones:

Como material de cubierta se utilizará, preferentemente, la teja cerámica de color natural o similares en textura y color.

Como material de fachada, el reboco pintado en blanco o colores claros y la piedra, se prohibe, expresamente, los acabados de bloque de hormigón visto o ladrillo hueco visto. La utilización de ladrillo caravista se podrá realizar del forma puntual, no masiva, sin que supere el 20 % de la superficie de cada fachada.

Las carpinterías serán de madera o similar, en textura y color, prohibiéndose, expresamente, el aluminio en su color natural o el anodizado en tonos brillantes.

Con carácter general, se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura o forma difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales del entorno.

No obstante la obligatoriedad general de estos condicionantes, el Ayuntamiento, previo informe técnico elaborado al objeto, podrá autorizar soluciones de tratamiento exterior que garanticen una adaptación suficiente a las características ambientales o paisajísticas del suelo rural.

4. Condiciones de urbanización y tratamiento del entorno:

Los cierres de las fincas, en el caso de realizarse, serán, preferentemente de piedra o con encofrado perdido del mismo material.

Así mismo, podrán realizarse, por medio de verjas metálicas, alambre y/o madera. Los cierres vegetales o combinaciones de los anteriores.

En cualquier caso, los cierres de obra ciegos se realizarán con una altura máxima de 1,00 m. Los cierres vegetales continuos o cierres de alambres no superarán 1,80 m.

Por otra parte, todo cierre se dispondrá a una distancia mínima de 1,00 m de los linderos de la finca con los caminos públicos.

Los muros de contención se acabarán, preferentemente, con mampostería vista, autorizándose el hormigón visto, con acabados de calidad, tan solo para pequeñas superficies.

EK\CV GAO-I-2018-07902

Nolanahi ere, partzeletako itxiturak basoko faunaren ibili librea laguntzeko moduan egin beharko dira.

Oin berriko eraikinek paisaian izan dezaketen eragina arintzeko, Udalak zuhaitz mota autoktonoak landatzea eskatu ahal izango du hala dagokionean, egoki eta bidezko iritzitako eran eta kopuruetan.

Eraikuntza berriko esku-hartzeek partzela edo/eta jabetza berean kokatutako eraikuntzak ingumenari egokitzea ekarriko dute.

5. Lokalen bizigarritasunari, eraikuntza-kalitateari, instalazioen funtzionaltasunari, estetikari eta segurtasunari buruzko baldintzak:

Lurzoru Urbanizaezinean eraikiko diren lokalek, Hiri Lurzorurako Ordenantzetan antzeko espazioetarako ezarritako bizigarritasunari, eraikuntza-kalitateari, instalazioen funtzionaltasunari eta segurtasunari buruzko baldintzak beteko dituzte. Era berean, EKT Eraikuntzaren Kode Teknikoa ere beteko dute.

Bizitegi, hirugarren sektore edo ekipamendu erabileretara xedatutako eraikinei aplikatuko zaizkien baldintza estetikoak, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian eraikin bakartuei aplikatuko zaizkienen pareko izango dira.

Nekazaritzako ustiategira xedatutako eraikinak industria-erabilerekin parekatuko dira, eta erakunde eskudunek ezarritako arau eta xedapenetara egokitu beharko dira.

6. Hondakin-uren saneamendua:

Inguruan saneamendu-sarerik ez duten eraikinek hondakinurak arazteko instalazio egokiez horniturik egon beharko dute, eta instalazio horiek garbitu eta zaindu ere egin beharko dituzte.

a) Etxebizitzetara bakarrik edo etxebizitzetara eta familiako ohiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategira xedatutako eraikinetan, saneamendu-instalazioek hobi septikoa edo putzu baliokidea eta bakterio-iragazkia izango dituzte. Arazketa ondorengo ur zikina lurrean sartu edo ur-ibilgu batera isuri ahal izango da, horretarako ezarritako baldintzetan. Lurrean sartzea onargarri izan dadin, ur freatikoa ez dela kutsatuko ziurtatu beharko da, eta material iragazleez betetako edo hodi porotsuez hornitutako lubakiez egingo da.

Hobi septikoak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak «Hondakin-uren tratamendu-sistemak gune bakartuetarako» argitalpenean ezarritako irizpideetara egokituko dira, tipologiari, neurriei eta eraikuntza-diseinuari dagokienean.

b) Etxebizitzetara edo familiako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategira xedatu gabeko eraikinetan eskatutako instalazioek, Udalak eta gainerako erakunde eskudunek onartutako proiektua beharko dute, isuriak indarrean dagoen legediak eskatutako baldintzetan husten direla bermatuz.

7. Simaurtegiak eta minda biltzeko hobiak:

Jarduera-lizentzia lortu behar duten abeltzaintzako ustiategi berriek, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen 515/2009 Dekretuan, ezarritakoa bete beharko dute. Ingurumenaren Babeserako Legean aurreikusitako jarduera-lizentzia lortu behar izatetik libre dauden jardueren zerrenda ezarri zuen 165/1999 Dekretuaren, martxoaren 9koaren, arabera, jarduera-lizentzia lortu behar izatetik libre dauden ustiategiek Dekretu horren beraren IV. Eranskinean ezarritakoa bete beharko dute.

Abeltzaintzako ustiategietara xedatutako eraikinen kasuan, ustiategiak izango dituen hondakinak bildu eta deuseztatzeko

En todo caso, los cerramientos de las parcelas deberán realizarse de forma que se favorezca la libre circulación de la fauna silvestre.

Con el fin de aminorar el impacto en el paisaje de las edificaciones de nueva planta, el Ayuntamiento podrá exigir la plantación de especies arbóreas autóctonas en forma y cantidad que, en cada caso, se estime oportuno y justificado.

Las intervenciones de nueva construcción conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y/o propiedad.

5. Condiciones de habitabilidad, calidad constructiva, funcionalidad de las instalaciones, estética y seguridad de los locales:

Los locales que se edifiquen en el Suelo No Urbanizable cumplirán las condiciones de habitabilidad, calidad constructiva, funcionabilidad de las instalaciones y seguridad establecidas para espacios similares en las Ordenanzas para Suelo Urbano. Cumplirán, así mismo, el Código Técnico de Edificación CTE.

Las condiciones estéticas que se aplicarán a las edificaciones destinadas a uso residencial, terciario o de equipamiento, serán asimilables a las edificaciones aisladas en suelo urbano o urbanizable.

Las edificaciones destinadas a explotación agraria se asimilarán a los usos industriales, debiéndose ajustar a las normas y disposiciones establecidas por los organismos competentes.

6. Saneamiento de aguas residuales:

Las edificaciones que carezcan de red de saneamiento en las proximidades, deberán estar provistas de instalaciones adecuadas de depuración de aguas residuales, debiendo realizar la limpieza y mantenimiento de dichas instalaciones.

a) Las instalaciones de saneamiento en las edificaciones destinadas exclusivamente a vivienda o a vivienda y explotación agropecuaria familiar tradicional, contarán de una fosa séptica o pozo equivalente y un filtro bacteriano. El efluente de la depuración podrá ser infiltrado en el terreno, o vertido a un curso natural en las condiciones establecidas. Para que sea admisible la infiltración en el terreno, deberá asegurarse la no contaminación del agua freática, y se efectuará con zanjas rellenas de material filtrante o dotadas de tubos porosos.

Las fosas sépticas se adecuarán en cuanto a tipología, dimensionamiento y diseño constructivo, a los criterios establecidos en la publicación «Sistemas de tratamiento de aguas residuales para núcleos aislados» realizada por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

b) Las instalaciones requeridas en las edificaciones no destinadas a viviendas o a explotación agropecuaria familiar deberán ser objeto de proyecto, que habrá de ser aprobado por el Ayuntamiento y demás Organismos competentes, garantizando la evacuación del vertido en las condiciones exigidas por la legislación vigente.

7. Estercoleros y fosas de almacenamiento de purines.

Las explotaciones ganaderas de nueva instalación que requieran la obtención de la licencia de actividad, deberán cumplir lo establecido en el Decreto 515/2009, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas. Las explotaciones exentas de la obtención de la licencia de actividad según el Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de licencia de actividad prevista en la Ley de Protección del Medio Ambiente deberán cumplir con lo establecido en el Anexo IV de este mismo Decreto.

En el caso de construcciones dedicadas a explotaciones ganaderas, se exigirá la presentación de una propuesta detallada

EK\CV GAO-I-2018-07902

sistemen proposamen zehatza aurkeztea eskatuko da; proposamen horretan, gutxienez, honako alde hauek aurreikusiko dira:

Simaurtegi eta minda-hobietarako proposatutako lekua, uribilguetatik urrun ipiniz. Hori dela-eta, kareharria duten eremuetan arreta handiz jokatuko da lurpeko urak kutsatzea galaraztеko, eta akuiferoen babeserako eremuetan, berriz, gorozki-isurketak debekatuko dira.

a) Abeltzaintza-jarduerak eragindako hondakin organikoak, solidoak badira, esparru estali eta iragazgaitzean bilduko dira, eta lixibiatuak hobi estankoan biltzea aurreikusiko da. Hondakin likidoak eta mindak hobi irazgaitzean bilduko dira, eta hobi horrek abeltzaintza-jarduerak 90 egunetan sortutakoak jasotzeko adinako edukiera izango du; hots, 1,50 m^3tik 2,00 m^3ra bitartean, azienda larri eta hilabete bakoitzeko.

Behi-ustiategien kasuan, honako erreferentzia hauek erabiliko dira minda-hobien eraikuntza-kalkuluetarako:

— Behi bakoitzeko: 5,00 m^3.

— Hazteko zekor bakoitzeko: 1,00 m^3.

— Gizentzeko zekor bakoitzeko: 3,00 m^3.

b) Ustiategiko lurretan edo beste batzuetan minda ongarri natural gisa zabaltzean, kontuan hartu beharko dira eremu eta zabaltze bakoitzean gehienez ere onar daitekeen medeapen edo karga organikoa, bai eta lursailaren topografia edota klimatologia ere –euriak eramatea galarazteko–.

Irizpide orokor gisa, 2 AUNLU (azienda-unitateak nekazaritzako lurrak ureztatzeari begira) bakoitzeko hektarea bat (1,00 ha) lur izatea justifikatu beharko da, kontuan hartuz AUNLU batek honako baliokidetasun hauek dituela hainbat motatako aziendetarako:

— Ugalketarako abelgorri bat (1).

— Gizentzeko bi (2) abelgorri.

— Zaldi bat (1).

— 30 ardi edo/eta ahuntz.

— 3,5 umetarako txerrama.

— Gizentzeko 15 txerri.

— 150 ama-untxi.

— 250 oilo.

Gehienez ere 45 m^3/ha onartzen da larrerako belardietan eta 70 m^3/ha segaz ebakitzen direnetan.

c) Simaurtegiak eta minda-hobiak azienda-instalazioen inguruetan kokatuko dira eta, edonola ere, eraikin nagusia dagoen partzelaren barruan.

8. Landare-geruzaren berrezarpena:

Lurzoru Urbanizaezinean egindako mota guztietako hondeaketetan, lanen titularrak landaretza naturala berrezarri beharko du, bai eta landareen lur-geruza ere, lanak direla-eta suntsiturik gelditu den eremuetan.

117. artikulua. Eraikuntza mugikor edo aurrefabrikatuen ezarpena.

Eraikuntza aurrefabrikatu mugikor nahiz finkoak, karabanak, kanpadendak edota bizilekutzat, ostatutzat edo aisialdilekutzat erabil daitekeen beste edozein elementu modu etengabean nahiz tarteka ezartzea, etxebizitza-erabilerara xedatutako eraikuntza berritzat hartuko da ondorio guztietarako, eta mota horretako eraikuntzetarako eskatzen diren baldintza guztiak aplikatuko zaizkio.

de los sistemas de almacenamiento y eliminación de residuos que se vayan a dotar en la explotación, en la que se contemplen como mínimo los siguientes aspectos:

Emplazamiento propuesto para los estercoleros y fosas de purines, situándolos en zonas alejadas de cursos de agua. A estos efectos, se extremarán las precauciones en las zonas calizas para evitar la contaminación de aguas subterráneas, no permitiéndose el vertido de deyecciones en las zonas de protección de acuíferos.

a) Los residuos orgánicos generados por la actividad ganadera, si se trata de sólidos se almacenarán en recinto cubierto e impermeable, previendo la recogida de lixiviados en fosa estanca. La recogida de residuos líquidos y purines se realizará en fosa impermeable siendo su capacidad suficiente para albergar las deyecciones producidas durante 90 días de actividad ganadera a razón de 1,50 a 2,00 m^3 por unidad de ganado mayor y mes de almacenamiento.

En el caso de las explotaciones bovinas, se emplearán para el cálculo constructivo de las fosas de purines, las siguientes referencias:

— Por vaca: 5,00 m^3.

— Por ternero de cría: 1,00 m^3.

— Por ternero de cebo: 3,00 m^3.

b) El extendido de purines como abono natural en los terrenos de la explotación o en otros, deberá realizarse teniendo en cuenta la capacidad máxima admisible de enmienda o carga orgánica por unidad de superficie y por operación; la topografía del terreno, climatología –evitando arrastres por la lluvia–.

Como criterio general, deberá justificarse la disponibilidad de 1,00 ha de terreno para dichos efectos por cada 2 U.G.E.R. –unidad de ganado equivalente a efectos de riego–, considerando las siguientes equivalencias de 1 U.G.E.R. para las distintas especies:

— 1 cabeza de ganado vacuno reproductor.

— 2 cabezas de ganado vacuno de engorde.

— 1 cabeza de equino.

— 30 cabezas de ovino- caprino.

— 3,5 cerdas reproductoras.

— 15 cabezas de cerdos de cebo.

— 150 cabezas conejas madres.

— 250 gallinas.

Las limitaciones que se consideran admisibles son 45 m^3/ha como máximo en praderas de pastoreo y 70 m^3/ha en praderas de corte/siega.

c) Los estercoleros y fosas de purines se emplazarán en las inmediaciones de las instalaciones ganaderas y en cualquier caso, dentro de la parcela que contiene el edificio principal.

8. Reposición de la capa vegetal:

En las excavaciones de todo tipo que se realicen en Suelo No Urbanizable, el titular de las obras deberá reponer la vegetación natural; incluyendo la capa de tierra vegetal necesaria en aquellas superficies de terreno en las que, por causa de las obras, la misma hubiese sido destruida.

Artículo 117. Implantación de construcciones móviles o prefabricadas.

La implantación de construcciones prefabricadas móviles o fijas, caravanas, tiendas de campaña o cualquier elemento susceptible de ser utilizado como habitación, alojamiento o lugar de esparcimiento, ya sea de forma continua o intermitente, será considerado, a todos los efectos, como una nueva edificación destinada al uso de vivienda y será de aplicación la totalidad de las condiciones exigidas para este tipo de construcciones.

EK\CV GAO-I-2018-07902

3.6.2. 2. ATALA. Eraikinen baldintza bereziak eta eraikin horien kokapena lurzoru urbanizaezineko eremuetan

118. artikulua. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak.

1. Definizioa:

Landa-lurra ustiatzeko ondasunen eta eskubideen multzo antolatua da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategia.

Honako hauek hartzen dira nekazaritzako ekoizpen-jardueratzat:

— Nekazaritzako jarduerak, eta horien artean lorezaintza, mintegietako laborantza eta laborantza mikologikoa nahiz hidroponikoa.

— Abeltzaintzako jarduerak, eta horien artean hegaztihazkuntza, untxi-hazkuntza, erlezaintza edota arrautzak txitatzera, larrugintzarako abereen hazkuntzara edo ehiza-espezien ekoizpenera xedatutako granjak.

— Arrain-haztegi eta itsas haztegi jarduerak.

Ez dira nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueratzat hartzen, besteak beste:

— Nekazaritzako enpresa lagungarriak, lurrik izan gabe, laborantzako makinak salduz edo maileguan utziz edota ohiko beste zerbitzuren bat eskainiz nekazaritza-lanetan laguntzen dutenak.

— Lagun egiteko animalien haztegiak.

2. Izapideak:

Arau hauetan ezarritakoaren ondorioetarako eta bereziki nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako eraikuntzen edo instalazioen ezarpenari dagokionean, nekazaritza arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Goreneko Departamentuaren baldintzetara egokitu beharko dute. Jarduera-lizentzia lortu behar duten abeltzaintzako ustiategi berriek, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen 515/2009 Dekretuan, ezarritakoa bete beharko dute. Ingurumenaren Babeserako Legean aurreikusitako jarduera-lizentzia lortu behar izatetik libre dauden jardueren zerrenda ezarri zuen 165/1999 Dekretuaren, martxoaren 9koaren, arabera, jarduera-lizentzia lortu behar izatetik libre dauden ustiategiek Dekretu horren beraren IV. Eranskinean ezarritakoa bete beharko dute.

3. Gutxieneko partzela eta partzelazioa:

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi berriaren ezarpenari atxikitako lursailaren edo lursailen gutxieneko azalera, oro har, hektarea batekoa (1 ha) izango da.

Ez da onartuko hektarea bateko (1 ha) baino azalera txikiagoko finkak eratuko dituzten finka-banaketa edo -zatiketarik, alboko beste partzela batzuetara erantsiko direla bermatzen ez bada behintzat. Edonola ere, jatorrizko finka ez da hektarea bateko (1 ha) baino azalera txikiagoarekin gelditukо.

4. Eraikuntza- eta urbanizazio-baldintza orokorrak:

a) Debekaturik daude nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotu gabeko familia bakarreko etxebizitza, bi familiakoa eta etxebizitza kolektiboa erabilerak.

b) Eraikuntzek araudi honetan eskatutako baldintza orokorrak beteko dituzte.

c) Lehendik dauden etxebizitza-eraikinen handitzea, hobetzea, konponketa edo finkapena:

— Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategian bizitegi-erabilerako baserri edo eraikinen bat dagoenean, horren azalera egun duen oinplano-okupazioaren % 20 handitu ahal izango da

3.6.2. SECCIÓN 2.ª Condiciones particulares de las edificaciones y su ubicación en las diferentes zonas de suelo no urbanizable

Artículo 118. Explotaciones agroganaderas.

1. Definición:

Se entiende por tal, el conjunto organizado de bienes y derechos para la explotación del suelo rural.

Se consideran actividades de producción agraria las siguientes:

— Actividades agrícolas, incluidas la floricultura, los cultivos en vivero, los micológicos y los hidropónicos.

— Las actividades ganaderas incluidas la avicultura, cunicultura, apicultura y las de las granjas dedicadas a la incubación de huevos y la cría de animales para peletería o la producción de especies cinegéticas.

— Las actividades de piscifactoría y los cultivos marinos.

No se consideran actividades agroganaderas, entre otros:

— Las empresas auxiliares agrarias, que no poseyendo tierras, cooperen en la producción agraria mediante venta o prestación de maquinaria agrícola o cualquier otro servicio empleado usualmente.

— Los criaderos de animales de compañía.

2. Tramitación:

A los efectos de lo dispuesto en estas Normas y, particularmente, en lo referente a la implantación de edificaciones o instalaciones vinculadas a explotaciones agroganaderas deberán ajustarse al condicionado del Departamento de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de agricultura. Las explotaciones ganaderas de nueva instalación que requieran la obtención de la licencia de actividad, deberán cumplir lo establecido en el Decreto 515/2009, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas. Las explotaciones exentas de la obtención de la licencia de actividad según el Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de licencia de actividad prevista en la Ley de Protección del Medio Ambiente deberán cumplir con lo establecido en el Anexo IV de este mismo Decreto.

3. Parcela mínima y parcelación:

La superficie mínima de terreno o terrenos adscritos a la implantación de una nueva explotación agroganadera será, con carácter general, de 1 ha.

No se admitirán segregaciones o divisiones de fincas que den, como resultado, fincas con superficie inferior a 1 has salvo que se garantice su incorporación a otras parcelas colindantes. De cualquier manera, la finca matriz no podrá quedar con una superficie inferior a 1 ha.

4. Condiciones generales de edificación y urbanización:

a) Se prohíbe el uso de vivienda unifamiliar, bifamiliar o colectiva no vinculada a la explotación agroganadera.

b) Las edificaciones cumplimentarán las condiciones generales exigidas en esta normativa.


c) Ampliación, mejora, reparación o consolidación de los edificios de vivienda existentes:


— Cuando exista ya un caserío o edificación de uso residencial en la explotación agroganadera, se podrá ampliar con una superficie máxima de 20 % de la actual ocupación en planta y

EK\CV GAO-I-2018-07902

eta eraikigarritasuna % 50 gehienez ere; handitzean, egungo baserriaren profilari eutsiko zaio, honako eskema hauen arabera.

un 50 % de la edificabilidad, con desarrollo que mantenga la línea de perfil del actual caserío según los siguientes esquemas.





— Handitze horren premia nekazaritzako eta abeltzaintzako unitateak dituen ustiapen arloko beharren arabera justifikatuko da.

— Lanen ondorengo eraikuntzak gehienez ere hiru etxebizitza izango ditu egungo baserrietan eta banaketarik egingabe jatorrizko partzelan betiere.

— Bestelako erabileretara xedatutako eraikin lagungarriak, batez ere, eraikin nagusiaren barruan edo hari atxikirik ipiniko dira, eta horien eraikuntzan eraikin nagusi horrekin bat etorriko diren material eta konponbide arkitektonikoak erabiliko dira.

— Erosotasunagatik edo osasungarritasunagatik, ukuiluak, haztegiak edo antzeko eraikinak bizitegi-erabileretatik bereizi beharko balira, bakarturik ipintzea baimenduko da.

— Eraikinen handitze, zaharberritze edo eraberritzeek berekin ekarriko dute hurbilean dituen txabolak, behin-behineko eranskinak eta teilapeak desagertzea, eta, horrela, multzo osoaren eta ingurunearen itxura hobetuko da.

— Katalogoan sartutako elementu interesgarriren bat izanez gero, bestalde, mantendu edo berrerabili egin beharko da, baldin eta lehengo eraikinaren ordezkoa egiten bada. Kasu horretan, eraikina lehengo leku berean berreraikiko da.

d) Erortzeko zorian dauden etxebizitzen berreraiketa.

2/2006 legearen premiazko neurrein, ekainaren3-ko. 105/2008 Dekretuaren 9. artikuluan finkatutakoaren arabera, baserria izango da honako baldintzak guztiak betetzen dituen eraikina:

a. Isolatutako eraikina izango da, eta haren erabilera nagusia, etxebizitza.

b. Gutxienez, etxebizitza bat izango du iada, Jabetza-erregistroaren arabera.

c. 1950-eko urtarrilaren 1-a baino lehenagoko lehenengoz okupatzeko lizentzia izango du edo etxebizitza-okupazio hori jasotzen duen dokumentu bat.

Berreraikuntzarako, nahitaezko honako baldintzak bete beharko ditu:

— Erortzeko zorian dauden etxebizitzetara xedatutako eraikuntzak berreraiki egin ahal izango dira, baldin eta kokaturik dauden partzela gutxienez 1,5 hektareakoa bada. Gehienez ere bi etxebizitza izango dira ustiategi bakoitzeko, bi familiako eraikuntzan.

— Ez dira inola ere baimengarri izango jatorrizko eraikuntzen gailurrera iristen ez diren horma-hondakinak, ez eta, oro har, eraikinaren oinplano orokorra ezagutzen edo eraikinaren benetako eraikigarritasuna oso-osorik antzematen uzten ez duten gainerako hondakinak ere.

Ez da inolaz ere baserrien birgaitze modura hartuko, lehenago legez bizitegi-erabileretara xedatu ez diren lurzoru urbanizaezineko eraikinak bizitegi-erabilerarako berritu edo birgaitzea.

— Berreraikuntza, gehienez ere, lehendik zegoen eraikinari eta araudi honetako III. Atalean adierazitako baldintza orokorrei egokituko zaie.

— Se justificará la necesidad de ampliación en función de las necesidades de explotación de la unidad agroganadera.

— La edificación resultante tendrá un máximo de tres viviendas y no supondrá ninguna división parcelaria.

— Las construcciones auxiliares, destinadas a otros usos, se dispondrán, preferentemente, englobadas o adosadas al edificio principal y, en su construcción, se utilizarán materiales y soluciones arquitectónicas que armonicen con aquel.

— Las construcciones que, por condiciones de confort o salubridad, como establos, granjas o similares, hicieran necesaria una separación de los usos residenciales, será autorizados en disposición exenta.

— Las ampliaciones, restauraciones o renovaciones conllevarán la desaparición de txabolas, añadidos precarios y tejavanas próximos al mismo, de forma que mejore el aspecto del conjunto y su entorno.

— Por otra parte, en caso de existir elementos de interés incluidos en el catálogo, deberán conservarse o reutilizarse, siempre que se proceda a la sustitución de la edificación. En este supuesto, el edificio se reconstruirá en la misma ubicación.

d) Reconstrucción de viviendas en ruina.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 9 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes de la Ley 2/2006, se entenderá por caserío los edificios que cumplan acumulativamente las siguientes condiciones:

a. Constituirse como tipo edificatorio aislado, con uso predominante de vivienda.

b. Disponer de por lo menos una vivienda ya existente, todo ello según lo dispuesto en el Registro de la Propiedad.

c. Disponer de licencia de primera ocupación o de documento que deje constancia de modo fehaciente de su efectiva ocupación residencial con anterioridad al 1 de enero de 1950.

Para su reconstrucción, será preceptivo cumplir los siguientes requisitos:

— Podrá reconstruirse aquellas edificaciones destinadas a vivienda que se encuentren en ruina, siempre que la parcela en la que se sitúa alcance una dimensión mínima de 1,5 has. El máximo será de dos viviendas por explotación, en edificación bifamiliar.

— En ningún caso será autorizables los restos de muros de edificaciones que no alcancen la cumbrera de las primitivas y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble general ni permitan reconocer la edificabilidad real total de éste.

En ningún caso se podrá considerar como rehabilitación de caseríos, la reforma o rehabilitación para uso residencial de edificaciones situadas en el suelo no urbanizable que no hubieran sido legalmente destinadas a usos residenciales con anterioridad.

— La reconstrucción se ajustará, como máximo, a la edificación preexistente y a las condiciones generales que se señalan en la Sección III de la presente normativa.

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Berreraikuntzaren kokapena aldatu egin ahal izango da, baldin eta arrazoi higieniko-sanitarioengatik edo paisaiari lotutakoengatik aldatzea gomendagarri bada.

— Berreraikuntzak berarekin ekarriko du partzelan kokaturik dauden txabolak edo behin-behineko eranskinak desagertzea.

Baserriak berreraikitzeko obra lizentziaren egilesteak honakoak beharko ditu (2/2006 Legearen 30,4 art.).

a. Jendaurreko informazioan ipiniko da 20 Eguneko gutxieneko epean.

b. Ezusteko kasuan, ezinbestean edo desjabetzeko okupazioko kasuetan, berreraikuntzan parte hartuko duten edo berreraikuntza hori onartzera bideratuko duten gertakari eta baldintzak ezagutzen dituzten erakunde eta elkarteen informeak bilduko dira.

e) Lehengo eraikinen ordezkapena.

— Osasun-, ingurumen- edo paisaia-arrazoien arabera, egungoak ez bezalako lekuetan ipini ahal izango dira.

— Ezaugarri fisikoetan, eraikuntza berrietarako finkatutako zehaztapenetara, artikulu honen 5., 6. eta 7. ataletan adierazitakoetara, egokituko dira.

5. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi berrien ezarpena:

Artikulu honen 1., 2., 3. eta 4. (a eta b) ataletan ezarritako baldintzetara egokituko dira. Horrez gain:

A. Baratzezaintzako eta abeltzaintzako ustiategi bati lotutako eraikuntza-lizentzia, ekonomia-ustiapenaren titularrak eta arduradunak ohiko etxebizitza modura erabili behar duenean bakarrik eman ahal izango da. Horretarako, eskatzaileak dagokion lurralde historikoko nekazaritza departamenduaren aurretiko baimena eskatu beharko du, gutxienez, honako gai hauek egiaztatuz:

a) Ustiategiak era autonomoan bideragarritasun ekonomikoa izateko gutxieneko baldintzak betetzen dituela.

b) Eskatzailea dagokion Gizarte Segurantzako erregimen berezian afiliaturik dagoela gutxienez eskaera-data baino urtebete lehenagotik.

c) Aurkeztutako azken errenta-aitorpenean, eskatzailearen sarrera arrunten %50etik gora baratzezaintzako edo abeltzaintzako jardueren ustiapenetik datorrela.

B. Aurreko zenbakian aurreikusitako baimena alde batera utziz edo baimen horren kontra emandako lizentziak guztiz baliogabeak izango dira.

C. Dena dela, lurzoru urbanizaezinean bizitegi-erabilerarako eraikuntza-lanak baimentzen dituzten lizentziak, honako baldintza legal hau betetzearen mende egongo dira: erabilera hori dagokion baratzezaintzako edo abeltzaintzako ustiategi ekonomikoari edo landa-garapenari dagozkion bestelako erabilerei etengabe loturik egotea, gutxienez hogeita bost urtetan. Era berean, baratzezaintzako edo abeltzaintzako erabilerekiko lotura egiaztatzen duten partzelak, baimendutako eraikinari loturik gelditu dira, bai hirigintza alorrean, bai eta erregistroan ere.

D. Baldintza legala hausteak bizitegi-erabileraren hirigintza alorreko legezkotasunik eza ekarriko du eta eraikina edo eraikuntza antolamenduz kanpo ipintzea; egoera bata zein bestea Jabetza Erregistroan idatziko dira, legez dagozkien eran eta jabetzaren kontura.

E. Lege-haustea gertatzean, Udalak sortutako lizentziaren iraungipena adierazi beharko du, aurrez iraungipena jasango duen titularra entzunez eta kalte-ordainketarako inolako eskubiderik gabe.

F. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, dagokion lurralde historikoko nekazaritza departamentuak Udalari

— Podrá modificarse su ubicación si, por razones higiénico-sanitarias o paisajísticas lo hicieran recomendable.

— La reconstrucción conllevará la desaparición de txabolas o añadidos precarios que se ubiquen en la parcela.

El otorgamiento de licencia de obras de reconstrucción de caseríos requerirá (Art. 30, 4 Ley 2/2.006):

a. Sometimiento del proyecto a información pública por plazo mínimo de veinte días.

b. En los supuestos de reconstrucción por causa de caso fortuito, fuerza mayor u ocupación expropiatoria, se recabarán los informes pertinentes de los organismos o instituciones que hubieran intervenido o tuvieran conocimiento de los hechos y circunstancias que hacen posible autorizar la reconstrucción.

e) Sustitución de las edificaciones existentes.

— Podrán ubicarse en emplazamientos diferentes a los actuales en función de razones sanitarias, ambientales o paisajísticas.

— En sus características físicas se ajustará a las determinaciones fijadas para las nuevas edificaciones, que se señalan en los apartados 5, 6 y 7 del presente artículo.

5. Implantación de nuevas explotaciones agroganaderas:

Se ajustarán a las condiciones establecidas en los apartados 1, 2, 3 y 4 (a y b) del presente artículo. Y además:

A. Sólo será admisible el otorgamiento de licencia de construcción vinculada a una explotación hortícola y ganadera cuando ésta haya de ser empleada como vivienda habitual por el titular y gestor de la explotación económica. A estos efectos, el solicitante deberá solicitar la previa autorización al departamento de agricultura del territorio histórico correspondiente, acreditando, al menos, los siguientes extremos:

a) Que la explotación reúne los requisitos mínimos para su viabilidad económica de forma autónoma.

b) Que el solicitante está afiliado al régimen especial de la Seguridad Social correspondiente al menos con un año de anterioridad a la fecha de solicitud.

c) Que en la última declaración de la renta presentada más del 50 % de los ingresos corrientes del solicitante provienen de la explotación de la actividad hortícola o ganadera.

B. Serán nulas de pleno derecho las licencias que se otorguen prescindiendo o en contra de la autorización prevista en el número anterior.

C. En todo caso, las licencias que autoricen las obras de construcción o edificación para uso residencial en suelo no urbanizable quedarán sujetas a la condición legal del mantenimiento de la vinculación de dicho uso a la correspondiente explotación económica hortícola o ganadera o a otros usos propios de desarrollo rural, de manera continua e ininterrumpida durante el plazo mínimo de veinticinco años. Asimismo, las parcelas que sirven para acreditar la vinculación a usos hortícolas o ganaderos quedarán urbanística y registralmente vinculadas a la edificación que se autorice.

D. El incumplimiento de la condición legal determinará la ilegitimidad urbanística sobrevenida del uso residencial y la colocación de la construcción o edificación en situación de fuera de ordenación, con anotación de lo uno y lo otro en el Registro de la Propiedad en la forma que legalmente proceda y a costa de la propiedad.

E. Producido el incumplimiento, el ayuntamiento deberá declarar la caducidad sobrevenida de la licencia, previa audiencia del titular afectado por la misma y sin derecho alguno a indemnización.

F. A los efectos de lo dispuesto en este artículo, el departamento de agricultura del territorio histórico correspondiente

EK\CV GAO-I-2018-07902

jakinaraziko dio Ustiategien Erregistroan baratzezaintzako edo abeltzaintzako ustiategi ekonomiko horri dagokion idazpenean jasotako edozein aldaketa.

6. Bizitegi-erabilerak nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi berrietan:

Gehienez ere hiru (3) etxebizitza baimentzen dira ustiategi bakoitzeko, honako baldintza hauetan:

— Oinplano-okupazioa: 100 m^2 gutxienez.

Gehienez: 200 m^2 familia bakarreko etxeetan.

400 m^2 bi familiakoetan.

Altuera maximoa: 7m.

Profila: Behe solairua + 1 + teilatupea.

— Oinplano-okupazio horren barruan daude eraikin berriaren barruan kokatuko diren erabilera lagungarriak, garajeak, lanabesetarako biltegiak, etab.

— Ezarpen horietan debekaturik egongo da eraikuntza nagusitik kanpo txabolak, teilapeak, etab. eraikitzea, eta, era berean, eraikin berriak berarekin ekarriko du partzelan egon daitezkeen mota horretako eraikuntzen desagerpena ere.

— Eraikin horietan beraietan baimendurik dago landa-turismoko erabilerak ezartzea.

— Behar-beharrezko zerbitzuak izan beharko dituzte: ura, saneamendua, elektrizitatea, etab.

— Lurzoru Urbanizaezinaren Kalifikazioan dagokion planoan mugatutako nekazaritzako eta abeltzaintzako eremu orokorrean bakarrik ipiniko dira.

7. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi izatera xedatutako eraikuntzak.

a) Zuzenean nekazaritzako ustiapen-erabileretara eta erabilera horien erabilera osagarri eta lagungarrietara –bizitegi-erabileretara izan ezik– xedatutako eraikin finko edo egonkor guztiak hartuko dira kontuan; hala nola, zalditegiak, ukuiluak, sotoak, lastategiak, siloak, laborantzako makinak gordetzeko eraikinak, etab.

b) Araudi hau onartu aurretik erabilera horietara xedaturik zeuden eta «antolamenduz kanpokotzat» jo ez dituzten lehengo eraikuntzak finkatutzat hartuko dira.

Handitze edo ordezkatze ondorioetarako, artikulu honen 7c atalean adierazi diren baldintzak, bizitegi-erabilerarik gabeko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietara xedatuko diren eraikin berrietarako ezarritakoak, aplikatuko dira.

c) Bizitegi-erabileraz kanpoko erabileretara eta abeltzaintza ustiategira xedatutako eraikin berriak.

Artikulu honen 7.a atalean ezarritako erabileretara xedatuko diren eraikin berriek honako baldintza hauek beteko dituzte:

— Partzela hartzailearen gutxieneko azalera: 10.000 m^2.

— Gehienezko okupazioa: partzela hartzailearen % 15, gehienez ere 1.000 m^2 gainditu gabe.

— Gehienezko garaiera: 7,00 m.

— Eraikinaren gehieneko luzera: 40,00 m.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuan eta landazabalean bakarrik kokatuko dira.

Baldintza higieniko-sanitario egokiak eta honako Arau hauetan ezarritako bilketa- eta arazketa-eskakizunak bete izana bermatu beharko dira.

Gutxieneko tarteak (515/2009 Dekretua).

d) Berotegien ezarpena.

Honako baldintza hauetara egokituko da:

informará al ayuntamiento de cualquier modificación registrada en la inscripción pertinente de dicha explotación económica hortícola o ganadera en el Registro de Explotaciones.

6. Usos residenciales en las nuevas explotaciones agroganaderas:

Se autoriza un máximo de tres (3) viviendas por cada explotación, en las siguientes condiciones:

— Ocupación en planta: Mínima 100 m^2.

Máxima: 200 m^2 en unifamiliares.

400 m^2 en bi/trifamiliares.

Altura máxima: 7 m.

Perfil: PB + 1 + BC.

— En esta ocupación en planta se incluyen los usos auxiliares, garajes, almacenes para aperos, etc. que se ubicarán dentro del edificio de nueva construcción.

— No se admitirán, en estas implantaciones, la construcción de txabolas, tejavanas, etc. fuera de la edificación principal y, así mismo, la nueva construcción conllevará la desaparición de este tipo de edificaciones que pudieran existir en la parcela.

— Se autoriza la implantación de usos de agroturismo en estas mismas edificaciones.

— Deberán disponer de los servicios de agua, saneamiento, electricidad, etc. necesarios.

— Se ubicarán, exclusivamente, en la zona agroganadera general delimitada en el correspondiente plano, Calificación del suelo no urbanizable.

7. Construcciones destinadas a la explotación agroganadera.

a) Se consideran todas las construcciones de carácter fijo o estable destinadas directamente a usos de explotación agraria y a usos complementarios y auxiliares de los mismos como cuadras, establos, bodegas, pajares, silos, edificaciones para guarda de maquinaria agrícola, etc. a excepción de los usos residenciales.

b) Se entenderá consolidadas las edificaciones existentes con anterioridad a la aprobación de la presente normativa, destinadas a estos usos y no declaradas «fuera de ordenación».

A efectos de ampliación o sustitución, serán de aplicación las condiciones establecidas para las nuevas edificaciones destinadas a explotaciones agroganaderas sin uso residencial que se señalan en el apartado 7c del presente articulo.

c) Nuevas edificaciones destinadas a usos no residenciales y destinadas a la explotación ganadera;

Las nuevas edificaciones destinadas a los usos establecidos en el apartado 7.a del presente artículo, cumplirán las siguientes condiciones:

— Superficie mínima de la parcela receptora: 10.000 m^2.

— Ocupación máxima: 15 % de la parcela receptora, sin superar un máximo de 1.000 m^2.

— Altura máxima: 7,00 m.

— Longitud máxima de la edificación: 40,00 m.

Se ubicarán exclusivamente en la zona agroganadera y campiña.

Se deberán garantizar condiciones higiénico-sanitarias adecuadas y el cumplimiento de los requisitos de recogida y depuración establecidas en las presentes Normas.

Separaciones mínimas (Decreto 515/2009).

d) Implantación de invernaderos.

Se ajustará a las siguientes condiciones:

EK\CV GAO-I-2018-07902

— Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuan eta landazabalean kokatu ahal izango dira, ahal izanez gero eremu begi-bistakoenetan eta herritarrei zeruertz-lerroan paisaia ikusteko aukera gehien ematen dienetan ipini gabe.

— Solairu bakarra izango dute eta gehienez ere 4,00 metroko garaiera.

— Partzelako muga arteko tartea 3,00 metrokoa izango da eta beste landa-finketako eraikinetarainokoa 20,00 metrokoa.

— Berotegiak, gehienez ere, partzela hartzailearen % 50 hartuko du.

— Berotegien eremua 2.000 m^2tik gorakoa denean, dagokien proiektuan adierazi eta paisaiaren gaineko eragina arintzeko neurriak aplikatu beharko dira.

— Ahal den neurrian, berotegiak paisaian txertatzen lagunduko duten hesiak eta bestelako baliabideak erabiliko dira.

— Ustiategian sortutako landare-hondakin guztiak tratatzeko adinako konpost-instalazioa izango dute.

— Sortutako gainerako hondakin solidoak ingurumenean kutsadurarik edo kalterik eragiteko arriskurik gabe biltegiratu eta indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira; debekaturik egongo da, ordea, hondakin horiek aire librean erretzea.

119. artikulua. Nekazaritzako erabilera profesionalizatu gabeak. Lehengo laborantza-unitateak.

1. Halakotzat hartuko dira ustiatzailea bera bakarrik mantentzeko adinakoak ez diren nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak.

2. Lizentzia- eta eraikuntza-baldintzak. Txabolak:

— Edozein obra egin aurretik dagokion Udal Lizentzia behar izango da. Baldintzapean emango da eta Udaletxeak finkatu ahal izango ditu ezaugarriak eta erabiliko diren materialen kolorea, baita eraikinaren eta paisaiaren estetikari lotutako beste hainbat neurri ere. Dena dela, paisaian eragin gutxien izango duen partzelaren gunean kokatuko da. Lizentzia partzelaren jabeak eskatu beharko du jabetzaren tituluaren fotokopia aurkeztuaz, kokapen-planoa 1:5.000 eskalan eta partzelaren planoa 1:1.000 eskalan gutxienez, non txabolaren kokapenaren proposamena zehaztuko den.

— Erabilera bakarra onartuko da: aisialdirako baratze edo lorategia.

— Debekaturik dago partzela horiek karabanak, kanpadendak, aparkaleku iraunkorrak, ibilgailu-garbitegiak, arropa-esekitokiak eta dagozkien helburuekin bat ez datozen gainerako guztiak instalatzeko erabiltzea.

— Eraikinari buruzko baldintzak: partzela bakoitzean, 3 x 4,5 metroko txabola bakar bat eraiki ahal izango da; hots, 13,50 m^2ko azalera eraikia, sarreran 3 x 2,5 metroko atariarekin. Txabolak solairu bakar bat izango du, eta gehienez ere 4,00 metroko garaiera. Barruan ez du elektrizitaterik, ez txorrotako urik, ez inolako ur-huste motarik izango.

